

Goienkaria

2007ko uztailaren 27a > Egubakoitza > VII. urtea > 298. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Gerrak
ahaztutakoak
gara orduko
umeak;
itzultzean ez
geneukan ezer"

Benita Gallastegi
Espainiako gerrako
umea > 09



G2a

Pikultxa Roots
musika jaialdia
Bergaran > 35-36

BERGARA
Errota-Gain lantegian akordioa lotu
dute 45 eguneko grebaren ostean > 20

ARETXABALETA
Andramaixak ospatuko dituzte
abuztuaren 14tik 17ra > 25

ANTZUOLA
Aste bukaeretan alde zaharra
trafikoari ixteko asmoa du Udalak > 28

ARRASATE > MERKATARITZA

Zabaletan saltoki handirik ez

Udal gobernuak atzera bota du Zabaletan merkataritzagunea egiteko proiektua > 16

EGURALDIA > IRAGARPENA

Abuztuan eguraldi ederra

Pello Zabalak aurreratu du "zeru garbia eta tenperatura goxoak" izango ditugula > 05



Irailera arte, irakurle!

Oporrak hartuko ditugu abuztuaren 30era bitartean. Hori dela-eta, GOIENKARIAREN hurrengo zenbakia irailaren 7an argitaratuko dugu. Ordura arte, ondo ibili oporretan.

NEKAZARITZA > GETARIKO TXAKOLINA

Ibarreko txakolinak Getariako izendapena izango du udazkenean

IZENA Landatzeko eskubideak erosi beharko dituzte ekoizleek, euren mahastiak legeztatu eta jatorri izena lortu ahal izateko

ESKUBIDEAK Gipuzkoako landatzeko eskubide guztiak banatuta daudenez, Espainiako hainbat erkidegori erosiko dizkiete

HIRU EKOIZLE Bailaran hiru txakolin ekoizleek legeztatuko dituzte mahastiak: Arrasateko bik eta Oñatiko batek > 06



PROBATZEN Eguaztenean Atxabalpen izan ziren segalariak, zelaia zelan dagoen ikusten; irudian, Arkaitz Arteaga eta Aloña Galarraga.

XABIER URTZELAI

Domekan sega erakustaldia egingo dute Atxabalpeko zelaian

Gesalibarko auzo batzordeak eta Almitza Segalari Elkarteak erakustaldia antolatu dute domekarako. 12:30ean hasita, 10-12 segalari jardungo dute Atxabalpen. Hain zuzen, eguaztenean futbol zelaian izan ziren Almitza elkarteko hainbat segalari, zelaiaren ego-

era bertatik bertara ikusten. Hainbat saio egin zituzten, eta, belarra luze ez badago ere, erakustaldia ondo egin daitekeela azpimarratu zuten. Hori bai, segak berehala kamusten zirela ohartu ziren; teknika lan-dua beharko da segan ondo egiteko. > 18

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10
Gutunak > 11
Herriak > 13-31
Kirola > 32-33
Kultura > 37
Sailkatuak > 38
Eskelak > 39
Denbora-pasa > 40
Gazteak > 42
Komunikazioa > 43
Telebista-Irratia > 44
Non-zer > 46-47

*Oporretan joateko
azken aukerak!*

*Mediterraneoan
Europa
Trilak
Itsasbidaiak*

Arrasate Bidaiak

Kontzezio Kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 - Faxa.: 943 79 74 45
Posta-e: d4051@marsans.es

BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua

GOIENA TELEBISTA > GOIENA TELEBISTAREN AURREKARIAK

Eskualdeko telebista legal eta indartsu baten aurrekariak eta esperientziak

ARRASATE TELEBISTA

Arrasate Telebista 1990ean sortu zuten, eta hasieran, ez emititzeko agindua jaso zuten Madrildik

EUSKARAREN ERABILERA

Herri telebista sortzearen helburua zen ahalik eta herritar gehienei eragitea eta euskararen erabilera bultzatzea

ESKUALDERA

2000. urtean Arrasate Telebistak eta Aretxabaleta Telebistak indarrak batu, eta eskualdera salto egin zuen telebistak

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Goiena Telebistak emititzeko lizentzia digitala jaso du. Horri esker eskualdeko telebista legala da, eta ibarreko herri telebista proiektuek 1990a ezker bizi izan duten alegaltasun egoera atzean utzi dute. Albiste oso garrantzitsua da lizentzia jaso izana. Horregatik, gaur egun indarrean dagoen Goiena Telebistaren aurrekariak ezagutzeko, iraganeko protagonistekin izan gara: ATBren sortzaile eta sasoiako eragileak, eskualdeko hedabideak eratzearen ardura izan zutenak... Eta baita gaur egungo Goienako ikus-entzunezkoen zuzendariarekin ere.

Joxe Arantzabal

ATB-KO LEHENENGO ZUZENDARIA

"Ibarrean telebista bat izatea eskola handia izan da guztiondako"

"1988an *Arrasate Press* sortu genuenean arrakasta izugarria izan zuen. Horren ostean, telebista bat egitea aztertu genuen, eta Kataluniara joan ginen hango herri telebistak ikustera. Handik bueltan proiektua idatzi eta telebista abiarazi genuen.

Hasieran telebista egiterakoan arazo tekniko ugari izan genituen, baina herritarrek oso ondo hartu gintuzten, eta aurrera egin genuen.

Ez dago zalantzarik ATB harrobi handia izan dela kazetari eta teknikariendako. Gurean ibilitako askok telebistetara eta ekoizpen-etxeetara salto egin dute: Anne Igartiburu, Maider Egues, Jon Andueza, Mikel Irizar, Andoni Urtzelai eta beste asko. Ibarrean telebista bat izatea eskola handia izan da guztiontzat".

J.F. Diaz de Tuesta

ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA
TEKNIKARIA

"Zaila zen euskara hutsezko hedabideak justifikatzea, ezagutza txikia zelako"

"*Arrasate Press* egonkortu ostean, asmoa zen irratia egitea, baina ez ziguten frekuentziarik eman. Hala, telebista egin genuen, baina Katalunian ez bezala, helburua linguistikoa zen.

Telebista eta aldizkariaren proiektuak Joxe Mari Erañak, Joxe Arantzabalek, Iñaki Mendigurenek eta laurok egin genituen, baina ideia Erañarena izan zen. AEDk babestu zuen proiektua; Udalak baliabideak jarri zituen; eta langileek ahalegin handia egin zuten.

Joxe Felix Diaz de Tuesta: "Kataluniako herri telebistan ez bezala, gure helburua ez zen negozioa, euskararen eragitea baizik"

Mikel Irizar: "Goienak esangura handia dauka ibarreko identitatea lantzerako orduan"

Arrasate Press eta ATB sortu zirenean zaila izan zen euskara hutsezko komunikabideak justifikatzea, arrasatearren erdiak euskara ulertzen ez zuelako. Baina gaur Arrasaten euskararen erabilera ia hirukoiztu egin da.

Lizentzia jaso izana oso albiste ona da. Orain arte GOITB baimen juridiko bariko errealitate indartsu eta errotu bat izan da. Orain beste maila bat hartuko du, eta erakundeekiko normalizazioa ekarriko du. Hastapenetan ibili ginenondako ere aitortza garrantzitsua da".

Joxemari Muxika

AED-KO LEHENDAKARI OHIA

"Madrildik oztupoak jarri zituzten, baina herritar askoren babesa jaso genuen"



HERRITARREN ESKU-HARTZEA ATBren hastapenetan mahainguru bat, publikoa atzean dagoela.



BIGARREN BELAUNALDIA Argazkian ATBko bigarren

"Helburua zen Arrasaten euskara bultzatzea eta Arrasateren gaineko informazio landua eta aisialdia eskaintzea. *Arrasate Press* 1988an sortu genuen, eta ATB 1990ean. Ikusten genuen prentsa jende askorengana ez zela helitzen, eta beste hedabide batzuk, eraginkorragoak, sortzeko premia genuela.

Ez zegoen telebistaren gaineko legerik eta ATB abiarazi behar genuen egunaren bezperan Madrildik esan ziguten ez emititzeko. Herriko elkarte eta talde ugari babesa eman ziguten, eta hori bidali genuen. Gerora, Madrildik esan ziguten beste inoren salaketarik jaso ezean bakean utziko gintuztela.

Arrasate Press eta ATB biak batera hartuta, uste dut ikusgarria dela finantzaketa lortzeko egin den lana. Hasi zirenean pentsaezina zen euskara hutsezko hainbeste publizitate lortuko zenik; komertzioak eta bestelakoak ohi-tu egin ditugu euskaraz publizitatzen, eta hori izugarria da. Ez dago inon honen parekorik!".

Xabier Zubizarreta

ARRASATEKO ALKATE OHIA

"Euskararen galeraren ardurari eta AEDren lanari zor diogu daukaguna"

"80ko hamarkada bukaeran Arrasaten langabezia handia zegoen. Horri aurre egiteko, Udalak



h belaualdiko lan-taldea, 1993an. Tartean, Anne Igartiburu, Jon Andueza, Maider Egues eta Andoni Urtzelai, besteak beste. GOIENKARIA

"Telebista digitalaren lizentzia jaso izanak esan gura du Goiena Telebista legala dela eta dagokion errekonozimendua jaso duela. Hala, araututa gelditu dira telebista egiteko erak eta baldintzak.

Gure barrutian lau telebistek lortu dute emititzeko lizentzia, baina benetako tokikotasuna eta euskararen presentzia ziurtatzen duen bakarra, hala ere, GOITB izango da. Arrasate Telebista tokiko telebista aitzindaria izan

zen modu berean Goiena Telebista tokikotasuna ziurtatzen aitzindaria da, eredu esportagarria. GOITBk urrats berriak emango ditu, eta zerbitzu hobea eskainiko du. Hori guztia ahalbidetu dutenak ibarreko euskara elkarrekin dira eta horiekin batera Goienako lankideak. Elkarte, udal, lankide, bezero eta ikus-entzuleei esker GOITB-k erreferentzia izaten jarraituko du eta lizentzia pausu garrantzitsua izan da".

ARETXABALETA TELEBISTA

Goiena Telebistaren beste hanka Aretxabaletako herri telebista izan zen

Arrasate Telebista ezagunagoa bada ere, Atxabalta Telebistak ere esku hartu zuen Goiena Telebistaren eraketan. Herri telebista sortzeko, lantaldea eratu zuten Mikel Urribetxebarriak, Jokin Antxiak eta Alberto Trojaolak, besteak beste: "1997an Loramendi elkarteko eta *Aretxagazeta* aldizkari indarrak batuta, Aretxabaletako Komunikabideak eratu genuen. Telebista egiteko azpiegitura handia behar zen, eta atzera egin genuen behin baino gehiagotan", azaldu zigun Antxiak. Halako baten, baina, merkatuan ekipo digitalak eta kamera txikiak agertu zirenean, aurrera egin zuten: "Gutxieneko ekipoa eskuratu, eta egun erdiz kameralari eta kazetari-aurkezle bana kontratatu genuen. Hala, 1999ko otsailean emititzen hasi ginen. Albistegiak, elkarrizketak eta erreportajeak egiten genituen". 2000. urtean, baina, Goiena Telebista sortzea erabaki zutenean, bat egin zuten proiektuarekin. "Esperientzia positiboa izan zen, eta etorkizunerako artxiboa ere bada".



BALIABIDE URRIAK Argazkian, ATBren hasierako kontrol gela. GOIENKARIA

enplegu garapen programa bat abiarazi zuen, eta horien artean AEDrekin batera aldizkari bat sortzeko gailuak jartzea erabaki genuen.

Euskal Herrian ez zegoen beste erreferentziarik euskarazko herri hedabideen gainekoa; ez, behintzat hemengo ereduaren parekorik, eta halako kutsu lokalarekin.

Laurogeiko hamarkada bukareran Arrasaten euskararen galera handia zegoen, eta horrek jende asko arduratzen zuen. Premia horri eta AEDren lan erraldoiari esker, komunikabideen proiektu sendo horiek errealitate bihurtu ziren.

Horrez gain, nabarmendu behar da *Arrasate Press* barik eta aldizkariak heritarren partetik izan zuen harrera beroagatik ez balitz, askoz zailagoa litzatekeela telebista abiaraztea.

Telebista abiarazi zutenean zaila zen pentsatzea eskualdeko hedabidea bihurtuko zela eta halako hedapena izango zuela. Pozgarria da halako dimentsioa hartu izana, eta horren ondorioz, euskararen alde egiteko eragin handiagoa duela".

Mikel Irizar

GOIENAKO ZUZENDARI OROKOR OHIA

"Ibarreko elkarrekin eta udalen arteko elkarlana oso erudugarria da"

"Hastapen guztiak gogorrak izan ohi dira, baina ilusio oso handia genuen. Neuk *Arrasate Press* erako musikaren gaineko kolaborazioak idazten nituen, eta ATBn musika saio bat egitea eskaini zidaten. Patxi Montero, *Pepe* eta Asier Bergaretxerekin batera, lanean hasi ginen. Hala, albistegiez gain, telebistako lehenengo saioa *Musikantoi* izan zen.

ATBk zeukan hutsune handiena zen teknologia alorrean oso mugatuta geundela, eta seinalea ez zela oso ona. 1992an hausnarketa handia egin behar izan genuen, neu ARKOko (Arrasate Komunikabideak) presidenten nintzela. Teknologia berria eskuratu genuen, Aldundiaren eta Udalaren laguntzarekin; eta aurkezleak eta programak berritu egin genituen. Parrilla berria ezagutzera emateko, *ATBoom* jaia antolatu genuen Eskola Profesionalen. Helburua zen herri-tarren artean ATBren gaineko lotura eustea.

90eko hamarkada bukareran, ibarreko hainbat hedabidek eta euskara elkarrekin indarrak batzeko eta eskualde mailako egitura sortzeko premia ikusi genuen. Lan hori egiteko eta Goiena izango zena eratzeko liberatu egin ninduten, eta Euskalgintzak gaitasun hori izatea itzela iruditu zitzaidan.

Sasoi hartan uste genuen telebisten lizentzia banaketa lehena go etorriko zela; eta horren aurrean gurago genuen sendotasuna bermatzea, Atxabalta Telebista eta ATB batuta.

ATBtik GOITBrako saltoa itzela izan zen. Ordurako ATB hasia zen ibarreko gaiak jorratzen. Horren aurrean, askotan entzun behar izan genuen herri-tarrei aldameneko herrikoak ez zitzaizela axola.

Debagoienean landu den bidea oso erudugarria da, elkarrekin eta udalen arteko elkarlana modu oso eraginkorrean gauzatu delako. Bestalde, Goienak, enpresak, esangura handia dauka ibarreko identitatea lantzerako orduan; uste baino pisu handiagoa".

Iban Arantzabal

GOITB-KO IKUS-ENTZUNEZKOEN ZUZENDARIA

"Ibarrean euskara hutseko, gertuko eta kalitatezko telebista bakarra da GOITB"

SSANGYONG RODIUS BERRIA

22.900 €-tik aurrera



MONOBOLUMENA 7 ESERLEKU ETA MALETATEGI IZUGARRIA

MERCEDES-BENZ MOTORRAREKIN 270 XDI 165 ZP



SSANGYONG

VERTIZ MOTOR

Olaso pol. 27 - ELGOIBAR
Tel.: 943 74 41 10

Frantzia pas. 14 - DONOSTIA
Tel.: 943 29 22 66

Sarroeta pas. 13 - MARTUTENE
Tel.: 943 46 92 99



BARATZEA ETA FRUTA-ARBOLA EKOLOGIKOAK Proiektua aurrera ateratzeko Eskoriatzako Ereña auzoan aurkitu du Maria Jesus Revueltak lur-eremu aproposena.

MIRIAN BITERI

NEKAZARITZA > ARTZAINZTA, ABELGORRI ETA BARATZEZAINZTAREKIN LOTURIKO PROIEKTUAK

Bost debagoiendarrek dihardute Gaztenek nekazaritza programan

Arrasate eta Aretxabaletako bina gazte eta Oñatiko bat ari dira proiektuak garatzen

Batzuk aurrera doazen bitartean, beste batzuek zailtasunak dituztela aitortu dute

MIRIAN BITERI > BERGARA

Joan zen astean, Gaztenek-en, Nekazari Gazteentzako Planaren, inguruko iazko datuak aurkeztu zituzten administrazioek. Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak gazteak nekazaritza eta abeltzaintzaren alorrean has daitezzen martxan jarri duen tresna bat da egitasmo hori. Itsasmendikoi da horren koordinazio zerbitzuaz arduratzen den entitatea.

Egitasmo horren helburu nagusia gazteak nekazaritza sartzen eta dagoeneko alor horretan diharduten gazteei aurrera jarraitzen laguntzea da. Horretarako, aholkularitza eta laguntza jaso eta lurrak eskuratu ahal izateko zenbait neurri aurreikusten ditu.

Iaz ehun gazte sartu ziren plan horretan. Horietatik bost debagoiendarrek dira. Oñatiko Aimar Ormazabalek artzaintzarekin loturiko proiektua aurkeztu du. 150 bat ardiz osaturiko

artaldea ipintzeko asmoa azaldu du, Arantzazu aldean. Arrasateko Maria Soledad Torrontegik ere jardunbide bera aukeratu du. 500 metro karratuko pabiloia eraiki gura du Udala auzoan. 200 ardi inguru sartuko lituzke han eta, besteak beste, jezteko areto bat eta gaztandegia jarriko lituzke han.

Gaizka Olabarrieta arrasatearra, bestalde, baratzezaintza ekologikoa bultzatzeaz gain, behiak eta landa-turismo bat ipintzearen alde agertu da.

Aretxabaletako Maria Jesus Revueltak ere baratze ekologikoarekin loturiko egitasmoa du buruan. 4.000 metro karratuko ortua, 2.000 metro karratuko fruta-arbolak eta 120 oilasko loditzea aurreikusten duen proiektua aurkeztu du.

Maria del Carmen Abadek, bestalde, 432 metro karratuko pabiloia bat eraiki nahi du Aretxabaletako Galartza auzoan, 60 bat abelbururendako. Debagoieneko lagun horiek proiektuen egoeraz

hitz egin dute GOIENKARIArekin. Batzuek egitasmoa martxan jartzeko arazoak dituztela onartu dute; beste batzuek, ordea, aurrera jarraitzen dute.

2002. URTEA EZKERO BUELTAKA

Maria Soledad Torrontegik bost urte darama Arrasateko Udala auzoan pabiloia bat egin nahian. Etxe osteko zelaian 500 metro karratuko eraikina aurreikusten duen proiektua aurkeztu du behin baino gehiagotan Gaztenek. 200 ardirendako tokia izateaz gain, jezteko aretoa eta gaztandegia jarriko lituzke hor.

Bidea, hala ere, ez da batere samurra izaten ari. "Oztopoak baino ez ditut topatu orain arte, eta dagoeneko ilusioa galdu dut", azaldu du Udala auzoan bizi den emakume horrek. 2002. urtean lehen egitasmo bat aurkeztu zuen. Gipuzkoako Diputazioak atzera bota zuen, pabiloia bi solairukoa zelako. Hark markatzen zituen baldintzetatik kanpo geratzen zen proiektu hura.

Bi urte geroago, bigarren egitasmoa aurkeztu zuen, planta bakar batekin. Eraikina doan zelaia txikiegia zela-eta, baina, Arrasateko Udalaren ezetza jaso zuen orduan. Proiektua eraiki gura duen zelaia komunala da. Torrontegik azaldu duenez, pabi-

loiaren eta ondoko bidearen artean hiru metro utzi behar dira.

Dagoeneko proiektua martxan jartzeko ilusioa galdu du. "Lotuta gaude alde guztietatik eta askotan dena bertan behera uzteko asmoa izaten dut", aipatu du. Horren harira, erraztasunak eman beharrean, "nekaza-

rieti oztopoak baino ez dizkigute jartzen", salatu du, Torrontegi arrasatearrak.

Maria del Carmen Abadek negozio familiarra du, senar eta koinatuarekin batera. Harategi bat dute Aretxabaletan. Orain arte abere taldea bananduta izan dute. Orain pabiloia bakar batean dena biltzea bururatu zaie. 432 metro karratuko pabiloia eraiki gura dute Galartza auzoan, 60 bat txahalendako loditegia jartzeko.

Proiektua lehenengo urratsetan dago. Gaztenek aurkeztu dute eta egiteko baimenak dituzte, baina, lanekin hasi aurretik, 150 orduko ikastaroak egin behar dituela azaldu du Abadek. Horretarako denbora behar duela gaineratu du, lan egiten du-eta. Proiektua atzeratzen ari dela dio.

UDAZKENERAKO NEGUTEGIAK

Aretxabaletako Maria Jesus Revueltari betidanik gustatu izan zaio baratzea. Lan finkorik ez zuela-eta baratzezaintzaren inguruko informazioa jasotzen hasi zen iaz. Ondoren, ikastaroak egin zituen. Iazko irailtik azarora bitartean, Derion izan zen hiru hilabeteko iraupena zuen ikastaro bat egiten. Egunero ibili zen joan eta etorrian. Ondoren, Gaztenek planaren berri izan zuen

5. orrian jarraitzen du

BOST PROIEKTU

> AIMAR ORMAZABAL

Oñatiko gazte horrek artzaintzarekin loturiko egitasmoa aurkeztu du Gaztenek egitasmo barruan.

> MARIA SOLEDAD TORRONTEGI

500 metro karratuko pabiloia eraiki nahi du, ardiak han sartzeko eta gaztandegia jartzeko.

> MARIA JESUS REVUELTA

Ortu ekologikoa ipini gura du. Oilaskoak loditzea ere aurreikusten du.

> MARIA DEL CARMEN ABAD

Orain duen negozio familiarra bultzatzeko asmoz, behiendako pabiloia egiteko asmoa du.

> GAIZKA OLABARRIETA

Baratze ekologikoa eta behiak jartzeaz gain, landetxea eraikitzea pentsatu du.

4. orritik dator

eta proiektua aurkeztera animatu zen. Baimen guztiak lortu ditu dagoeneko, eta, urri edo azaro aldera, berotegiak eraikitzen hasiko dela uste du. "Apu bat atzeratuta" badabil ere, egitasmoa aurrera ateratzeko ez duela arazorik izan azpimarratu du.

Eskoriatzako Eraña auzoan dagoen lur-eremua erosi berri du. 7.000 metro karratutik gora duen horretan, baratze eta fruta-arbola ekologikoak ipini gura ditu Revueltak. Erdia ortua jartzeko erabiliko du. Beheko partean bi berotegi txiki jarriko ditu eta produktuak kalean hazteko tokia ere utziko du. Denetarik jartzeko asmoa du: tomateak, letxugak, porruak, piperrak eta baita denboraldiko barazkiak ere. Goiko parteko 2.000 bat metro karratuetan fruta-arbolak landatuko ditu. "Kiwiak jarriko ditut, eta agian sagarrondo batzuk ere", dio.

Azoketan ibiliko da produktua saltzen. Horrez gain, herriko dendetan ere sartzen ahaleginduko dela jakinarazi du. Negozioa ondo joanez gero, ondoren oilaskoak loditzen hasiko dela azaldu du. "Oraindik, hala ere, goizegi da. Bestea mugitzen hasi behar dut aurretik", dio. "Ilusio handia dut eta lanean ahalik eta bizkorren hasi gura dut. Badaikit lan asko egin beharko dudala, baina ez du axola", dio. Gaizka Olabarrietak, azkenik, momentu honetan proiektua gel-di duela jakinarazi du.

Lander Arregi > Itsasmendikoiko gerentea

"Arau subsidiarioak oztopo bihurtu dira"

M.B. > BERGARA

Lander Arregi bergararra Itsasmen-dikoiko gerentea da. Gaztenek plana 2004. urtean abian jarri zenetik 257 gaztek parte hartu dutela esan du. Egitasmoaren nondik norakoez hitz egin dugu Arregirekin.

Zer dela-eta Gaztenek plana?

Gazteak nekazaritzan ez zirela sartzen ohartu eta plan zabala sortu genuen eragile ezberdinen artean. Sartzeak dauzkan zailtasunei aurre egitea bilatzen dugu.

Oztopoei aurre egitea kostatzen ari zaie batzuei...

Bai. Zailtasunak izugarriak dira, eta, orain arte oso jende gutxi bertan behera utzi badu ere, batzuek laga egingo dute. Batzuetan, gazteek zailtasunak izaten dituzte ez dutelako ez lurrik eta ez dirurik. Bestetan, arazo tekniko eta administratiboak sortzen dira. Jende asko erretzen da horiek.

Zer egin daiteke azken horien aurrean?

Malgutasunean dago gakoa. Bere garaian, udalek arau subsidiarioetan oso baldintza gogorak jarri zituzten, auzoak eta lan-



Irudian, Lander Arregi.

M.B.

da-eremuak babesteko. Hasiera baten, ideia ona da. Baina, horren gogorak direnez, gazteendako oztopo bihurtu dira, proiektu batzuk baldintzatu dituzte. Hor arazo handia dago.

Proiektu berri batzuek ez dute gizartearen oniritzirik...

Debagoienean ez da halakorik gertatu, baina auzokideak aurka dauden kasuak ezagutuko ditugu. Nekazaritzaren garrantzia jabetu behar du gizarteak. Alor hori mantendu egin behar da.

EGURALDIA > PELLO ZABALAREN IRAGARPENA

Hemendik aurrera giro "atsegina" nagusituko da

Abuztuan zeruak garbi eta tenperatura gozoak izango ditugula aurreratu du; iraila ere antzekoa izango dira

MIRIAN BITERI > BERGARA

Dagoeneko udako hilabete bat pasa da eta apenas ikusi da gurean eguzki izpirik. Hala ere, hemendik aurrera egoerak hobera egingo duela jakinarazi du Pello Zabalak. "Normala da jendea nazkatuta egotea, baina eguraldia aldatzen ari da", azpimarratu du Arantzazukoak.

Santiago egunetik aurrera, joan zen eguaztenetik aurrera alegia, "zeruak garbi" egongo direla eta tenperaturak "gozoak" izango direla esan du. "Egun oso atsegina izango ditugu", aipatu du. Irailean ere antzerako giroa izango dela uste du Zabalak.

Aurten bero askorik ez dugula pasako ere adierazi du. Asteburu honetako tenperatura, esaterako, 25 eta 28 gradu artekoa izango dela aurreikusitako da. Ondoren apur bat jaitsiko dela gaineratu du. 20 eta 25 gradu bitartean geratuko omen dira.

LEHEN ZATIA, "BIHURRIA"

Uda hasi baino lehen eskaini zituen aurreikuspenak bete egin direla gogorarazi du. Orduan eguraldi lainotuta eta freskoa izango genuela esan zuen, eta bete-betean asmatu du.

"Lehen parte oso bihurria eta freskoa izango zela eta bigarrenean, berriz, hobera egingo zuela esan nuen. Hemendik aurrera giro atsegina izango dugula ematen du", azpimarratu du Zabalak. Eta "ea oraindik aurrera portatzen den", gaineratu du.

Luis Mari Agirrek, Bergarako San Joan auzoko baserri-

tarrak, uztailari buruzko zenbait datu eman ditu. Joan zen eguaztena arte hartutakoak dira horiek.

Orain arte izan den batez besteko tenperatura maximoa eta minimoa 25,56 eta 13,96 gradu izan dela jakinarazi du, hurrenez hurren. Iazko hil berean, maximoa 29,41 eta minimoa 17,38 gradukoa izan zela gogorarazi du. "Diferentzia handia dago", esan du Agirrek.

Horrez gain, aurtengo uztailan hartu dituen minimoak "oso hotzak" izan direla dio. "Gau batean bederatzi gradura jaitsi zen termometroa, bostetan 10 eta bitan 11 gradura", zehaztu du. "Oso tenperatu hotzak dira. Iazko uztaila baxuena, esatera, 14 gradukoa izan zen", dio.

Euriari dagokionez, aurtengo hilaren 25a arte, 13 egunean euria egin duela aipatu du. Hala ere, guztira, 13,8 litro metro karratuko baino ez du bota. Iazko uztailan kopurua 43 litro metro karratu izan zen. "Aurtengoa ez da hilabete euritsu izaten ari", azpimarratu du.

Hala ere, urtarriletik ekainera bitartean 1.112 litro jaso dituela gaineratu du San Joan auzokoak. Azken 24 urteetan, urte osoko batez bestekoa 1.452 litro izan dela esan du. "Hortaz, 340 litro bakarrik bota behar ditu sei hilabetean. Lehen sei hilabeteak oso euritsuak izan dira", esan du.

DATUA

13,8

LITRO/METRO KOADROKO

Hilabete lehorra izaten ari da uztaila. Hilaren 25a arte, 13,8 litro metro karratuko jaso dituela jakinarazi du Bergarako San Joan auzoko Luis Mari Agirrek. Iaz, hilabete osoan, 43 litro jaso zituen.

FORU ALDUNDIA > DEPARTAMENTUETAKO ZUZENDARI KARGUEN IZENDAPENAK

Lau debagoiendar Aldundiko departamentuetan zuzendari

Errepide, Ogasun, Kultura eta Kirol departamentuetako zuzendari izendatu ditu Diputatuen Kontseiluak

GOIENKARIA > BERGARA

Diputatuen Kontseiluak izendatu berri dituen departamentuetako zuzendari nagusi izendatu artean lau debagoiendar daude: Luis Mari Apraiz (EAJ), Pedro Mari Ruiz de Azua (EA), Haritz Solupe (EAJ) eta Iñaki Ugarteburu (EA).

Luis Mari Apraiz Errepideetako zuzendari nagusi izendatu dute. Arrasateko EAJko zerrendaburua izan da maiatzeko hauteskundeetan eta gaur egun zinegotzi kargua du Arrasateko Udalean. Izendapen berria pozik hartu duela azaldu du. Haren esanetan, aurrerantzean egin beharko dituen lanek bere jardunarekin harreman zuzena dute; izan ere, bide ingeniaria da.

Bestalde, izendapenak zalan-zalan jarri du Arrasateko zinego-

tzi izaten jarraitu ahaliko duen. Apraizek Goienari esandakoaren arabera, lege aldetik ez dago bateraezintasun arazorik, "baina Diputazioako dedikazio handia" behar duela uste du eta horregatik "Arrasateko Udalean ditudan karguak beste norbaitek hartu beharko lituzkeela" dio. Hala ere, gaineratu du "hori alderdiak erabaki beharko duela".

Beste arrasatear bat, Pedro Mari Ruiz de Azua, Ogasuneko zuzendari izendatu dute (Hazien da). Ruiz de Azuak ere pozik hartu du kargua, "konfiantzazko kargua" delako, eta baita ere *uraknaren begi-puntuan* dagoelako,



Luis Mari Apraiz.

kaleratu diren ustelkeria kasuengatik; Irungo Ogasuneko, esaterako. Hain justu, Apraizen lanetako bat izango da Irungo hazien da kontrolatzea.

Kultura Sustapen eta Hedapeneko zuzendari ere beste arrasatear bat izendatu dute: Haritz Solupe, hain justu ere. 32 urte ditu eta Goi Ingeniaritza eta musika eta tronboi ikasketak ditu.

UGARTEBURU, BIGARRENEZ

Iñaki Ugarteburu elgetarra Kirol zuzendari izendatu dute; hala, errepikatu egingo du karguan. Izan ere, aurreko agintaldian kargu bera izan zuen.



Pedro Mari Ruiz de Azua.

¡Azkar ibili, ihez egiten dute eta!!

100 etik gora ibilgailu

erdiberri
edo **OKM**-koak aukeran

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE

Feel the difference



DEBAGOIENEOAK Ibarrean hiru txakolin ekoizleek legeztatuko dituzte mahastiak; irudian, Juanito Zelaiaren Upain baserrian mahatsa batzen.

GOIENKARIA

Landatzeko eskubideak erosi beharko dituzte ekoizleek, euren mahastiak legeztatu eta Getariako Txakolin jatorri izena lortu ahal izateko

NEKAZARITZA > GETARIAKO TXAKOLINA

Debagoieneko txakolina, Getariako Txakolin jatorri izenean sartzeaz

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE
Gipuzkoako Foru Aldundiak, Getariako Txakolina jatorri izenaren kontseilu arautzaileak eta Atxagi elkarteak adostu zuten Gipuzkoa osora zabaltzea Getariako Txakolina izena. Atxagi elkarteak helburu horixe lortzeko sortu zuten jatorri izenaren barruan ez zeuden Gipuzkoako hemezortzi ekoizleek; tartean,

Debagoieneko hiru ekoizle daude: Oñatiko Juanito Zelaia eta Arrasateko Kataide eta Otxia txakolindegia. Izena zabaltzeko prozesua martxan dago, eta Diputazioak du horren ardura.

MAHASTIAK LEGEZTATZEA

Jatorri izenaren barruan sartzeko, baina, mahastiek legeztatuta egon behar dute. Horrek esan

nahi du landatzeko eskubidea izatea. Horretarako, behartuta daude eskubideok erostera. Europak araututa dauka gai hori; hektarea kopuru jakin batendako landatze eskubideak banatzen ditu herrialde guztien artean. Gero, gure kasuan Espainiak Diputazioari ematen dizkio eskubide horiek, hark ekoizleen artean bana ditzan. Gipuzkoaren

kasuan, dagozkion eskubide guztiak banatuta daudenez, Espainiako hainbat erkidegori erosi behar dizkiote eskubideok. Erosketa horiei esker, Debagoieneko hiru txakolin ekoizleek dauzkaten hamar mahasti hektareak legeztatu ahal izango dituzte, eta, era horretan, Getariako Txakolina jatorri izenaren barruan sartu ahal izango dira udazkenean.

> OSPAKIZUNA Milaka lagunek ospatuko dute Urbian San Inazio eguna

Martitzenean, uztaileak 31, mendizale eta artzainez beteko da Urbia. Izan ere, San Inazio eguna da, eta urteroko festa antolatu dute Arabako eta Gipuzkoako Partzuergoek, Kutzaren laguntzarekin.

Goizean hasiko dira ekitaldiak: 11:30ean, meza nagusia izango da ermitan. Mezan barrena bertsolariek hartuko dute parte, eta, urtero bezala, lore eskaintza egingo diote santuari eta baita inguruko artzain eta mendizaleen alde eskatu ere. 12:30ean, luntxa izango da; txorizo egosia, ogia eta ardoa banatuko dute, eta gero, herri kirolen erakustaldia egongo da. Horrekin batera, egun osoan trikitilariak jardungo dute.

> KANPALDIA Gipuzkoako ezinduek urteroko kanpaldia egingo dute Degurixan

Debagoieneko Behar Zana taldeak antolatzen du eta aurten goa 35. aldia da. Bihar, zapatua, hasi eta astelehenera bitartean izango da kanpaldia eta 23 ezindu eta 20 bat begirale joango dira. Guztiak dira gipuzkoarrak eta Debagoienetik ordezkaritza zabala izango da; hain justu, 25 bat lagun igoko dira Degurixara ezindu eta begirale artean, Arrasatekoak, Eskoriatzakoak, Aretxabaletakoak, Bergarokoak eta Oñatikoak.

Bihar, 10:30ean abiatuko dira Degurixara, Eskoriatzatik eta Oñatitik, 4x4 autoetan. Kanpaldiak iraungo duen denboran jolas egin, abestu eta paseatu egingo dute, besteak beste. Helburua da ondo pasatzea eta gizarteratzea bul-tzatzea.

Diasporako gazteek globalizazioaren eragina aztertu dute Eskoriatzan

Globalizazioari aurre egiteko tokian tokiko irtenbideak aurkitu behar direla ondorioztatu dute euskal diasporako 21 gazteek. Eskoriatza aztertu dute, eta, orain, euren jatorrizko herriekin alderatuko dituzte jasotako datuak. Ibarraundi Fundazioak urriaren kaleratuko ditu ondorio zehatzak. Gazteak eragile bihurtzeko asmoarekin, datorren urtean ere topaketekin jarraitzeko asmoa dute. Irudian, diasporako gazteak Eskoriatzako alkatearekin.



JOSEBA ANTIA

UDALAK > GOBERNUEN OSAKETA

EAE-ANV da nagusi ibarreko udal gobernu gehienetan

Gobernu batzorde guztiak osatu dituzte; EAErekin batera, Zutik, Ezker Batua eta Aralar aurkitzen ditugu kasu gehienetan

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Maiatzaren 27ko hauteskunde ondoan, Debagoieneko udalen osaketaren mapa zeharo aldatu da herririk gehienetan. EAEk lortu zuen alkatetzarik gehien, ibarreko bederatzi herrietatik bostetan. Aralar alderdiak dauka bi alkatetza, EAJ alderdiak bakarria eta Leintz Gatzagaren kasua dugu apartekoa, hantxe Leintz Gatzagako Hautesle Elkar-teak irabazi zituelako hauteskundeak, eta elkarte horretako kideak dira zazpi zinegotziak.

HERRIZ HERRI

Ekainaren 16an hartu zituzten euren karguak udal guztietako zinegotziek eta alkateak aukeratu zituzten. Harrezkero, batzorde informatzaileak osatzea eta gobernu finkatzea izan da udal guztien ardurua.

Arrasaten EAEk eta Ezker Batua/Zutik koalizioak osatu dute gobernu. Gobernu batzordeko kideak izango dira, Ino Galparsoro alkatearekin batera, EAEko lau zinegotzi eta Ezker Batua/Zutik koalizioako hiru.

EAEkoek Aralar eta EA alderdiei ere egin zieten elkarrekin gobernatzeko proposamena, baina ez dute akordioa lortu.

Bergaran Aralar alderdiarekin gobernatuko du EAEk. Alkateak, EAEko hiru zinegotziak eta Aralariko bik osatuko dute gobernu batzordea.

Oñatiren kasuan gauzak ez dira askorik aldatu aurreko agintalditik: EAJ eta EA ditugu gobernuan. Aurreko agintaldian ere bi alderdiok osatu zuten gobernu, koalizioan aurkeztu ziren-eta. Idoiaga alkatea, EAJko hiru zinegotzi eta EAKo bi egongo dira gobernu batzordean.

Aretxabaletan Aralarrek lortu zuen alkatetza, EAE legez kanpo laga zutelako. Oraingoz, Aralarrek eta EAK osatuko dute gobernu. EAeri ere egin diote parte hartzeko gonbita, baina ez dute adostasunik lortu.

GOBERNU BATZORDERIK EZ

Legeak dioenaren arabera, gobernu batzordea osatzea ez da derrigorrezkoa udal guztiendako: 5.000 biztanletik beherako herrietako udalek ez dute horretarako obligaziorik. Aukera, baina, badute. Horrela, egoera horretan zeuden gehienek erabaki dute gobernu batzorderik ez osatzea. Antzuolako kasua bestelakoa da: obligaziorik izan barik, gobernu batzordea osatu duen udal bakarria izan da Antzuolako. Iturbe alkateak, EAEko bi zinegotziak eta Zutik-Ezker Batua-Aralar koalizioak batek osatuko dute.

Eskoriatzan, Aramaion, Elgetan eta Leintz Gatzagan ez dago gobernu batzorderik. Herri horien kasuan, batzorde informatzaileetan landu eta adostuko dituzte gai guztiak eta osoko bilkuretara eramango dituzte, erabakiak hantxe hartzeko.

Udal gobernuen osaketa herriz herri

HERRIA	ALKATEA	UDAL GOBERNUA
Arrasate	Ino Galparsoro (EAE)	EAE/EB-Zutik
Bergara	Agurne Barruso (EAE)	EAE/Aralar
Oñati	Lourdes Idoiaga (EAJ)	EAJ/EA
Aretxabaleta	Inazio Garro (Aralar)	Aralar/EA
Eskoriatza	Pedro Lasagabaster (EAE)	EAE/EAJ/EA/Elizat.*
Antzuola	Pedro Iturbe (EAE)	EAE /Zutik-EB-Aral.
Aramaio	Asier Agirre	EAE
Elgeta	Oxel Erostarbe	Aralar/EAE*
Leintz Gatzaga	Bolatokia	L.G.H.E.

ITURRIA: UDALAK

* GOBERNU BATZORDERIK EZ DUTE OSATU, BAINA, BATZORDE INFORMATZAILEEN ARDURAK BANATU DITUZTE ALDERDI HORIEN ARTEAN

ENPRESAK > FAGOR ARRASATE

Fagor Arrasatek 10 milioi euroko eskaera jaso du Txinako ekoizle baten eskutik

A.I. > ARRASATE

Txinako Shanghai Wanzhong Automotive Components ekoizlearengandik 10 milioi euroko eskaera jaso du Fagor Arrasatek; Arrasateko kooperatibaren lana izango da ebaketa lerro bat eta prentsa lerro bat egitea.

Txinan automobilarako piezen ebaketan lider izaten jarraitzen du Fagor Arrasatek. Txinako Baosteel enpresan ere ebaketa lerro bat instalatu du enpresa arrasatearrak eta beste bat instalatzen dihardute Thyssen enpresak duen lantegi berrian.

SALMENTA HANDIAK

Salmentan datu historikoak lortu zituen iaz Arrasatek; 142 milioi euro saldu zuen, 2005ean baino %20 gehiago. Bestalde, aipatzekoa da Txinako Kunshan gunean lantegia zabalduko duela, eta 2008an hasiko dira lanean.

euskara plazara

DEBAGUNE-REN BULETINA



Aurtengo udalekuetan Bergaran ibili diren umeak.

DEBAGUNE

Mila ume baino gehiago izan dira aurtengo euskarazko udalekuetan

DEBAGUNE > BERGARA

Haurrendako udalekuak izan dira uztailean ibarrean. Guztira, 1.143 ume parte hartu dute Arrasaten, Bergaran, Oñatin eta Aretxabaletan egin direnetan. Irailean Bergarako Jardunek egingo ditu, 40 bat umerendako.

Arrasaten Txatxilipurdik udaleku irekiak eta itxiak antolatatu ditu. Lehenengoak uztailean izan dira goizez eta arratsaldez. Bi ordutegietan parte hartzeko aukera izan dute umeek. 2 eta 10 urte bitarteko 275 haur ibili dira horietan. Udaleku itxiak hil berean izan dira, txanda ezberdinetan banatuta. Guztira, 115 haur bildu dira horietan, 10 eta 16 urte bitartekoak. Gaztetxoendako astebeteko txandak eta nagusienendako, berriz, hamar egunekoak izan dira.

ANTXINTXIKETA UDALOKU IREKIAK

Bergaran Xipizarok udaleku irekiak egin ditu uztailean. 3 eta 12 urte bitarteko 300 ume ibili dira goizetan jolastan, tailerrak egiten eta toki berriak ezagutzen. Jardunek Antxintxika izeneko udalekuak antolatuko ditu irailaren hasierarako. Eskolan hasi aurretik berriz ere euskararekin harremanetan jartzea helburu dute udaleku irekiok. 6 eta 12 urte bitarteko haurrek eman dezakete izena. Aurten, 40 haur inguru bilduko dira azken horietan.

Oñatin, berriz, gaur amaituko dira udaleku irekiak. 230 umetxok parte hartu dute. Hor ere goizean baino ez dira egin. Eguraldiak eragin zuzena izan du ekimenak non egin behar ziren erabakitzean. Aretxabaletan hilaren 20an amaitu ziren. Hain zuzen, 3 eta 15 urte bitarteko 214 ume aritu dira goizez eta arratsaldez.

Txatxilipurdik antolatutako udalekuetan 390 haur izan dira

Bergaran, guztira, 340 ume parte hartu dute, Oñatin 230ek eta Aretxabaletan 214k

Egurraren tratamendua (pipiak, termitak...)

Orain hezetasunaren tratamenduak egiten ditugu

Garbi[®] Ibarluze poligonoa, B -12. pab.
20120 Hernani
Tel.: 943 33 18 37
www.garbicontroldeplagas.es

gure artekoak

CITROEN GRAND C4 PICASSO > Citroen etxearen izarra da monobolumen erako automobil hori; espazio handia eta gidatzeko erosotasuna eskaintzen ditu. Bergarako Ion Autoetako Felix Agirrek eman dizkigu azalpenak.

Felix Agirre > Ion Autoetako saltzailea

"Suspentsio pneumatikoak oztopo guztiak moteltzen ditu"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

"Monobolumena izateko, gidatzeko era edozein turismorena bezalakoa edo erosoagoa dauka; turismo batekin besteko sentazioak dauzka gidariak". Horrelaxe hasi du Felix Agirrek Citroen Grand C4 automobilaren deskribapena.

Horrez gain, aipatzekoa da segurtasun sistema eta neurri guztiak eskaintzen dituela monobolumen horrek.

Citroen C4 Picassoren bi modelo daude aukeran: zazpi plazakoa edo bost plazakoa.



Felix Agirre saltzailea monobolumenaren ondoan.

A.I.

SUSPENSIO PNEUMATIKOA

Citroen etxeak suspentsio sistema berezia du, Mercedes eta BMW etheen automobilerik bakarrik izaten dutena: suspentsio pneumatikoa, hain zuzen ere. "Errepideak dauzkan oztopo guztiak moteltzen ditu; mugimenduak suabeagoak, bigunagoak dira, horrek dakarren erosotasunarekin", azaldu du Agirrek. Gama altueneko bertsiok bakarrik ekartzen dute suspentsio mota hori.

PISUA ERAMATEKO EGOKIA

Beti altuera baten mantentzen da automobila: "Atzeko aldean pisu handia sartuta ere, badauka sistema bat automobila beti altue-

Grand C4 Picasso 2.0 HDI CMP Exclusive


Prezioa	26.000 euro
Luzera	4,59 metro
Zabalera	1,83 metro
Maletategia	1,951 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6,1 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	195 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	12,5 seg.
CO2 isurketak	159 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

ra berean mantentzeko. Gainera, maletategian zerbait kargatu behar dugunean, nahikoa da botoi bat sakatzea eta automobila jaitsi egiten da, zalamanean errazteko", azaldu du Agirrek.

Azkenik, aipatzekoa da martxa aldaketarako eskuzko sistema pilotatua duela. Ez dauka palankarik, ezta enbragerik ere. Bi aukera dauzkagu automobila gidatzeko: bata, era automatikoa jartzea. Beste aukera da pilotatua; kasu horretan, bolantearen ondoan dauzkagun aginte batzuen bitartez aldatzen ditugu martxak.

begi-bistan



Hartz Leze-Txikin (Arrasate) 2007/07/20

Argazkia: Alvaro Arrizabalaga.
Testua: Ainzane Irizar.

Leze-Txikin aurkikuntza benetan garrantzitsua egin dute: hartz baten garezurra aurkitu dute. Orain dela 150.000 bat urtekoa da eta oso-osorik zegoen, argazkian ikus daitekeen moduan.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxo bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

etxeke leihotik



Goiatz Arana > GOITBko erredaktore-burua

Haize berrien bila, bagoaz; irailera arte!

Egetarrak ohiturak aldatu beharrean daude, 62 urtean bi egunetan bakarrik itxi duten harategia, herrian geratzen zen bakarra, betiko itxiko baitute bihar. Autoa dutenak konponduko dira; ez hain erraz halakorik ez dutenak. Gustura hartuko lukete horiek astean behin herrira arraina saltzera joaten den furgoneta bezalako beste bat, okela erosteko aukera emango liekeena.

Furgoneta aipatuta, Angiozarko eskola-umeak etorri zaizkit burura. Gogoan dut nola joan ginen behin eskola txikietako funtzionamendua ezagutzera: kalera atera ziren matematika ikastera, ikasgelan bi eta bi lau direla esan beharrean, farolak kontatzera atera zituen Mito maisuak. Horretan ari zirela, eta furgoneta bat zetorrela ikusita, "kontuz!" esan nien neska-mutikoei, baina haiek ez ziren ikaratu. "Hori arrain saltzailea da!", erantzun zidaten, sano asko. Gustatu zitzaidan.

Arraina edo okela, ez dakit bietako zeinetatik, baina batetik ez bada bestetik egin behar dugu gaur mokadutxo enpresaren kontura. GOITBk Debagoiengan emititzeko lizentzia lortu du, eta ospatu behar dugu hori. Zorionak!

> **Oporretara joan aurretik, jateko nola konponduko naizen pentsatu izan dut maiz, baina ikusi dut ez dela arazo. Gutxien espero den lekuan ere aurkitzen da ondo jateko lekurik. Bai, horixe.**

> **Gaurkoa da, bai, gure (ia gehienon) azken laneguna, eta bagoaz. Barka, baina, hilabeteen, guk ere ez dugu etxeke leihonetatik begiratu gura. Haize berrien bila goaz, irailan berrituta itzultzeko. Ondo pasa!**

izen propioak



Xabier Arantzeta

TXIRRINDULARIA

Espainiako txirrindulari txapelketan parte hartzen dabil txirrindulari antzuolarra atzo ezkerre, eguena, Castellon. Hain zuzen ere, erlojupekoan eta iraupen proban parte hartuko du. Zapatuan, Ordizian, denboraldiko laugarren garaipena lortu zuen.



Kepa Irizar

IGERILARIA

Aurreko astean jokatu zuten Getaria-Zarautz zeharkaldia. Kepa Irizar bergararra izan zen lehen debagoiendarra; 14. sailkatu zen. Bigarrena izan zen Jesus Ruiz oñatiarra. Nesketan lehen debagoiendarra izan zen Ihanire Urteaga (9.) eta bigarrena Ainhoa Guri-di, biak oñatiarrak.



Oscar Candendo

ORGANO JOTZAILEA

Organo kontzertua egingo du Bergarako San Pedro parrokiaren Oscar Candendo antzuolarrak. Donostiako musika hamabostaldiaren barruan sartzen da kontzertu hori, eta Erbiti argitaletxearen, Luis Urteagaren eta Aita Donostiaren piezak eskainiko ditu.

Espainiako gerrako oroitzapenak buruan zein berak idatzitako koadernotan ondo gordeta dauzka Benita Gallastegi. 13 urterekin Frantziara alde egin behar izan zuen, amarekin eta Resu ahizparekin. Oraintsu, omenaldia jaso berri dute Belgikan, gerrako beste umeekin batera, Antonio Etxagibel eta Dominga Galdos Bedoñako senar-emazteak tartean.

Benita Gallastegi > Espainiako gerrako umea

"Gerrak ahaztutakoak gara orduko umeak; itzultzean ez geneukan ezer"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Espainiako gerrako umeetako bat dugu Benita Gallastegi. 1923an Sorauluzen jaioa, dagoeneko 58 urte darama Bergaran bizitzen. Gerra sasoian Frantzia, Valentzia eta Katalunian ibili zen, hara eta hona. Aurten 70 urte bete dira ume errefuxiatuak Europako eta Amerikako hainbat herrialdetan jaso zituztela. Hori dela eta, omenaldia jaso zuten Ganten, Belgikan, uztailaren 10ean. Memoria pribilegiatu baten jabe, gerra sasoiko oroitzapenak kontatu dizkigu Benitak bere etxean, Luna txakurra alboan duela.

Zer-nolako ekitaldia izan zen Belgikakoa?

Ganteko jaien barruan, Trefpunt elkarteak une historiko hura gogoratzeko omenaldia antolatu zuen. Donostian, Amara auzoan egoitza duen *Niños refugiados de la guerra del 37* elkarteko kidea naiz eta 20 bat lagun animatu ginen Belgikara joaten. Zortzi egun eman genituen han, eta ederto pasa dugu: primeran hartu gaituzte, toki politak ikusi ditugu, lagunartean ondo baino hobeto ibili gara... Ibarretxe lehendakaria ere etorri zen omenaldira, eta erabat hunkituta ikusi nuen.

Resu ahizparekin joan nintzen ni eta Lucia Etxabe plazentziarra ere etorri zen. Baita Arrasateko, Bedoñako senar-emazte batzuk: Antonio Etxagibel eta Dominga Galdos. Nahikoa lan izaten genuen hangoekin elkar ulertzeko, Ganten jende guztiak flamenkoz hitz egiten duelako. Bidaia nahiko garestia zen, baina merezi izan du. Eskerrak uztailan zela eta paga doblearekin, tira... [barre]

Nola gogoratzen duzu umetan gerra bizi izana?

Gernikako bonbardaketa eta izan zirenean, Bilbon ginen, aitak hara joateko agindua eman zigulako. Juan Jose Gallastegi zen nire aita, baina ni umea nintzela hil zen eta ondoren gure ama Donostian ezagututako frantses batekin ezkondu zen: Gabriel Seraffinov. Harekin hazi ginen lau anai-arrebok. Trenbidea egitera etorritakoa zen, beste frantses asko bezala. Ama Donostian lanean zebilela ezagutu zuten elkar. Ama hainbat tokitan ibili zen lanean, Donostian: Panaderia Francesa zelakoan, bizikletak alokatzeko denda jarri zuten gurasoek ondoren, jarraian Pension Victorian (amaren izena



Benita Gallastegi Maduran bizi da. 84 urterekin ikasteko grinari eusten dio: "Hil arte ikasi behar dut" esaten du.

E.M.

koloniatan hartu gintuzten. Zazpi bat hilabete emango genituen han. Jende mordoa ginen.

Eta aitarekin eta anaiarekin elkartzetik izan zenuten?

Haien berririk ez genuenez, Frantziatik Valentzia aldera etorri ginen, zona gorrira. Alcala de Chiverten egon ginen, eta, egun baten han paseatzen ginela, kamioi batetik amari: "¿Es usted de la librería de Gros? Su marido está herido en Barcelona". Anaiaren berri ez zekitela. Hala ere, ezin izan genuen Bartzelonara joan, Terueleko frontean errepidea moztuta zegoelako. Handik gutxira, gorriek Teruel berreskuratzean, elkartu ginen aitarekin Bartzelonan. Ondoren, sendatutakoan, indententzia buru bidali zuten Valentziara eta kamioi baten zebilela bonba eztanda baten ondorioz hil zen, 1938ko udan. Ordurako, anaia ere Asturiasko frontean hila zen. Aitak aurkitu omen zuen han. Eta beste ahizpari dagokionez, gerra denboran Bilbora ezkondu zen eta Frantzia eta Bartzelonan ibili zen. Hain zuzen ere, Bartzelonako Hospital de Euzkadin (gaurko Hospital Frances) izan zuen lehen semea, 1938ko apirilean. Gure ahizpa zaharrena, Mercedes, joan zen urteko abuztuan hil zen, 89 urterekin.

Frantziara itzuli behar izan zenuten zuek...

Beste urtebete eman genuen Britainian. Frantziara pasa aurretik gorriak ikusi genituen helmugan. Negua zen eta sekulako hotza jasan genuen Figueresen. Britainian, Poulgoazecen bizi ginen. Eta ondo, II. Mundu Gerrara arte. Espainiako errefuxiatuen kontzentrazio eremu batera eraman gintuzten alemanek, Douarnenezera, pentsatu zelako baldintzatan... Handik, zorionez, Espainiara bidali gintuzten eta 1940an itzuli ginen Euskal Herrira.

Gerrak ahaztutakoak zarete la diote historialariek.

Hala da, bai. Irungo trenbidea iritsi, eta asko sufritu genuen. Kontrolak gainditzea ere ez zen erraza gertatu. Ahaztu egin ziren gurekin erabat; itzultzean ez geneukan ezer. Donostiako liburudenda galdu genuen, dena kendu ziguten. Orain dela hamar urte hasi nintzen gerrako kontuak idazten, baina negarra etortzen zait urte haiek gogoratzean.

ESPAINIAKO GERRA

"Guretako jolas modukoa izan zen gerra hastea; ez ginen arriskuaz kontziente"

hori zen-eta) Colon pasealekuan eta azkenean liburu dendan, Grosen bertan, Miracruz kalean.

Guretako jolas modukoa izan zen gerraren hasiera. Donostian etxe batetik bestera jendea tiroka zebilela ikusi zitekeen eta guretako ikusgarria zen hori, ez ginen arriskuaz kontziente.

ARRISKUAN

"Aita Errusian jaiotakoa zenez, susmagarria zen Francoren armadarentzat, gorritzat zeukaten"

Azkenean, Euskal Herriatik alde egin behar izan genuen, egoera jasanezina zelako: iskanbilak hasitakoan anaiak gerrara alde egin zuen eta aita ere gerran ibili zen. Errusian jaiotakoa zenez, susmagarria zen Francoren armadarendako, gorritzat zeukaten. Frantziara amarekin joan

GERRAKO UMEAK

"Clermont Ferranden eta Britainian ondo moldatu ginen, II. Mundu Gerra etorri arte"

ginen Resu eta biok. Santurtzitik atera ginen, Habana itsasontzian, La Rochellera. Ingeles flotak babestu gintuen, Cervera eta Velasco barku frankistei aurre eginez. La Rochelletik Frantzia erdialdera eraman gintuzten, Clermont Ferrandera. Michelin fabrika dago han, eta bertako



zabalik

Rufina Olasagasti

Emakumeen eskulanak

Arrasateko 32 emakumek Kulturaten jarritako eskulan eta orratz lanen erakusketa bukatu zen ekainaren 22an. EKIN Emakumeak Elkartek antolatutako ikastaroetan egindako lanak jarri ziren bertan eta 313 ikusle bertaratu ziren, emakumeak gehienak, zabalik egon zen sei arratsaldetan. Kopuru handia, kontuan hartuz 3. solairuan izan zela, igogailua izateak laguntzen badu ere.

Gustura ibili ziren erakusketan euren lanak jarri zituzten emakumeak eta ikusleek ere goraiatu zituzten lanak, batez ere egitea zenbat kostatzen den dakitenek. Bazen ikuslerik ezagun batek "Zoaz hara, merezi du eta" esan eta ikustera etorri zenik. Eta aurrerago ere guztiek izango dute aukera ikusi, ikasi eta parte hartzeko EKINek ematen dituen ikastaroetan.

Eskulan eta orratz lan hauek gain, beste egoera askotan ere azaltzen da emakumeen abilezia mugimendu finak eskatzen dituzten aktibitateetan: igandeko *Berria* egunkarian ikusi dugu arrantzarako sareak egiten dituzten emakumeek lortu dutela euren lanaren errekonozimendua, eta baita laneko baldintzak hobetzea ere. Emakumeak dira sareak konpontzen dituztenak, eta baita berriak egin ere, behar denean. Gizon bakan batzuek konpontzen omen dituzte alturako arrantza egiteko sareak, ez ordea hesi-sareak, diotenez atzamarrak lodiak dituztelako.

Benetako arrazoa den edo aitzakia den esatea ez da erraza, baina egia da emakumeak gizonak baino hobeto moldatzen direla hainbat lanetan, Arrasaten bertan elektronikako piezak muntatzen edo eta sarrailgintzako piezen kasuan ikusten dugun bezala. Jakitekoa da horrela gertatzea berezkoa den edo umetatik batzuk eta bestek egin dituzten jolas eta bizipenak bideratu duten trebezia hori.

"Egia da emakumeak gizonak baino hobeto moldatzen direla hainbat lanetan"

"Jakitekoa da horrela gertatzea berezkoa den, edo umetatik bideratu den trebezia hori"

Goienkaria

Argiraratzalea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) Erredakzioa Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Mirian Biteri Oinarritzko diseinua Goio Arana Maketazioa Alex Azkarate, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaeta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.155 ale • Difusioa: 18.629 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

herritarrak galdezka

EKIPAJEA GALDU EGIN DUT
Opor sasoian gaude eta hegazkina da pertsona askok bidaiatzeko erabiliko duten garraio mota. Hori horrela, ekipajea galtzea urteko beste sasoi batzuetan baino maizago gertatzen da. Hori dela eta, irakurle batek jakin nahi izan du zer egin dezakeen hori gertatuz gero.

Ekipajearen garraioa bidaiaren txartelaren prezioaren barruan dago. Lehen klasean edo lehen-tasunezkoan, 30 kilorainoko ekipajea eraman daiteke, eta turista klasean, berriz, 20rainokoa. Dena den, eta hegazkinean leku arazorik ez badago, ekipaje gehiago ere eraman daiteke, baina aldea ordainduta.

Ekipajea galduz gero, edo ematean atzerapena egonez gero, kalte-ordainak zehaztuta daude. Kasu horietan, hegazkin-konpainari idatziz jakinarazi behar zaio erreklamazioa bidaiaren helmugan, eta, ahal izanez gero, uanean bertan.

Hegaldi nazionalen dagokienez, fakturatutako ekipajea hondatzen edo ematea atzeratzen baldin bada, ekipajea eman digutenetik edo eman behar zigute-

netik hamar eguneko epean aurkeztu beharko da erreklamazioa.

Kaltea gertatu zenetik sei hilabete igaro eta erreklamaziorik jarri ez badugu, dagozkigun esku-bideak galduko ditugu.

Nazioarteko hegaldien kasuan, ekipajearen kalteak izaten baditugu, horretaz konturatu bezain laster jarri beharko dugu kexua, eta, kasu guztietan, ekipajea hartu genuenetik zazpi egu-

neko epean. Ekipajea behar baino beranduago ematen badigute, emateko datatik kontatzen hasita 21 eguneko epean erreklamatu behar da.

Ekipajea agertuko ez balitz 21 eguneko epean, galdutzat joko litzateke eta kalte-ordaina eskatu beharko genuke.

LEINTZ IBARREKO
HISTORIAREN GAINEKO LIBURUA
Leintz ibarreko historia 1260tik 1630eraizenero liburua non eskuradatekeen jakin nahi izan du Aretxabaletako irakurle batek.

Rosa Aierbe historialariak ikeru eta batu du Leintz ibarreko historia liburu baten. Aurreko astean inprimategian zegoen, baina irailera arte ez dute kaleratuko. Horixe da Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalen asmoa: iraillean kaleratzea eta salgai jaretzea, hain zuzen ere.

Rosa Aierbe ibarreko, Simancako eta Madrilgo artxiboetan murgilduta ibili da lana osatzeko. 1260. urtean abiatzen da liburua, hain justu, Arrasate Leintz ibarreko egitura politiko-ekonomikotik banandu zen urtean. 300 bat orri izango ditu.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

marrakiz

Alex Ugalde



blog-top

Terapia

Anjel Lertxundi

www.berria.info/blogak/lertxundi/

Espainol bati inoiz bururatu ez litzaiokeen esaldi bat idatzi zuen Gombrowicz-ek Czeslaw Milosz-i egindako gutun batean: "Hemendik ehun urtera, artean gure hizkuntza existitzen bada...". Kunderaren azkeneko liburutik hartutakoa da polonierari buruzkoa aipua (*El telón*, Tusquets) eta Orixeren "geroak esan beza izkuntza bat izan zan" hura gogorarazten du.

Poloniera baino hizkuntza agoniatsuago bateko hiztunak gara. Horrek hiztun agoniatsu bihurtu behar gaitu? Ez, derrigorrez. Hiztun batzuek jardun agoniatsuagoa erakusten dute beste batzuek baino, norberak diseinatzen ditu-eta paranoia linguistikoen dibanetik libratzeko estrategiak. Nago, gainera, jardun estresatu ia paranoiko baten agonismo gehiegiak kalte handia dakarkiola gure hiztun psikologiari. Nola nahi ere: hizkuntzaren etorkizunak guztiok kezkatzen baikaitu, on genuke kezka horren alde onen eta txarren kontzientzia garatzea.

Horizontalera

Markos Zapiain

www.eibar.org/blogak/zapiain

Mundu osoan aldibere-kotasun horizontala nagusitzen ari zaio arbasoengandik datorkigun lerro bertikalari. Euskal nerabe batek hurbilago du Minnesotako edozein nerabe, aitite eta amuma baino: denek dakite gutxi gorabehera ingelesez, txikitandik ikusi dute The Simpsons eta Shin Chan... (...) Mugikorraren eta Interneten erabiltzeak garunen mutazioa ekartzen ari da.

Denok kabitzen gara

Justina Elexpuru Arregi

(Aranzadi ikastolako guraso ohia eta irakaslea)
Bergara

Ni oso ados nago Administrazioak sortutako eskola publikoak potentziatu beharrekin, baina herriak herriarentzat sorturikoa nork potentziatu behar ote du?

Bergarako ikastetxeak gainezka? Ez dut uste horrela denik eta saiatuko naiz ahalik eta argien azaltzen.

Derrigorrezko Hezkuntza ematen dutenak hiru ikastetxe dira gure herrian: Mariaren Lagundia —erlijiosoa—, Publikoa —Administrazioak sortua— eta Ikastola —euskal-tzaletasunetik sortutako Herri Eskola—. Hirurek erantzuten diete gure herri plural honen beharrei eta duintasunez erantzuten saiatzen dira beren bezeroei. Hau da, konpetentziak bultzatzen ditu kalitatezko hezkuntza bat ematera, besteak beste. Hori aberasgarria ikusten dut Bergarako herriarentzat.

Baina aspalditxo pentsatzen hasia nago hainbat guraso gazte eta progreri ahoa urtu egiten zaiela horrelako esaldiak esaterakoan: "Ni eskola publikoaren alde nago... Eskola publikoak potentziatu behar du Administrazioak"... Eta horren aurrean ikastolako hainbat guraso gazte eta progrer, baita

ere, kikilduta gelditu daitezke zer erantzun jakin gabe, beren haurrak ikastetxe pribatu batean dituztelakoan..., Colegio Alemanaren erakoan edo ikastetxe *retro* edo atzerakoi batean edo... Guraso zaharragoak, berriz, oso ondo dakigu ikastolaren historiaren berri eta berari *pribatu* izena ezartzeak edo aurpegiratzeak ez digula aldatu ezta aldatuko ere gure izana.

Ni oso ados nago Administrazioak sortutako eskola publikoak potentziatu beharrekin, baina herriak herriarentzat sorturikoa, hau da, ikastola, nork potentziatu behar ote du? Orain arte bezala guraso eta irakasleen gain jarraitu beharko du. Aurtengo urte guztia pasatu beharko dugu zenbait herritarren laguntza estimagarria baliatuz, herriz herri arropak saltzen, tabernak ipintzen, eta kristoren plangintzak prestatzen, azkenean kilometroen egun handia euriak zapuzteko, beldurrez eta pozez.

Gainera, guraso berri horiek esaten dute, kasurik onenean, umea ikastetxean sartzeko unean: "Gainera, zein diferentzia dago ba, gaur egun, batean edo bestean?" Ba, bai, jauna, besteak beste, bat galanta. Eskola publikoak bezalaxe ikastolak erabiltzen dituen eraikinak ere, publikoak izan arren, herrikuntzak, konponketak, garbiketak, mantenu orokorrak, obrak, mobiliarioa eta gainontzeko guztia gurasoen esfortzutik

ateratzen ditugu. Eta nik uste dut Administrazioak eta Udalak ez diola eman ikastolari dagokion babesa eta laguntza.

Ez nuke eskatuko eskola publikoari ematen diona baino gehiago, baina ezta gutxiago ere. Zergatik? Hasteko, Ikastola Eskola Publikoa bezain publikoa delako. Eta beti, nire ustez, oraingo Euskal Eskola Publiko baten oinarriak, apaltasun osoz, aspaldi berak jarri zituelako eta espiritu berberarekin jarraitzen duelako. Publikoko gurasoek bezalaxe zergak ordaintzen ditugulako. Ikastolak sortutako Euskal Irakaskuntza Eredua Euskal Herri osora hedatuz gero, irakaskuntza ororen mesederako izan delako.

Eta Aranzadi ikastola pribatu-kontzertatuaren ezaugarri agirikoak zeintzuk dira? Patrimonia: 0 (eraikuntza publikoetan gaude, obrak eta mantenua gure gain); irabazi asmoa: 0 (borondatez gehi legez); kontzertazioa: gelako irakaslea ordaindua (gainerako zerbitzuak gurasoen gain); prezioak: herrikoiak.

Hau horrela ikusita nik beti galdetu izan diot neure buruari. Non dago, ba, gakoa?

Kontzeptuan, soilik kontzeptuan. Administrazioak horrela egin ditu bereizketak, publiko-pribatuan banatu izan ditu. Baina guk, herritarrok, nola ikusten dugu? Pribatu mota bakarra al dago? Publiko mota bakarra al dago eta egon behar ote du?

Denon arteko iritzi trukaketa eta bakoitzaren errealitatea hobeto ezagutzeak eraman gaitzake elkar ulertzerantz, errespetatzerantz eta Bergarako herriak merezi duen eta jasotzen ari den kalitatezko hezkuntza gartzera.

Osoko bilkuraz

Edurne Alberdi (Elgetako EAE-ANV) Elgeta

Uztailaren 19an, ostegunean, Elgetako udalean egin zen Udaleko osoko bilkura dela-eta hainbat adierazpen egin nahi ditugu Elgetako EAE-ANVtik.

Ezer baino lehen, argi utzi nahi ditugu ondorengo datuak, egungo egoeran zerikusi zuzena baitute:

- Maiatzeko hauteskunde ondoan Elgetako Aralar-Independenteen eta Elgetako EAE-ANVren artean egindako hainbat bileraren ostean, bi alderdiek Udala osatzeko gobernu akordio bat sinatu zuten. Non argi eta garbi azaltzen den erabaki guztiak batzordeetan aztertuko direla. Hau da, osoko bilkuran gaiak batzordeetan adostu eta onartuta eroango direla, bertan onartzeko.

- Besteak beste, aurreko agintaldian egindako akats politiko bat aztertzeko deitu zen osoko bilkura: Uruburuko transformadorea. Agintaldi horretan, EAE-ANV ez zegoen

Udalean. Beraz, gai honen gainean ez du inongo erantzukizunik.

- Urgentziaz gai hau lantzeko egindako Hirigintza batzordean Aralarrek transformadorearen leku aldaketaren kostua jakin eta osoko bilkuraren aurretik beste alderdiokin batzeko konpromisoa hartu zuen.

- Kontuak honela, osoko bilkurara Aralarrek eroan zuen proposamena taldean aztertze-ko betarik ez ziguten eman.

Honakoa zioen proposamenak: transformadorea lekuz aldatuko bada, alderdi politikoei eta zinegotziei dagokien diru sariaz ordainduko da aldaketaren kostua. Honen aurrean, gure eskaria proposamen hau bi zatitan bozkatzera izan zen. Transformadorearen leku aldaketa batetik, eta kostuen finantziazioa bestetik. Urgentziazko erabakia auzi honetan transformadorearen leku aldaketa baitzen. Eta kostuen finantziazioa berriz Hazienda batzordean landu eta adostu beharreko gaia baita. Aralarren oposizioa medio, ez genuen bi auziok banatuta bozkatzeko aukerarik izan eta, ondorioz, eta gure nahien aurka auzia bat eginda bozkatu behar izan genuen: leku aldaketa bai eta kostuak aurrekontuetatik.

Argi utzi nahi dugu guk momentu batean ere ez genuela Aralarren proposamena ukatu, gobernu akordioan adostu bezala Hazienda batzordean aztertzeko eskaria besterik ez genuen egin.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Karaoke Ikuskizuna Urritik aurrera Debagoiengan!

Debagoiengan bizi bazara, 1995 eta 1999. urteen artean jaio bazinen eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, eman izena zure eskolan, Goienako egoitzetan edo ondorengo blogean: www.goiena.net/blogak/kantari

- Taldea gehienez lau lagunek osatuko dute.
- Izenematea eskoletan: ekainaren 20a baino lehen.
- Izenematea Goienako egoitzetan edo blogean: ekainaren 27a baino lehen.
- Ikuskizunak Debagoieneko aretoetan izango dira.
- Parte-hartzaileak uda aurretik aukeratu dira, eta uda ostean hasiko dira entseguak.
- Emanaldi guztiak GOITBn emango dira, Debagoieneko Telebistan.

Neska-mutikook:
aprobetxatu uda
zuen kantua ikasteko!
Uda ostean
hasiko dira entseguak!
Ondo pasa oporretan!




gaztetxoek
elkartea
club juvenil

ANTOLATZAILEA

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

Debagoieneko GREMIOAK



AROTZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
 • Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
 • K-21
 Telleria 19 B02-B03
 T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
 www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
 • Telebista, audio eta bideoa
 Salmenta eta konponketa
 • Instalazio elektrikoak
 • Atezain automatikoak
 • Antena kolektiboak
 Otorla 14
 T: 943 79 16 10
 F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
 • Instalazio elektrikoak
 • Antena kolektiboak
 Zerkaosteta 15
 T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
 F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
 • Instalazio elektrikoak
 Belorrieta 15 behea
 T: 943 532 628 / 645 734 032
 F: 943 532 629
 aretxargi@euskalnet.net

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
 Meatzerreka auzoa
 T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
 e. arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
 • Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
 • Kontratak
 • Enpresen mantentze-lanak
 Intxartxueta 5
 T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
 F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
 • Barruko lanetan espezialitatea
 • Berrikuntza-obra orokorrean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
 Intxartxueta 7, 2D
 T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
 Dela-torre@euskalnet.net

G. IZCUE IRURZUN

Arrasate
 • Igeltserotza orokorra
 • Etxeen berrikuntza
 • Sukaldeak, komunak...
 Munar 6
 T: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

ITURGINTZA

ARETXABAETA ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Sukalderako eta bainugelarako altzariak
 Santa Kurtz 24, behea
 T: 943 79 17 53
 F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
 Gipuzkoa etorbidea 39, behea
 T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
 • Iturgintza
 • Berogailua eta gasa
 • Bainugelak
 Kale Txiki 9 behea
 Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

J.J. IRURE ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Ura
 • Gasa
 • Kalefakzioa
 Mitarte 15
 T: 943 793 187
 F: 943 793 187

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
 • Iturgintza eta gasa
 • Berogailuak eta petrolio-produktuak
 • Klimatizazioa
 Aranburuzabala 15
 T: 943 71 47 14 / 606 007 369
 f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
 • Berogailua eta gasa
 • Galdarak aldatzea
 • Obra integralak
 • Zaharberritzeak
 Bolibar doktorea 5, behea C
 Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
 F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
 • Instalazioen mantentze-lan guztiak
 • Berokuntza eta gasa
 • Aire girotua eta haizeztatzea
 Basabe industrialdea B-3
 T: 943 77 19 88
 F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
 • Hargintza lanak
 • Bainugelako altzariak
 • Berogailuak
 • Erretenak ipini eta garbitzea
 Santa Kurtz 7, 3. ezk.
 Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC
 Arrasate
 • PVC leihoak
 • Aluminio termikoko leihoak
 • Poliuretanozko leihoak
 Zigarrola 1- 8 pab.
 Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
 F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
 • Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
 Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
 T: 943 79 11 35
 F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
 • Leiho eta ate isolatzaileak
 • PVC leihoak
 • Aluminio termikoko leihoak
 • Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
 Kataide poligonoa 4 Pab.
 Tel: 943 77 01 57
 F: 943 77 03 21

LEIHATEK

Arrasate
 • Leiho eta ate isolatzaileak
 • Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
 • Kontraleiho erustikoak eta mallorkinak
 • Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
 Okendo 1 - behea
 T: 943 79 69 91
 ventanasleihatek@hotmail.com

LOREZAINZTA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
 • Barruko zein kanpoko lorezaintza
 • Ureztatze sistemak
 • Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
 Basabe poligonoa D-2-1
 Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
 F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
 • Pintura orokorrean
 • Pareztatzeak
 • Errotulazioa
 Maitena 3-1.
 Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

DAVILA MARGOAK

Aretxabaleta
 • Margoak orokorrean
 San Migel 7, 3d.
 Tel.: 646 22 41 09

Herriak

Arrasate > 16-18 Bergara > 20-22 Aretxabaleta > 24-25 Oñati > 26
Eskoriatza > 27 Antzuola > 28 Elgeta > 29 Aramaio > 30 Leintz Gatzaga > 31



> **ARRASATE**
Udaleko Gazte Sailaren ikastaroek jarraipena izango dute urrian > 17



> **BERGARA**
Lur azpiko edukiontzia jarri dituzte Komenio kalean > 21



> **ARETXABALETA**
Andramaixetako egitaraua gertu; ikuskizun dotoreak jaietan > 24



> **ARAMAIO**
AHTren kontrako kanpaldia egingo dute gaurtik abuztuaren 5era > 30

BERGARA > IRALAREN JAIOTZAREN 500. URTEURRENA

Domingo de Irala bergarar ospetsua gogora ekarri dute Paraguain

IRALA

Paraguaiko sortzailatzat daukate bergarar ospetsua

URTEURRENA

Iralaren jaiotzaren 500. urteurreneko ekitaldiak Paraguain

LIBURUA

Iralaren gaineko liburua aurkeztu du Elkoroberezibar bergararrak

EDU MENDIBIL > BERGARA

Domingo de Iralak sortutako herrialdean, Paraguain, egon berri da Miguel Angel Elkoroberezibar bergararra. *Domingo de Irala y su entorno en la villa de Bergara* liburua aurkeztu du hango hiriburuan, Asuncionen.

Domingo de Irala bergarar ospetsuaren jaiotze urtea ez dago guztiz argi: 1506 eta 1509. urte artean jaio zen Bergaran eta Asuncionen hil zen 1556. urtean. Bien bitartean, Pedro de Mendozaren armadan joan zen Amerikara eta Rio de la Platako lehen gobernadorea izan zen. Buenos Aires hiriararen sorreran hartu zuen parte eta Paraguaiko sortzailatzat jotzen dute.

Iralaren jaiotzaren 500. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien barruan, Paraguaiko Historia Akademiak gonbidatuta izan dira han Ramon Irala bilbotarra (Domingo de Iralaren gaineko espezialista nagusietako bat) eta Elkoroberezibar ikerlari bergararra. 2004an hango ordezkaritza bat izan zen Euskal Herrian, eta bisita haren ordaina izan da Paraguaia egin berri dutena.

Ramon Iralak *Vida y obra de Domingo de Irala* lana aurkeztu zuen Asuncionen, Historia Akademiaren egoitzan, eta Elkorobe-



PARAGUAIN Ezkerrean, Evanhy de Gallegos Asunciongo alkatearekin. Eskuinean, Irala kalean, Ramon Iralarekin eta Pedro Gamarrarekin, Euskal Etxeko presidenteordearekin. M.A.E

rezibarren lanak Amerikara joan aurreko urteak ditu oinarri: XVI. mende hasieran Iralak ezagututako herriaren eta konkistatzailearen jatorriaren berri ematen du egileak. Bi liburuen nondik norakoak azaltzeko hitzaldia egin zuten hurrengo egunean, Manuel de Falla auditorioan.

Liburua aurkeztu aurreko egunean, ekainaren 27an, Evanhy de Gallegos Asunciongo alkateak *bisitari ospetsu* izendatu zuen Elkoroberezibar. Asuncion eta Bergararen arteko elkar-tze edo senidetze sinboliko modukoa izan zen, Iralaren jaioterra omenduz. Bergarako Hiribildua-



ren kopia eta beste hainbat opari eraman zituen Elkoroberezibarrek.

IRALA PARAGUAIN, GAUR

Iralarekiko duten ikuspegiak Elkoroberezibarrek hauxe dio: "Txikitatik jasotzen dute eskolan haren bizitzaren berri. Mestizajearen

aita kontsideratzen dute. Beste konkistatzaileek ez bezala, bertako hizkuntzaren erabilpena sustatu zuen eta horregatik iraun du guaraniak gaur arte Paraguain; gaztelaniak baino hiztun gehiago ditu. Ez da horrelakorik inon gertatu Hego Amerikan. Hori baloratzen dute bereziki han".

Urte mordoia Paraguain eman duten Oñatiko frantziskotarrei bisita

Paraguaira egindako bidaian, hainbat euskaldunekin egoteko aukera izan zuen Miguel Angel Elkoroberezibarrek. Esaterako, Asunciongo komentuan diren oñatiar frantziskotarrekin elkartu zen ekainaren bukaeran. Eskumako argazkian agertzen direnak, ezkerretik eskumara, hauek dituzte: Iñaki Biain (Oñatiko Triana auzokoa, 1976. urtean Paraguaia joandakoa), Jose Luis Salas (mutikotan Eibarrera bizitzera joandakoa eta ia 50 urte daramana Paraguain), Jesus Lasa (Matxinbentako Izuola baserrikoa) eta Elkoroberezibar. Jose Luis Salas Paraguaiko Historia Akademikako idazkari ohia da eta sasoi batean Amerikako lehen irratik katolikoko zuzendaria izan zen. Hainbat historia libururen egilea da Salas. Argazkian Urtiagaingo Miguel Aranburu falta da: 1932an jaioa, 24 urte darama Paraguain. Aurretik Argentinan ibilitakoa da Aranburu.



Iñaki Biain, Jose Luis Salas eta Jesus Lasa frantziskotarrak, Elkorobezibarrekin. M.A.E

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 28	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 29	Ruiz	Magdalena, 31	943 79 14 09
Astelehena, 30	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Martitzena, 31	Irizar	Erguin, 15	943 79 12 39
Eguaztena, 1	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Eguena, 2	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30
Egubakoitza, 3	Azkoaga	Ferreries 1	943 79 15 15

BERGARA

Zapatua, 28	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 29	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 30	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 31	Urritikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Eguaztena, 1	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 2	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitza, 3	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 28	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Domeka, 29	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Astelehena, 30	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehena, 31	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 1	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguena, 2	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitza, 3	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22

ARETXABALETA

Zapatua, 28	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Domeka, 29	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Astelehena, 30	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Martitzena, 31	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Eguaztena, 1	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Eguena, 2	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43
Egubakoitza, 3	Iturralde	Belorrieta auzoa	943 08 11 43

TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))
SOS DEIAK**

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udalzaingoak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Urribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Urribarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorenzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorenzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	09:15
	11:15	10:30
	13:10	11:30
	13:45	14:10
	16:20	17:00
	17:00	17:50
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetako-koendako. Bezerperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 28

Udako giro jatorra izango dugu egunotan. Goiz partean laino gutxi batzuk azalduko badira ere, iraupen gutxikoak izango dira. Giro eguzkitsua.




Domeka, 29

Temperaturak zertxobait gora egingo du, eta aurreko egunetan bezala eguzkia izango da nagusi. Giro ederra egun guztian zehar.

EUSKAL HERRIAN

Aurreko egunen ildotik, eguzkia nagusituko da datozen egunotan. San Inazio egunera arte behinik behin, giro berdintsua izango dugu. Laino gutxiren batzuk azalduko dira, baina iraupen gutxikoak izango dira. Edozein modutan, temperaturak ez dira altuegiak izango.



oharrak eta deialdiak

BERGARA

> Igeri Elkarteko zozketa-zenbaki saritua

Uztailaren 13an egindako zozketaren zenbaki saritua da 1.870. Irabazlea da Irati Egueren Baltzategi. Argibiderik nahi izanez gero deitu: 688 61 36 03 eta 943 76 00 04.

BERGARA

> San Kristobal jaietako zenbaki saritua

Zenbaki saritua da 3.627 eta Jesus Merino Agirre da irabazlea.

BERGARA

> Bi odol ateratze egingo dituzte abuztuaren

Abuztuaren 1ean eta 22an egingo dituzte ateratzeak, Seminarioko eraikinean duten lokalean, 18:00etatik 20:30era.

BERGARA

> 1944an jaiotekoek Errioxara irteera egingo dute

Irailaren 29an egingo dute irteera. 09:00etan abiatuko da autobusa, Fraisko zuritik; 10:30ean, hamarretakoa egingo dute upeleategian; 12:45ean, Vivanco museoa ikusiko dute; eta 15:00etan, bazkaldu. Izena emateko azken eguna da irailaren 17a. Horretarako, deitu M. Luisa Murua-mendiarrak (943 76 30 88) edo Bodegon Hernandezera (943 76 20 43).

LEINTZ GATZAGA

> Bigarren hiruhilabeteko ura eta estolderia ordaintzeko epeazabalik

BERGARA

> Mus txapelketa Txamoni eta Bolu tabernetan

Zapatuan, uztailak 28, izango da txapelketa, 16:00etan. Izenematea 20 euro da bikote bakoitzeko.

BERGARA

> Agorrosin monitoreak behar dituzte

Irailetik aurrera, pilates, areto bizikleta, tonifikazio eta halako kirol ekintzetarako monitoreak behar dituzte; baita uretako begirale eta sorosleak ere. Interesatuak lan eskaintza utz dezakete Agorrosin ekintzazuztuan.

DEBAGOIENA

> Kontseiluaren Euskal Tonbola ibarreko zazpi herritan eta 106 tabernatan jarri dute

Euro baten truke eskura daitezke txartelak, eta saria tabernan bertan jaso ahalko da. Askotariko sariak daude, batzuk oso tentagarriak, hala nola autoak, autojiro hegaldiak, home cinemak eta telebistak. Euskal Tonbola Kontseiluak abiarazitako ekimena da. Aurten hirugarren aldia du.

943 25 05 01

goienkaria@goiena.com

TENPERATURAK

MINIMOA
Domeka, 22 **10 °C**MAXIMOA
Domeka, 22 **31 °C**ASTEKO
EURIA (l/m²) **4,5L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 18	20 °C	17 °C	0,9 l/m ²
Eguena, 19	24 °C	16 °C	0,8 l/m ²
Egubakoitza, 20	22 °C	15 °C	- l/m ²
Zapatua, 21	23 °C	11 °C	- l/m ²
Domeka, 22	31 °C	10 °C	0,2 l/m ²
Astelehena, 23	26 °C	18 °C	2,6 l/m ²
Martitzena, 24	24 °C	15 °C	- l/m ²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA UZTAILEAN

Ilbehera 7	Ilberri 14	Ilgora 22	Ilbete 30

OÑATI

> Danborrada nagusira-ko dantzariak eta danborrariak behar dituzte

Dantzariak 1990. urtean jaiotakoak izan behar dute eta danborrari izateko, berriz, nahikoa da 18 urte baino gehiago izatea. Kultura etxean edo gaztelekuko informazio puntuan eman daiteke izena. Azken eguna da abuztuaren 31. Izena eman dutenen artean zozketa egingo dute irailaren 3an.

BERGARA

> EGA ikastaro trinkoa egingo dute Udal Euskaltegian

Irailaren 3tik irailaren 5era emango dute EGA ikastaro trinkoa, arratsaldez -ikasleen beharren arabera zehaztuko dute ordua-. Izena emateko deitu 943 76 44 53 telefono zenbakira irailaren 3an eta 4an.

BERGARA

> Jardun euskara elkar-tek begirale lan-poltsa osatu nahi du

2007/08 ikasturterako begirale lan-poltsa osatu nahi du. Beharrezkoa da euskaraz ondo jakitea. Baloratu dute ikasketak izatea, esperientziaduna izatea eta begirale titulua edukitzea. Interesatuak bidali curriculum: Bergarako Jardun elkarte, Errotalde jauregia z/g (kultura etxea), 20570, Bergara.

kale inkesta

Herria zelan geratzen da abuztuan, lasai ala oso triste?



Manoli Martin
Langilea
Eskoriatza

Neure ustez, oso lasai; inoiz geratu izan naiz eta benetan lasai egoten da, automobil barik... Paseoan egiteko oso ondo, eta geratzen direnendako nahikoa zerbitzu egoten delakoan nago.



Iñigo Altuna
Langilea
Eskoriatza

Oso lasai egoten da, baina neuk gustuko dut. Igual zerbitzuren bat gehiago egonez gero hobeto, baina, hala ere, ondo. Eta mugimendua gura izanez gero, kanpora jotzen dut eta kito.



Mari Karmen Pagaldai
Langilea
Eskoriatza

Lasaia da, bai, baina, egia esateko, tristetxo ere bai, oso jende gutxi geratzen gara-eta. Hala ere, nahikoa zerbitzu izaten dugula uste dut, eta geu ere ateratzen gara men-dira edo hondartzara.



Arantxa Ruiz
Langilea
Eskoriatza

Neure ustez, triste gelditzen da, baina senarraren ustez, oso ondo; nik jendearen falta sumatzen dut. Zerbitzuei dagokienez, modu batera edo bestera jendea moldatu egi-ten dela uste dut.



Juan Migel Pagaldai
Erretiratua
Eskoriatza

Herri ingurua nahiko lo egoten da, bai; hortaz, lasaitasuna gura duenaren falta sumatzen dut. Zerbitzuei dagokienez, modu batera edo bestera jendea moldatu egi-ten dela uste dut.

txaloak eta txistuak



M.B.

Goiko estaziora doan bidea, gorotzez josita



Bergarako goiko estaziora joateko bidean txakur asko ibiltzen direla eta ibilbide guztia kakaz beteta eta usain txarra dagoela jakinarazi du irakurle batek. Txakurren kakak jasotzen ez dituzten jabeen portaera gogor salatu gura du herritar horrek.

usteak uste

Mirari Altube

Kaka dakar gure herrira haizeak

Osatu berri dituzte Udaletan datozen lau urteotarako batzordeak, eta Aretxabaletan, orain arte ez bezala, izen dotoreak jarri dizkiote: Biziberritzea, Garapen iraunkorra, Bizi kalitatea eta Ogasuna eta Zerbitzuak. Moda-modan dauden izenak dira, zalantza barik, baina pentsatu gura dut izena baino gehiago izango direla, eta herrian ditugun arazoei esku biek hiltzeko balioko dutela.

Gehien arduratzen nauena bizi kalitatea da. Sarri entzun izan dugu langabezia tasa baxua dugula gurean, Debagoieneko etxerik garestienetakoak ditugula... Dirua darabilgun seinale, noski. Baina dirua zertarako lanetik etxeraterakoan kaka jan behar badugu Markole auzokoei gertatzen zaien moduan; injekzioa aluminioan egiten duen lantegitik datozen ke eta usain txarrak jan behar -nazkagarriak, eta kaltegarriak?-, batez ere hego haizea dabilenean. Dirua zertarako autoz gainezka daukagun zuloan bizi behar bagara; txarto aparkatuta, abiada bizian dabilzan quadsak... Dirua zertarako aisialdiaz gozatu gura dugun bakoitzean kanpora jo behar badugu; antzerkia ikusi...

Asko maite dut nik Aretxabaleta, baina benetan halako herria gura dugun hausnartu beharrean gaude.

5 galdera...

Nerea Mendizabal

Jarduneko Kultura arduraduna
Bergara

1. Joan zen uztailaren 21ean *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina amaitu zen. Zer moduz joan da?

Hasieran pentsatzen genuen baino emaitza kaskarragoak izan ditu, ez dira-eta liburu asko saldu. Baina bere alde positiboa ere izan du. Egitasmo horren helburu nagusietako bat zen euskarazko liburuak mailegutan hartzea, erosi eta oparitu aurretik. Euskarazko liburuak irakurri ditu jendeak, eta hori ere ondo dago.

2. Zer-nolako liburu motak zeuden mailegutan hartzeko?

Denetarik zegoen aukeratzeko. Kanpaina horren barne, euskarazko ehun liburu aukeratu genituen eta liburutegiko aparteko apal batean jarri genituen. Estilo askotariko eta adin guztietarako argitalpenak zeuden hor.

3. Zeintzuk ziren kanpaina horren ezaugarri nagusiak?

Egin beharrekoa oso erraza zen. Liburutegiko apal horretako liburu bat mailegutan hartu eta hamabost eguneko epean irakurri behar zuen erabiltzaileak. Hori bueltatzean fitxa bat bete eta deskontu txartela jasotzen zuen. Elkar dendan liburu hori erosteagatik %25eko deskontua zuen. Jarduneko kide izanez gero, beste %25eko deskontua lortzen zuen.

4. Nola bururatu zitzaien mota horretako ekimen bat egitea?

Idea ez da Jardunena. Topaguneak bultzatu du eta Euskal Herriko 13 herritan jarri dute abian. Askotariko emaitzak jaso ditu kanpainak. Herri batzuetan beste batzuetan baino mugimendua handiagoa eduki du.

5. Datorren urteari begira berriro martxan jartzea pentsatu duzue?

Hasiera baten, bai. Aurtengo emaitzak oso onak izan ez badira ere, euskarazko liburuak irakurtzeko ohitura handirik ez dago oraindik eta hori sustatzeko aukera ona da *Irakurri, gozatu eta oparitu* kanpaina. Horretarako balio izan du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

200

Ama Zerrajera liburua oso ondo dabil saltzen, egileek uste baino hobeto eta azkarrago. Arrasateko Elkar dendan, esaterako, hamabi egunean 200 ale saldu dituzte. 1.000 ale aterra zituzten, baina 325 bakarrik ipini zituzten salgai, hamar euroren truke. Gainerakoak banatu egin zituzten.

UDAL GOBERNUA > AKORDIOAREN AURKEZPENA

Zabaletako merkataritzagunea eta Ikutixorako proiektua, bertan behera

Gobernuko bi alderdiek elkarren arteko akordioa azaldu zuten prentsaurrekoan, atzo

Bestalde, astelehenean erabaki zuten osokoak egitea hileko lehen eguenetan, 19:00etan

UBANE MADERA > ARRASATE

Atzo, eguena, prentsaurrekoa egin zuten gobernua osatzen duten bi alderdietako ordezkariak, udal gobernurako hitzartutako akordioa aurkezteko. Ino Galparsoro alkatea, Oihana Aranburu alkateordea eta Joseba Ugalde eta Julia Monge EB-Zutik koalizioako kideak izan ziren aurkezpenean.

MERKATARITZAGUNERIK EZ

Oro har, Arrasaten eta arrasatearren kontuan hartzeko moduko eragina izango duten neurri ugariaren berri eman zuten gobernu-kideek.

Azken hilabete eta urteotan berba izan diren kontuen artean, Zabaletako merkataritzagunearen asmoa bertan behera uzteko asmoa jakinarazi zuten: "Proposatzen dugu Zabaletako egitamu orokorra aldatzea, gaur egun hura garatzeko zegoen asmoa gauza ez dadin. Gune hartarako erabilera erabakiko da azterketa egin ostean eta dagokion udal eztabaida egin ostean".

IKUTIXO, UDALATX ETA AHT

Hauxe ere jakinarazi zuten: "Ikutixoko jarduera esparrua ez hiritargarri bezala kalifikatzea proposatzen dugu". Beraz, Ikutixon ezin da ezer eraiki.

Ingurumen kontuekin segituz, iragarri zuten "arreta berezia" izango zutela kezka eragin duten proiektuekin: AHT, Gipuzkoarako erraustegia, harrobiak (Uda-



PLENOA Astelehenean legealdiko lehen osoko bilkura egin zuten. Aurrerantzean, hileko lehen eguenetan izango dira u.m.

latx) eta abar. Hala, Udalatx mendiari dagokionez, hauxe egin gura dute: "Udalatxeko ustiapenerako udal baimena berrikusi. Eta biotopo babestu gisa deklaratu izatea eskatu, berriro Urkiolako Parkean integratuz".

AHTri eta errauskegiari dagokionez, berriz, "proiektu desegoki edo txikitzaileei aurre" egiteko asmoa dute, "Udalaren bitarteko posible guztiak erabilia".

Gaineratu zuten "gisa horretako erabakiak hartzeko gizarte-ari zuzendutako galdeketa egitea defendatzen" dutela, "erreferenduma barne, betiere informazio eta eztabaida prozesu garbi eta sakon baten ondoren".

BITERI BERRIRO DISEINATU

Ingurumen eta azpiegitura kontuekin bukatzeko, Arruenako parkea bere horretan uztea proposatzen dute; Biteri plaza berri diseinatuko dute eta "garraio publikoa garraio motorizatu garrantzitsuena bihurtu" gura dute, "tranbiaren eraikuntza azkartuz". Eta horrekin batera,

"Arrasateko urradura ekologikoa definituko" dute, gero "neurri zuzentzaileak ezartzeko".

ETXEEN GAINEKO POLITIKA

Bestalde, etxebizitza beharra eta leku eskasia kontuan hartuta, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailarekin gura dute akordioa egin abiarazita dauden ekimenak (Atxabalpe, Akisoalde, Zerrajera 2) "planifikatu eta gauatzeko epe onargarrietan. Betiere jabego publikoko etxebizitza sustatuz, alokairu soziala bezalako formulak erabiltzeko".

Horrez gainera, txalet edo elkarri atxikitako etxe gutxiago egingo dituztela ere esan zuten: "Trinkotasun baxuko (Bustintza, Barrutieta, Istizabal...) etxebizitza hiriguneak, zoruaren aprobetxamendu irizpide arrazionalago batez, aldatu egingo ditugu".

Gainera, erabili barik dauden etxebizitzak merkaturatzea areagotu gura dute; hala, mota horretako etxebizitzei ezarriko dieten zerga, "Ondasun Higiezinaren zerga, onarturiko gorenena izango da".

Iragarri zuten, baita ere, Legarre babes ofizialeko etxeekin osatuko dela". Eta, besteak beste, Garagartza eta Gesalibarko plan bereziak garatuko dituztela esan zuten.

HERRITARREN PARTE-HARTZEA

Eta, horrekin batera, berretsi zuten herritarren parte-hartzea bultzatuko dutela: "Herritarrek adierazi digute iragan legealdian ezagutu dugun gobernatzeko era guztiz gainditu eta eraldatu beharra daukagula, udaletxearen kudeaketa demokratiko eta irekia ezarri, herritarrenganako begirunez, informazio objektiboa eskainiz eta erabakitze prozesuetan ahalik eta esku-hartzerik zabalena bermatuz".

Parte-hartze hori bermatzeko, iragarri zuten arautegi bat proposatuko dutela. Eta zinegotzi delegatu bat ere sortzeko asmoa dute. Horrez gainera, udaletxean egin ohi diren batzarrak egingo dituzte "parte-hartze zabalena ahalbidetzeko". Hala, osokoak egingo dituzte hileko lehen eguenetan, 19:00etan.

Batzordeen zuzendariak

Hirigintza	Ino Galparsoro
Pertsonala	Ino Galparsoro
Hazienda	Juanmari Sampedro
Zerbitzuak	Patxi Arburua
Hazienda	Juanmari Sampedro
Hezkuntza	Oihana Aranburu
Emakumea	Oihana Aranburu
Gazteria	Arkaitz Biain
Gizartea	Ander Rodriguez
Garapena	Joseba Ugalde
Kultura eta jaiak	Julia Monge

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

Gobernuko kideak

Ino Galparsoro
Patxi Arburua
Oihana Aranburu
Arkaitz Biain
Juanmari Sampedro
Joseba Ugalde
Ander Rodriguez
Julia Monge

ITURRIA: ARRASATEKO UDALA

ASTELEHENEKO OSOKO BILKURA

Hain zuzen ere, batzarren egutegia onartu zuten oraingo asteleheneko osoko bilkura berezian, legealdiko lehenengoan.

Horrekin batera, Udaleko lana antolatzeko batzordeen gidaritza zein zinegotzik eramango duten jakinarazi zuten (goiko taulan, aurrenekoan). Eta jakinarazi zuten, baita ere, gobernua, Tokiko Gobernu Batzarra, zelan osatuko duten (goiko taulan, bigarren-goan).

Bukatzeko, bestelakoan artean, liberatuko dituzten zinegotzi kopurua eta udal karguen soldata nabarmen jaitea ere onartu zuten. Soldatei dagokionez, adibidez, lau urteotan zinegotzi batek kobratu duena kobratuko du alkate berriak. Zinegotzi batek, berriz, alkatearen erdia kobratuko du.

pinxoak eta bokata onenak geurean!!!

OSTANTZ

Ferreries 12 behea 20.500 ARRASATE Tel.:943 79 56 04

MENETA
taberna

- Eguneroko menua
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan
sukaldea itxita

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK

Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



DANTZA IKASTAROA Argazkian Saioa Ibañez irakaslea Musakolako kiroldegian dantza eskolak ematen.

IKER BARANDIARAN

IKASTAROKAK > GAZTE SAILAREN UZTAILEKO KULTURA EKINTZAK

Eguraldiak kaltetu egin du Gazte Sailak ekintzak kalera ateratzeko asmoa

Gaur egungo dantza eta bitxigintza ikastaroez gain, Gazte Bulegoko eta Sexualitate Zerbitzuko informazio puntuak kiroldegira eraman dituzte

IKER BARANDIARAN > ARRASATE
Uztailero moduan, Udaleko Gazte Sailak hainbat ikastaro egin ditu aurten. Gaur egungo dantzak eta bitxigintza ikasteko aukera izan dute hainbat gaztek. Dantzako irakaslea Saioa Ibañez izan da. Ibañezek eskarmentu handia dauka dantzan. Urte asko darama horretan eta atzerrian ere ibili izan da dantzan.

Dozena bat lagun ibili dira dantza ikasten, tartean mutil bakarra; eta oso gustura ibili

dira bai irakaslea eta baita ikasleak ere. Eskolak kiroldegian eman dituzte.

BITXIGINTZA DUNIXEKIN
Gazteek oso gustuko duten beste alor bat bitxigintza da. Hala, Dunix Royoren laguntzarekin artile, fimo eta beste material batzuekin artelanak egin dituzte. Asmoa zen ikastaro hori kanpoko igerilekuan egitea, baina, eguraldiak lagundu ez duenez, kiroldegi barruan egin dute.

INFORMAZIO ZERBITZUA KANPORA
Bestalde, Gazte Sailaren erronka bat izan da gazteak dauden lekura informazioa eramatea. Horregatik, uztaileko asteotan Gazte Bulegoko informazioaren zati bat Musakolako kanpoko igerilekura eraman dute. Horrez gain, Larraitx Arandok Sexualitate Zerbitzua hara eraman du. Zoritxarrez, eguraldiak ez die batere lagundu eta ohikoa den baino jende gutxiago ibili da igerilekuan.

URRIAN IKASTARO GEHIAGO
Uda osterako ere badute ikastaroen eskaintza: argazkigintza, dantza, alboka eta beste batzuk prestatzen dabilta ordurako.

> JAIK

Datozen asteotan jaiak ospatuko dituzte Kanpanzarren eta Udala eta Uribarri auzoetan

Uztailaren 31n Kanpanzargo feria-eguna ospatuko dute. Ohitura da elorrioarrak eta arrasatearrak batzea eta erromeria egitea. Eta abuztuaren 3an San Fausto jaiak izango dira Udala auzoan.


Abuztua bukatu aurretik, berriz, Uribarri baserri auzoaren txanda izango da. 24an, goizean etxafuegoak, buruhandiak, meza nagusia eta luntxa izango dira; arratsaldean, berriz, umeen jolasak eta Gorriti eta bere animalien ikuskizuna. Iluntzean, berriz, sagardo kupela irekiko dute eta bertso saioa izango da Egaña, Arzelus, Lotina eta Lizasorekin. Hilaren 25ean, bukatzeko, etxafuegoak, buruhandiak, auzoko hildakoen aldeko meza, herri bazkaria eta dantzaldia egingo dituzte.

> ARGITALPENAK

'Ama Zerrajera' liburua oso azkar saltzen dabil, eta dagoeneko ale gutxi gelditzen dira

Ama Zerrajera liburua, Zerrajeraren historia kontatzen duena, oso ondo dabil saltzen, egileek uste baino hobeto. Juan Ramon Garaik, liburuaren egileetako batek, jakinarazi du Arrasaten, esaterako, 12 egunean 200 ale saldu dituztela.

Oraingoz, *Ama Zerrajera*-ren mila ale atera dituzte, baina 325 bakarrik ipini dituzte salgai, gainerakoak banatu egin zituzten-eta. Juan Ramon Garaik ez du uste liburuaren beste tiradarik egingo dutenik, gutxienezko liburu kopurua behar delako.



GOIENKARIA

'Trikili-Trakala'-ren 14.a, kalean

Gaztetxeko batzarraren *Trikili-Trakala* fantzineak beste zenbaki bat du kalean. Gero eta jende gehiagok esku hartzen du fantzine zirikatzaile horretan. 14. zenbakian, XIX. mendeko Etxahun Barkoxekoaren gaineko artikulu sakon bat, bizimoduaren gaineko gogoeta kritikoak eta beste batu dituzte. Doan banatzen dute gero eta leku gehiagotan.

EXPRES

Ogitartekoak
Errazioak
Pintxoak

Maalako Errabala 8
Arrasate
Tel.: 943 79 85 14

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

BERGARA AUTOAK

- AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
- GARANTIA IDATZIZ
- FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Autoen eskaerak aukeran:
jlegana@terra.es

Amillaga, 10 • BERGARA • 943 76 04 58

Audi, BMW, VW, Toyota, Mercedes, Mitsubishi, Ford



MALLABIABARRENA Espainiako selekzioarekin jokatzeko; hemendik aurrera talde nagusiarekin jokatu beharko du. GOIENKARIA

SASKIBALOIA > ITZIAR MALLABIABARRENA, 20 URTEZ AZPIKO EUROPAKO TXAPELDUN

"Oso pozik nago, baina badakit oso gaitza izango dela selekziora itzultzea"

Itziar Mallabiabarrenak Europako Txapelketako urrezko domina jantzi berri du Espainiako selekzioarekin; harekin izan gara berbetan

X.U. > ARRASATE

Eivissan harrapatu dugu Itziar Mallabiabarrena arrasatearra, atsedean hartzen. Eta Hondarribia-Irun taldeko jokalariek badu horretarako beharra, azken hila-beteotan bi txapelketa jokatu ditu-eta jarraian: ekainean Erru-

sian izan zen, 21 urtez azpiko Munduko Txapelketan -bederatzigarren sailkatu ziren-. Eta, maleta desegiteko asti barik, Bulgariara joan behar izan du, 20 urtez azpiko Europako Txapelketan urrezko domina janztera.

FINALA, SERBIAREN KONTRA

Espainiako selekzioak domekan jokatu zuen txapelketa horretako finala, Serbiaren kontra. Hala, serbiarrek partidua indartsu hasi bazuten ere (5-21), Jordi Fernandez neskek buelta eman zioten markagailuari (75-60). Urrezko domina lepoan, Arrasatekoak aitortu digu poztasun handia sentitu duela txapelketa irabazte-

gatik, baina baita pena ere: "Izan ere, hemendik aurrera selekzio absolutuarekin bakarrik jokatu ahal izango dut, eta oso zaila da horra joatea. Hala, datorren udan atsedean gehiago hartzeko astia izango dut, baina seguru saskibaloia hutsunea igarriko dudala".

Denboraldiari dagokionez, Arrasatekoak ez du gordetzen sentimendurik, gehiago jokatu gura du: "Munduko jokalariek onekin entrenatzen dut, baina hori ez da nahikoa. Horrelakoetan gaitza izaten da entrenatzaileak ni bezalako jokalariek gazte bati konfiantza ematea; beraz, pazientzia izan beharko dut".

SEGA ERAKUSTALDIA > DOMEKA EGUERDIAN, ATXABALPEN

"Teknika ona izatea da garrantzitsuen"

Domekan sega erakustaldian jardungo duen Arkaitz Arteagak azaldu dizkigu kirol horren xehetasunak

X.U. > ARRASATE

"Oso kurioa izango da hemen sega jardutea, harmailez inguratuta. Belarra oraindik motz samar dago, eta txapelketarako balioko ez balu ere, erakustaldia egiteko ondo dago. Hori bai, sega azkar kamusten da, eta teknika ona izatea garrantzitsua izango da", esan zigun eguaztenez Atxabalpen egindako pre-

tsaurrekoan Arkaitz Arteagak. Aloña Galarraga eta Miguel Mari Jauregi *Altzo* segalariak ere Atxabalpen izan ziren, zelaia zelari dagoen zuzen-zuzenean ikusten, eta hainbat saio egin ostean, gustura geratu ziren.

Hala, domekan Almitza Segal Elkarte 10-12 gizon eta emakume izango dira Atxabalpen, segan. Tartean, Nazioarteko txapelketa izatea zer den ondo dakiten Bixente Mitxelena eta Maria Luisa Gabirondo.

Erakustaldia bera ere nazioarte erantzen egongo dute: "Gizonok 100 metro koadroko saila moztu beharko dugu, eta emakumeek 35 metroko saila. Hala, nazioarte erantzen belarra ondo eta azkar moztu behar da, epaileek zigorrik ez jartzeko".



SEGAN Arteaga eta Galarraga, eguaztenezko saioan. X.URTZELAI

> ATLETISMOA

Lander Errastik irabazi du Euskadiko txapela, Mendizorrotzan 4,40 metroko saltoa eginda

Gasteizen egin dute, Mendizorrotzan, Euskadiko Atletismo Txapelketa. Eta Arrasateko Lander Errasti izan da pertika saltoan onena, 4,40 metroko saltoa eginda. Jonathan Perezek, berriz, baliorik gabeko hiru salto eginda, 4,20 metroko markarekin konformatu behar izan zuen. Asteburuan Iruñean izango dira atleta horiek, marka pertsonalak hobetzeko saioetan parte hartzen.



**Berezitasunak
Kazulatuak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arbolapeta

arrasate

beinke

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



Goiena Telebista abuztuan ere zuekin!

GOITB

Egunero zazpi albistegi
(11:45, 13:45, 15:45, 17:45, 19:45, 21:45 eta 23:45)
Eta horretaz gain, musika, sukaldaritza saioak, Ilunpean, Didjeridu, marrazki bizidunak...

Goiena.net

www.goiena.net atarian ere informazio eguneratua
Zoazen lekura zoazela, izan Debagoieneko albisten berri!

Gurekin kontaktuan jartzeko:

Informaziorik bidali gura baduzu, hauxe da posta helbidea:
berriak@goiena.com • Tel.: 943 71 25 11

Ondo ibili!


Goiena Telebista
Ikustekoa!

OSOKO BILKURA > BERGARAKO ESKOLA-MAPA BERRIA

Egoera argitzeko eskatu dio San Martin eskolak Udalari

Udala egoera desblokeatzeko proposamen bat lantzen ari da eta San Martini, Aranzadiri, UNEDi eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztuko die

OIHANA ELORTZA > BERGARA

San Martin Agirre ikastetxeak bi eskaera egin zizkion Udalari asteleheneko osoko bilkuran: Aranzadiri eskatzea otsaileko udalbatzak onartutako testua sina dezala eta UNED patronatuarekin sortutakoa argitzea. San Martin Agirre ikastetxearen iritziz, informazio kontrajarriak argitaratu dira orain arte, eta hori argitzeko eskatu diote Udalari, "bestela oso arriskutsua izan daitekeelako etorkizuneko harremanetarako".

Informazio kontrajarri hori ikastetxeen kokapenari buruzkoa da, ikastetxe publikoaren esanetan. "Guk diogu 2005ean Bergarako mapa eskolarra definitu zela, Aranzadik erdigunea hartuz eta publikoak Poligonoa. Aranzadik, aldiz, hitzarmena sinatu arte inork ez ziola hori esan adierazi du", azaldu zuen Usoa Urbietak San Martin Agirre ikastetxearen izenean. Hain zuzen ere, egoera argitzeko



BETETA Osoko bilkuren aretoa bete egin zen astelehenean; San Martin Agirre ikastetxeak ziren gehienak. O.E.

eskatu zioten Udalari, eta, zuzenean, alkateari. Egoera konpondu bitartean Martinez Irala konpartitzeko ahaleginak egiteko ere eskatu zioten.

Agurme Barrassok erantzun zien ez bera ez bere taldea ez zela egon negoziazio horiek egin zire-

nean eta ez dela pertsona egokiena erantzuteko. Hala ere, aurreratu zuen Udala proposamen bat lantzen ari dela egoera desblokeatzeko, eta ahalik eta lasterren egin nahi dutela: "San Martini, Aranzadiri, UNEDi eta Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari aurkeztuko die-

gu". Hain zuzen, Hezkuntzak gai horretan zeresan handia duela gogoratu zuen alkateak: "Hark utzi zion Martinez Iralaren erabilpena Aranzadiri. Horregatik, erai-kin hori konpartitzeko erabakia ere hari dagokio".

Bestalde, aurreko agintaldian Hezkuntzako zinegotzia izan zen Iñigo Iñurrategik "negoziatioak alkateak berak" egin zituela esan zuen, baina gaineratu zuen bilera haietan aipatu zela Aranzadik erdigunean izango zituela gela guztiak egunen baten.

TALDE POLITIKOEN SOLDATA

Bestalde, asteleheneko osoko bilkuran eztabaidatu behar zituzten gaien artean zegoen udal talde politikoen aldeko ekarpena onartzea. Azkenean, ordea, gaia atzeratzea erabaki zuten, PSE-EEk horrela eskatuta. Iraileko osoko bilkurako gai zerrendan sartuko dute berriro gaia, ziurrenik.

ENPRESA

Akordioa sinatu dute Errota-Gain lantegian

45 egun egin dituzte greban 14 langileek; egunean sinatu zuten akordioa

O.E. > BERGARA

Errota-Gain enpresako langileek eta nagusiek akordioa sinatu zuten atzo, eguna, eta ondorioz, langileek bertan behera utzi dute 45 egun iraun duen greba.

Eguaztenean egin zuten bilera alde bietako ordezkariak eta hantxe adostu zituzten akordioaren puntuak. "Batetik, kaleratutako bi langileen egoera adostu dugu; indemnizazioa negoziatu dugu eta baita kaleratzearen zehurgabetasuna ere. Adostu dugu bi langile horiek ez dutela epaiketa ez judizialik ez zibilik izango gertatu zen istripuagatik. Bestalde, lan hitzarmenari dagokionez, hiru urterako akordioa sinatu dugu: aurtun KPIa gehi 1,7 igoko dira soldadak, eta datozen bi urtetan KPIa gehi 1,3. Laneko bajak %100 kobratzea ere adostu dugu eta baita orain arteko atzerapenak abuztuaren 1a baino lehen kobratzea ere", argitu du ELAko Egoitz Iturbek. Hitzartutakoarekin langileak pozik daudela ere gaineratu du Iturbek.

Errota-Gaineko langileek ekainaren 12an hasi zuten greba lan hitzarmena adosteko. Greban zeudela istripua gertatu zen langileen eta nagusiaren artean eta bi langile kaleratu egin zituzten. Langileen egoera eta hasierako puntuak negoziatzeko, 45 egun egin dituzte greban. Atzo manifestazioa ziren egitekoak eta alderdi politikoei ere euren atxikimendua eskatu zieten asteleheneko osoko bilkuran, baina hitzarmena sinatuta, greba eta manifestazioa bertan behera utzi zituzten atzo.

Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

**BERGARA
MARMOLERIA**

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

**((112))
SOS DEIAK**

**JOXAN
ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BERGARA
Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

ZERBITZUAK > ZABORRA BILTZEKO ONTZIAK

Lur azpiko sei edukiontzi jarri dituzte Komenion

Plazako zaborrontziak kendu egingo dituzte eta hemendik aurrera Komenio kalekoak erabili beharko dituzte erdigunean bizi diren herritarrek



PROBAK Asteon egin dituzte. Irudian estalkiak jasota.

O.E.

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Komenio kalean jarri dituzten lur azpiko edukiontziak erabilgarri daude. Sei jarri dituzte: hiru zabor organikoa jasotzeko eta beira, papera eta plastikoa batu-ko duten beste bana. Bergaran jarri dituzten bigarrenak dira; Ibargarai kalekoak maiatza ezke-ro erabil daitezke. Edukiontzi horiek kamioiak atzean duen igogailuarekin hustuko dituzte. Zaborra jasoko dutenak, adibidez, bakoitzak 1.200 litroko edu-

kiera duten bi ontzi ditu barruan. Birziklatzeko den hondakina jasotzen dutenek, berriz, lau metro kubikoko edukiera dute. Zaborrontziak hiru astean behin

garbituko dituzte eta besteak hiru hilabete behin, mantentze-lanak egitearekin batera. Bideberrin eta Domingo Iralan ere badute jartzeko asmoa.

ETXEBIZITZAK > URTEAGA KALEKO BIZILAGUNAK

Etxeak konpontzeko eskatzen dute

O.E. > BERGARA

Urteaga kaleko 29. zenbakiko bizilagunek etxebizitzak konpontzea eskatu dute. Ia lau urtez egon dira bizilagun horiek euren etxebizitzetatik kanpo, Urteaga kaleko lanak egin behar zituztelako. "Otsailean jaso genuen eskutitz bat esanez gure etxeetara buelta gintezkeela, baina ez daude guk utzi genituen moduan: paretak zartatuta daude, kristal eta pertsiana batzuk apurtuta eta zikinak ere badaude. Horrela ezin gara bueltatu", dio Luis Alvarezek, bizilagun guztien izenean. Konponketa eta garbiketa lanak egiteaz gain, ur, argi eta gas instalazioa ikuskatzea ere eskatzen dute, agindu dizkieten Movillasen egingo dituzten etxebizitza bana eman arte, behintzat.



KALTEAK Beheko eta lehenengo solairuek dute kalte handien.

O.E.

Diputazioari egin diote eskakizuna, baina oraindik ez die erantzun. Etxetik kanpo egon diren denboran, Udalak utzitako etxe-

etan bizi izan dira, baina Udalak esan die abuztuaren 31n utzi behar dituztela etxe horiek, beraien etara bueltatzeko.

KULTURA > JAZZ ETA ORGANO KONTZERTUAK

Jazz gauetako azken doinuak gaur Espoloian

Abuztuaren 12an organo kontzertua egongo da San Pedro parrokian

ORGANO KONTZERTUA

Bestalde, abuztuaren 12an organo kontzertua egongo da San Pedro parrokian. Donostian bizi den Oscar Candendo antzuolarra izango da organo jolea, eta, hark esan bezala, kontzertu berezia izango da: "Donostiako musika hamabostaldiairen barruan dago eta Gipuzkoa eta Kataluniako gaiak edo piezak musikatu behar dira. Nik, adibidez, Donostiako Erbiti argitaletxe ezaguneko pieza batzuk hartu ditut. XX. mende hasieran musika asko argitaratu zuen etxe horrek, tartean Katalunian egindako pieza asko. Bestalde, Aita Donostia eta Luis Urteagaren piezak ere joko ditut; lehenengoak, esaterako, urte asko egin zituen Bartzelonan".

O.E. > BERGARA

Uztaileko jazz kontzertuetako azkena izango da gaurkoa, egu-bakoitza. Euskal Herrian sortutako Five's Hot Project taldeak eskainiko du kontzertu hori, Espoloian, 22:30ean.

Musikeren, Euskal Herriko musikaren goi kontserbatorioan, ezagutu zuten elkar Five's Hot Project taldeko bost kideek. Musikari bakoitza penintsulako toki konkretu batekoa da eta nork bere ekarpena egin dio taldeari.



JAZZ Irudian Five's Hot Project taldea.

GOIENKARIA

**JAUJA
KIROLAK**
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**EDEL
TAPIZ DENDA**

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena

**Alfonbrak, kortinak, kortinoiak,
koltzak, edredoiak, etab.**

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

SANTOS

TIEN 21

**Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena**

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA

Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura

IGERIKETA > EUSKADIKO TXAPELKETA

Junior mailako igerilariak, Euskal Herriko txapeldun

Bergarako laukotea ondo nagusitu da errelebuetoako lasterketetan

Bakarka, Nielka Ibarguren podiumeko postuetan egon zen hiru lasterketetan

XABIER URTZELAI > BERGARA

Euskal Herriko txapelketan lan ona eginda itzuli dira Bergarako taldeko junior mailako igerilariak, errelebutan Euskal Herriko txapeldunak izan dira-eta. Hala, bakarkako saioetan kontutan hartzeko moduko markak egin badituzte ere (Nielka Ibarguren podiumeko postuetan ibili da), Bergarakoek talde lanean jardun dute ondoen. Hori horrela, Erik Iñarrak, Mikel Labakak, Peru Alustizak eta Nielka Ibargurenek osatutako laukotea



TALDEKIDEAK Bergarako igerilariak, Iruñeko txapelketan.

AMAIA ANDUEZA

ak urrea jantzi zuen 4x100 librean, 4x50 librean, 4x100 estilotan eta baita 4x50 estiloko lasterketan ere.

BAKARKAKO LANA

Taldeka egindako lehiarekin batera, Bergarakoek bakarkako probetan ere neurtu dituzte inda-

rrak. Hala, Nielka Ibargurenek hiru probatan hartu zuen esku; emaitza oso onak eskuratuta, gainera. Izan ere, Bergarako bigarren izan zen 100 metro bular estiloan, azkarrena 200 metro bular estiloan eta hirugarrena 50 metroko lasterketan.

Mikel Labakak ere hirutan egin behar izan zuen lan, 50 metro eta 100 metro estilo librean eta 50 metro tximeleta estiloan. Eta proba horietan laugarren, zortzigarren eta bederatzigarren sailkatu zen.

Irati Fernandez, berriz, 13. sailkatu zen bular igeriketan, eta Peru Alustiza seigarren izan zen 50 metro tximeleta estiloan, laugarren estilo bereko 100 metroko proban eta zazpigarren 100 metro librean.

Azkenik, Urki Ibarguren 17, 26 eta 37 postuetan sailkatu zen parte hartutako lasterketetan. Horrekin batera, Getariatik Zarautzerako zeharkaldian ere parte hartu dute hainbat igerilari, eta hor, Jon Muxika eta Ana Balentziaga nabarmendu dira.

> PIRAGUISMOA

Lau palista egon dira Sorten, Espainiako promozio Kopan

Begarako Beti Busti taldeko infantil mailako Iñaki Usabiega, Unai Agirrezabal, Aritz Ginbert, eta Patxi Ugalde Lleidan izan dira asteburuan, Espainiako promozio kopan esku hartzen.

Emaitzen artean, Unai Agirrezabalen bigarren postua eta Patxi Ugaldek lortutako lehenengo postua dira nabarmenenak.

Hala, txapelketa hori atzean utzita, Beti Bustikoek abuztuaren 18an izango dute hurrengo promozio kopa, Calasparran (Murtzia).

> ZIKLISMOA

Aranzeta Espainiako Txapelketara joateko aukeratu dute

Begarako Sumofic taldeko ziklista antzuolarra aukeratu du Euskadiko selekzioak Espainiako Txapelketara joateko. Horretarako, Antzuolako Angoston egon zen joan den astean, kontzentratuta.

Kontzentrazio horren ondoren erabaki zuten hautatzaileek Aranzeta aukeratzeko, eta zapatuan, Antzuolakoako ondo erakutsi zuen erabaki zuzena dela, Ordiziako lasterketan lehenengo helmugaratu zen-eta. Aurtengo laugarren garaipena izan da.

> ZIKLISMOA

Begarako hiru lagun, Paris-Brest-Paris proban

Begarako Garikoitz Arregik, Gorka Muxikak eta Jesus Martin Manzanalek Paris-Brest-Paris Randonneur proba gogorren hartuko dute esku abuztuaren 20an.

Erroka gogorra izango dute aurrean, proba horrek 1.202 kilometro ditu-eta. Hala, ziklistek gehienez 90 ordu izango dituzte kilometro horiek guztiak egiteko. Lasterketako antolatzaileek 4.000 lagunek esku hartuko dutela aurreikusten dute.

TRIATLOIA > ESPAINIAKO TXAPELKETA

Mikel Muxika 53.a Vinarozen, Castellon

Espainiako triatloi txapelketan, Euskadiko kideen artean Bergarako da helmugara iritsi den bakarra





X.U. > BERGARA

Espainiako junior mailako triatloi txapelketan lehiatzen ibili da Mikel Muxika, Vinarozen (Castello). Hala, Muxikak Euskadiko selekzioa ordezkatzeko ardura izan du, eta zapatuan egindako proban zehar hura izan zen taldekideen artean helmugara iritsi zen bakarra, 53. postuan (1:16:48): "Oso

esperientzia ona izan da, baina egia da taldean ez dugula zorte handirik izan. Auritz Oinaeder donostiarrak giharretako minarekin erretiratu behar izan zuen, Iker Juanenak (Lasarte) gorpila hautsi zuen eta Ander Perez (Gasteiz) okerreko bidetik joan zen". Bergarako harridura geratu da txapelketan egon den mailarekin.



EUSKADIKO ORDEZKARIAK Vinarozen asteburuan ateratako erretratua. GOIENKARIA


-  Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
-  Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
-  Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin
-  Puntuak berreskuratzeko aukera

Gainditu **motorraren** azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta **autoarena** 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

SHOTOKAN KARATE-DO



Begarako Shotokan Karate-Dok taldeko zuzendaritzaren izenean,

ZORIONIK BEROENAK

ikasle guztiei aurtengo emaitza bikainengatik .

Irailean ikusiko dugu berriz ere elkar!

Talde indartsuena osatzeagatik
ESKERRIK ASKO !



JAIK > ANDRAMAIXAK

Egitarau txikia Andramaixak iragartzeko

Tradizio handia zeukan txirrindulari lasterketa ez da egongo; baina ikuskizun dotoreak bai: Kabaret edo Losdelgas taldeenak, esaterako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Kultura Sailak dagoeneko gertu dauka Andramaixetako egitaraua. Astean bertan jasoko dugu etxeetan, eta ohiko egitarauarekin batera poltsikorako egin duten txikiagoa bidaliko digute.

BURUHANDI BERRIAK

Lau egun irauten duten Andramaixa jaien aurrekontua 63.714 euro da aurten. Tradizio bihurtu diren urteroko hainbat ekitaldi errepikatuko dituzte: mus txapelketa jai bezperan, paella erraldoia eta sokamuturra azken egunean, besteak beste. Hala ere, tradizio handia zeukan txirrindulari lasterketarik ez da izango aurten, lehenengoz.

Errepikatuko dituzten ekitaldiekin batera berriak ere badaude egitarauan, ikuskizunak batez ere. Txupinazioaren ondoren buruhandiek egingo dute kalejira, eta hainbat berriak izango dira: "Bai, berriak dira, baina dotoreagoak eskatuta ditugu eta horiek San Migeletarako iritsiko direla uste dugu", azaldu digu Inma Miguelek, Kultura teknikariak. Andramari egunean, gainera, Iruñeko alde zaharreko erraldoien konpartsa izango dugu gure artean.

nak batez ere. Txupinazioaren ondoren buruhandiek egingo dute kalejira, eta hainbat berriak izango dira: "Bai, berriak dira, baina dotoreagoak eskatuta ditugu eta horiek San Migeletarako iritsiko direla uste dugu", azaldu digu Inma Miguelek, Kultura teknikariak. Andramari egunean, gainera, Iruñeko alde zaharreko erraldoien konpartsa izango dugu gure artean.

GOMENDIO BI

Egitaraua zabala da eta ikuskizunen bat gomendatzeko eskatu diogu Kultura teknikariari: "Kabaret taldekoen kale animazioa oso dotorea da, eta Losdelgas taldekoen musika saioa ere bai. Bietan daude musikari profesionalak eta ikuskizun bikainak eskaintzen dituzte".



ZEZENTXOAK Aurten ere izango dira umeendako entzierroak.

M.A.

Kirolari dagokionez, pilota izango da nagusi. Andramari egunean herriko mutikoez jokatu dute txapelketa, eta abuztuaren 16an, profesionalak. Lehen partiduan, Saralegik eta Oteizak Belloso eta Mendizabal II.aren aurka jokatu dute; eta bigarrenetan, Unanue

eta Otxandorenak Bengoetxea VI.aren eta Argoterren aurka.

Herriko gazteek, osteran, txosnagunean izango diren ekitaldiak antolatu dituzte. Aipatzeko artean dago Aretxabaleako musika taldeek egingo duten kontzertu maratonia.

Jaialdiarekin esan diote agur Pausokari hiru urteko umeek

Pausoka haur eskolako umeek jaialdia egin zuten joan zen egubakoitzean ikasturteari agur esateko. 2-3 urteko umeek eskolan ondo baino hobeto pasatu dutela dioen diploma jaso zuten jaialdian. Kantuan eta jolasean jardun zuten gurasoen aurrean eta mokadutxo eskaini zieten bukatzeko. Gaur hartuko dituzte oporrak.



IRATXE BENGOA

OSPAKIZUNA

Bihar eta etzi Santiago jaiak Goroetan

Umeendako jolasak, mus eta briska txapelketak eta auzo afaria izango dituzte

M.A. > ARETXABALETAKO

Eguaztenean, hilak 25, izan zen Santiago eguna, baina Goroetako auzotarrek aste bukaeran egingo dituzte zaindariaren omenezko ospakizunak.

Umeendako jolasekin hasiko dute jaiak, bihar, 17:00etan, mus eta briska txapelketak egingo dituzte, eta 19:00etan txikiteoa. Urtero egiten duten afarian, auzoan jaiotako lagunak elkartuko dira, eta afalostea Txome akordeoilariak girotuko die.

MEZA ETA MOKADUTXOA

Domekan, kanpai errepikak joko dituzte eguerdian, eta meza nagusia izango dute 12:30ean. Ondoren, eta ospakizunei bukaera emateko, mokadutxo eskainiko diete elkartutako guztiei.

> OSPAKIZUNA

San Inazio eguna ospatuko du Muru-Alde elkarteak

San Inazio du zaindari Muru-Alde gastronomia elkarteak, eta, urtero legez, hainbat ospakizun antolatu ditu astelehen eta martitzenerako. Astelehenetan, hilak 30, afaria egingo dute bazkideek, eta bertsolariak izango dituzte lagun afalostea girotzeko. Martitzenean, San Inazio eguna, lehenengo, meza entzungo dute parrokiaren, 12:00etan, eta ondoren, 21. bolo txapelketa jokatu dute. Sari bikainak jasoko dituzte irabazleek, tartean garaikurra, txapela eta dirua. Bazkideek ere izango dituzte sariak.

ZARAIA taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 88 95



> TXIRRINDULARITZA
Azken lasterketa bihar Dorletako Amako kadeteek

Dorletako Ama txirrindulari eskolako Sein taldeko kadeteek –tarte hainbat aretxabaletar– denboraldiko azken lasterketa jokatu dute bihar, hilak 28. Hala, 67 kilometro egin beharko dituzte Azpeitia inguruan, eta denboraldi bukaeran indarrik duten erakutsi beharko dute txirrindulari gazteek.

Denboraldia otsail bukaeran hasi zuen Dorletako Ama txirrindulari eskolak. Orduan talde guztiak aurkeztu zituen eta ordutik ona hainbat lasterketa egin dituzte.

> KIROL ETXEA
Itxita egongo da kirol etxea abuztuaren 6tik 26ra bitartean

Hiru aste itxiko dute Aretxabaletako kirol etxea abuztuaren 6tik 26ra, hain zuzen. Tarte horretan, igerilekua hustu, garbitu eta konpondu egingo dute. Azken urteotan legez, Arrasateko igerilekura joan ahal izango dira kirol etxeko abonatuak itxita dagoen bitartean; horretarako, kirol txartela edo ordainagiria eroan beharko dute.

Abuztuko lehen astean goizez bakarrik egongo da zabalik, eta 27tik aurrera ohiko ordutegia izango du.

> LIBURUTEGIA
Abuztuaren 27a bitartean egongo da itxita liburutegia

Gaur, hilak 27, hartuko ditu oporrak Udal Liburutegiak, eta abuztuaren 27a bitartean egongo da itxita.

Oporretatik bueltan, abuztuaren 27tik irailaren 14ra artean udako ordutegia izango du; hau da, astelehen, eguazten eta egubakoitzetan goizez bakarrik zabalik, 10:00etatik 14:00etara. Eta martitzen eta eguenetan, goizetan 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeetan 17:00etatik 20:00etara.

Aitor Murua eta Unai Zunzunegi > Trialsinlariak

"Biharko munduko txapelketan lehen hamarren artean sailkatzea da gure helburua"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA
13 urte dituen Aitor Murua eta 10 egingo dituen Unai Zunzunegi trialsineko munduko txapelketa jokatuko sailkatu ziren, Espainiako txapelketan emaitza onak lortu ostean. Bihar da mundiala Bartzelonako Matro herrian (Katalunia).

Noiz hasi zineten trialsinean?
Orain dela lau urte, Gipuzkoako proba bat Aretxabaletan antolatu zuten.

Samurra iruditu zitzaizuen?
Bai, zera! Oso zaila, baina aurrera egitea erabaki genuen.

Zelakoa da trialsin proba bat?
Zailtasunez betetako bost zona gainditu behar ditu bakoitzak hiru aldiz, hanka edo eskurik lurrean ezarri barik; hori eginez gero puntuak kentzen dizkigute.

Hasiberrien mailan zabilta, Unai, eta infantiletan, Aitor; probak gero eta zailagoak dira?
Bai, noski, eta trialsin jokalarien maila ere hobea da. Espainiako txapelketan maila handiko jendea ibili da.

Hala ere, oso ondo moldatu zineten txapelketa hartan.
Bai; bost proba izan zituen txapelketak Espainiako hainbat herritan, eta hirugarren geratu ginen biok, nor bere mailan; lehen euskaldunak izan ginen.

Aitor, zuk, gainera, Espainiako biketrial txapelketa jokatuko duzu.
Bai, bosgarren geratu nintzen. Ezberdinak dira bi modalitateak, biketriallean bizikletaren hainbat zati jar daitezkeelako lurrean, pedalak esaterako, baina jakin egin behar da, eta, nire iritziz, zailagoa da.

Eta orain dela bi aste Euskadiko txapelketa hasi zenuten; zer moduz?

Ondo. Oiartzunen izan zen lehen proba, eta biok geratu ginen lehenengo postuan. Irailtik azarora bitartean beste bost proba izango ditugu.

Eta iaizko emaitza errepikatu gurako zenukete?

Ez legoke batere txarto, biok geratu ginen eta sailkapeneko lehen postuan.

Astean zenbat bider entrentzen zarete?

Hiru egun bai, behintzat, eta pare bat orduko saioak egiten ditugu. Kurtzebarri eskola inguruan ibiltzen gara, eta batzuetan Larrino auzora ere joaten gara Markel Uriarte trialsinlariarekin entrentzera. Hala ere, gauza berriak gura izaten ditugu gainditzeko eta zaila da topatzea. Katalunian, esaterako, askoz jarraitzaile gehiago ditu trialsinak, eta entrentzeko egokিতuta lekuak gertatzen dizkiete.

Eta entrentzailerik edo aholkurik ematen duen inor baduzue?



Murua eta Zunzunegi martitzenean, entrenamendu saioa hasi aurretik. M.A.

Entrentzailerik ez dugu, baina aholkuak aitek ematen dizkigute. Zailtasun bat edo beste ezin dugunean gainditu, zelan pasatu esaten digute.

Eta gurasoak ez dira aspertzen hainbeste bidaietan hara eta hona ibiltzen? Murtzian, Granadan, Badajozen eta Gironan izan zarete.

Bai, urruti daude, baina ez dut uste aspertuko direnik, gu gustura gabiltzan bitartean.

Hilaren 28an, zapatuan, munduko txapelketa jokatuko duzue Bartzelonan.

Bai, uste dugu mundu osotik etorriko direla trialsin jokalariek, baina batez ere Europatik. Biketrial txapelketara, esaterako, japoniarrak ere etortzen dira.

Hortaz, maila handia egongo da. Zer gurako zenukete egin?

Lehenengo hamarren artean sailkatzea primeran egongo litzateke, horixe da gure helburua.

GARBITU KOOP. ELK.

*Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
Obra bukaerako garbiketak
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
Kristalen garbiketak*

Errekabarren 3- Behea ARETXABAETA
Tel: 943 79 01 28 / Mugikorra: 606 665 448



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

ZERBITZUAK

Udal
zerbitzuak
zabalik
abuztuan

Herritarrek eskatuta erabaki du Udalak zerbitzu guztiak zabalik izatea

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Oñatiko Udal Zerbitzuak zabalik egongo dira aurtengo abuztuan. Herritarrek horixe eskatu dute, eta eskaerari erantzutea erabaki du Udalak. Horrela, Udaltzaingoa, liburutegia, udaletzeko bulegoak, kiroldegia eta gaztelekua zabalik egongo dira abuztuan. "Udaltzaingoa, adibidez, lehenbiziko aldiz egingo du lan abuztuan goizez eta arratsalde; bi lagun egongo dira txanda bakoitzean. Ahalik eta zerbitzu osoena ematen saiatuko gara udan honetan", azaldu du Lourdes Idoiaga alkateak. Gaztelekua eta liburutegia ere egunero zabalduko dituzte aurtengo abuztuan.

Ondorengo ordutegian egongo dira zabalik udal zerbitzuak: Udaltzaingoa, asteleheneetik egubakoitzera 07:30etik 21:30era eta zapatuetan, 07:30etik 14:30era; udaltzeko bulegoak, asteleheneetik egubakoitzera 09:00etatik 14:00etara eta zapatuetan itxita; liburutegia, asteleheneetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta zapatuetan itxita; gaztelekua, asteleheneetik domekara, 11:00etatik 13:00etara goizetan eta 17:00etatik 20:00etara arratsaldean; Zubikoa kiroldegia martitzeneetik domekara 10:00etatik 20:00etara, eta astelehenean itxita egongo da.

Ordutegi horiek abuztuaren 1etik 31ra iraungo dute. Irailean beste ordutegi bat izango dute.

> ETXEBIZITZAK

Uda ostean jarriko dute San Martingo etxeen lehen harria

Uda ostean jarriko dute San Martingo etxebizitza berrien lehen harria. Uztailean jarri gura zuten, baina erabaki dute uda ostera atzeratzea, Udalak eskatu dielako behin harria jarriz gero obrak jarraipena izatea. Mota ezberdinetako etxebizitzak egingo dituzte San Martingo gunean. Batzuk libreak izango dira eta beste batzuk babesutakoak; horietako lehenak, aurrez zozketatu gura dituzte.

ONDAREA > FATXADA GARBITU ETA KANPANDORREA ARGIZTATU DUTE

Bukatzeaz dituzte San Migel parrokiako berriztatze lanak

Datorren irailean kanpaia konpontzeko eta eliza barruko elektrizitatearen instalazioa hobetzeko lanak hasiko ditu parrokiak berak

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Hilabete honen azken egunetan edo abuztuko lehenengoetan bukatuko dituzte San Migel parrokiaren fatxada berriztatze lanak. Aste honetan egin dute azken bilera Aldundiko eta obrak egiten ari den Donostiako Teusa enpresako ordezkariak. Azken ukituak falta dira orain bakarrik egiteko.

LASERRAREKIN

Joan den urrian hasi zituzten lan horiek eta ekainerako, Gorpuzti jaietarako, bukatu gura zituzten, baina uste baino lan handiagoa zegoela ikusi zuten hainbat guneetan; parrokiako portikoan zeuden irudi batzuk, adibidez, uste baino egoera okerragoan zeudela ikusi zuten teknikariak. Goiangeruak, adibidez, apurtuta zuten eskua dagoeneko.

Irudi hori eta beste batzuk laserrarekin garbitu dituzte, eta horrek atzeratu ditu lanak. Ekainean hasi ziren laserra erabiltzen. "Laserrarekin poliki egin behar da lan. Joan den astean bukatu genuen irudiak laserrarekin garbitzen", azaldu du Aitor Gazteluk, Teusa enpresako teknikariak.



PARROKIA Azken ukituak baino ez dira falta parrokiaren fatxada garbitzeko lanak bukatzeko.

O.E.

LANEN AURREKONTUA

San Migel parrokiaren fatxada zaharberritzeko lanek 724.000 euroko aurrekontua dute. Kopuru horren %50 Aldundiak ordainduko du, %25 Udalak eta gainerako %25a herritarren dirulaguntza bidez ateratzea da asmoa. Don Sabino parrokoaren esanetan, "jendeak oso ondo erantzun dio parrokiaren eskaerari. Oraindik ere dirulaguntzak jasotzen ditugu tarteka. Eskerrak eman gura dizkiet denei", dio.

Udalak, gainera, kanpandorrea kanpotik argiztatze lanak ere egin ditu. "Buka-

tuta daude lan horiek ere, eta irailerako, herriko jaietarako, martxan egongo da", aurreratu du Lourdes Idoiaga alkateak.

Lan horiek bukatu ondoren, parrokiaren bi pareta geldituko dira garbitu barik, Euskadi etorbidera begira dauden bi paretak, hain zuzen ere. Parrokoak eta Udalak baieztatu duten moduan, lan horiek egiteko borondate politikoa azaldu dute erakundeek, baina oraindik ez dute ezer sinatu. Beraz, oraindik erabaki barik dago noiz hasiko dituzten lanak eta nork eta zenbat diru jarri duen hori egiteko.

ARGI SISTEMA HOBETU

Bestalde, eta fatxada berriztatze lanaz aparte, beste bi proiektu ditu egiteko elizak: parrokiako barruko elektrizitate instalazioa hobetu eta kanpaia konpondu. Lan horiek, baina, elizak bakarrik ordainduko ditu.

Parrokoak azaldu duen moduan: "Aldundiak berak eskatzen du toki publikoetan behar bezalako argi sistema jartzea eta horixe egin behar dugu; adibidez, larrialdi irteerak seinalatu behar ditugu. Bestalde, kanpaia ere hondatuta dago. Irailean datoz aditu batzuk ikustera".

Udalak eta Larrañak hitzarmena sinatu dute

Udalak eta Zuzazola-Larraña Institutuak soldadura tailerreko ekipamenduaren lagapenerako hitzarmena sinatu dute. Hemendik aurrera, orain arte Udalak Zubillagako Olaburu zentroan antolatzen zituen soldadura arloko ikastaroak Larraña Institutuak antolatuko ditu bere zentroan. Horretarako, Larrañak INEMen homologazioa eskuratu du; langabeei nahiz langileei eskainiko dizkiete ikastaroak.



GOIENKARIA

OSOKO BILKURA > UDALEKO OSOKO BILKURA

Autobidearen proiektu aldaketari alegazioak egitea eztabaidatu zuten

Kiroldegiko ur hodiak apurtu direla-eta, kreditu aldaketa onartu zuten

Autobideko laugarren proiektu aldaketaren gaineko alegazioak aurkeztu zituzten

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Atzo, eguena, udaleko osoko bilkura egin zuten Eskoriatzako udaletxean, ikasturte honetako azkena. Hala, honako hau Pedro Lasagabaster alkate denetik bigarrena izan zen.

Lehenik eta behin, alkateordeak aukeratu zituzten. EA Eren asmoa zen talde bereko Dorleta Lezeta, Edorta Barandiaran eta Elizateetako zinegotzi Leire Okarantza alkateorde aukeratzeko. Hala, alkatea gaixo edo kanpoan dagoenean, aipatutako ordezkoei izango lituzkete alkatearen eskumenak.

KIROLDEGIAN KONPONKETAK
Eztabaidagai izan behar zuten beste gai bat zen urterako aurreikusitako kredituen aldaketa.

Pedro Lasagabaster alkateak azaldutakoaren arabera, orain dela hiru bat aste kiroldegiko ur hodiak apurtu egin ziren, eta, horregatik, konponketa garrantzitsua egin behar da: "Diru kopuru zehatz bat partidatik aldatu behar izan dugu, kiroldegian sortutako arazo hori saihesteko; bestela, ez daukagu nondik", azaldu zigun Lasagabasterrek. Konponketak 16.000 euro inguruko kostua izango dutela jakinarazi digute.

Telesko herri telebistaren fundazioa ere aztertze asmoa zuten. Aurreko osoko bilkuran fundazioan esku hartuko duten udal ordezkariak aukeratu zituzten. Atzoko osoko bilkuran, berriz, fundazioaren aurrekontua onartzeko asmoa zuten.

Bestalde, Torrebasoan dagoen udal terreno baten mugarritze akta onartu gura zuten. Han kokatuta dagoen mugarri bat lekuz mugitu beharra daukate.

AUTOBIDEARI ALEGAZIOAK
Gaiez aldatuta, autobideko laugarren proiektu aldaketari hainbat alegazio egin dizkiote Onbide elkartek eta Elizateak taldeak. Elizateak taldeak osoko bilkuran eztabaidatu gura izan zituen, bilkuraren atxikimendua lortzeko.

Lehenengoa Zarimutz eta Marin arteko zubiarri dagokio. Auzotarrek eta udal batzordeak zubiaren goialdea egurrezkoa egitea eskatu zuten, baina proiektuaren arabera hormigoizkoa da. Horren gaineko eskaera egin gura dute.

Horrez gain, Zarimuzko tunelarekin lotuta, auzotarrek hainbat arazo dituzte: auzo bide bat oztopatuta dago; argindarreko kableak lurperatu barik geldituko lirake; uraren hornidura sarea ez dago konponduta; eta segurtasun neurriak ez dira konplertu hartu.

Bukatzeke, Agerre eta Arrupe baserrietara joateko bideari konponbidea emateko eskatu dute; eta drainatzeen gaineko hainbat kexa dituzte.

ELIZATEAK

Aukeratu dituzte auzo alkate guztiak

I.B. > ESKORIATZA

Joan den martitzenean eman zioten bukaera udalerriko elizateetako auzo alkateen aukeraketari. Hala, Elizateetako elkarteko zinegotzi Leire Okarantza eta zuzen elizateetako eta Lete auzoko alkate berriak batzartu ziren.

Hainbat elizateetan bozketak egiten dute, buelta bakarrean edo bitan; eta beste batzuetan baserri eta etxe ordezkariek txandatu egiten dira.

LEHENENGO BATZARRA

Auzo alkate batzuek erreplikatu egingo dute, eta beste batzuek lehenengo aldiz hartuko dute kargua.

Hortaz, behin auzo alkate guztiak aukeratu, martitzeneko batzarra elkar ezagutzeko baliatu zuten, lehenik eta behin.

Horrez gain, eta ohikoa duten moduan, atzo, eguena, egiteko auzo udaleko osoko bilkurako gaiak ere berbagai izan zituzten. Horren arabera, Elizateetako zinegotzi Leire Okarantzak zer bozkatu behar duen erabakitzen dute batzar horietan.

Bestalde, joan den urtea ezker aztertze daukaten gaiak ere landu zituzten: hala nola Mendiolako asfaltatzea, Gellao eta Apotzaga arteko bidea eta Leteko harri-lubeta.

Santa Marina ingurunean kioskoaren egitura eginda

Santa Marina ingurunean lanek aurrera jarraitzen dute. Ingurune horretan Udalak hainbat etxebizitzak tasatu egin behar ditu. Horrez gain, bestelako etxebizitzak, libreak, ere egingo dituzte.

Horrekin batera, Udalaren asmoa da bertan plaza berri bat egitea, eta horren barruan ikuskizunetarako, dantzaldietarako edo dena delako ekintzetarako kiosko bat egitea.

Kioskoaren egitura dagoeneko eginda dago, eta datozen asteotan bukatuko dute.



IKER BARANDIARAN

Auzo alkateen zerrenda


Marin	Unai Salaberria
Mazpela	Juan Carlos Beloki
Zarimutz	Alberto Agiriano
Gellao	Iker Akizu
Apotzaga	Garikoitz Ibabe
Mendiola	J.I. Madinabeitia
Bolibar	Iñaki Kortazar
Lete	Bernabe Aperribai

ITURRIA: ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA.

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77
Zure
Zerbitzura



FAGOR

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



> UDALA

Telebista digitalen Arrasateko barrutian sartzeko eskaera

Aurreko astean jakinarazi zuen Eusko Jaurlaritzak telebista digitalen lizentziak zein telebistak jaso dituzten. EAE hainbat barrutitan banatuta dago telebista digitalei dago kienez. Antzuola, baina, ez dago inolako barrutitan sartuta, ezta Elgeta, Leintz Gatza eta Aramaio ere.

Lizentzia banaketaren testuak dio egoera horretan dauden herriek aukera dutela barruti baten sartzeko, horretarako eskaera egiten badute. Eguazteneko osoko bilkuran erabaki zuten Antzuola Arrasate izeneko barrutian sartzeko eskaera egitea.

> ZIKLOTURISTAK

Donostiara irteera egingo dute, maillot berriak estreinatuz

Oraingo astean iritsi dira herriko zikloturista taldeak antolatuta egin dituzten maillotak; gaur, egubakoitza, da maillot horiek jasotzeko azkeneko eguna. 19:00ak eta 20:00ak bitartean Olanan etxera joan behar da maillot horiek jasotzera.

Bihar, zapatua, maillot berriak estreinatuz Donostiara irteera egingo dute. Herriko Plazan elkartuko dira, 09:00etan. Errepidez egingo dute ibilaldia; Debara joango dira lehenengo eta handik Donostiara abiatuko dira, kostaldeko errepidetik.

LARREA**TABERNA**Kalebarren 17
ANTZUOLA**MUJIK A
HARATEGIA**

**Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak**

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

HIRIGINTZA > ALDE ZAHARRA

Alde zaharra asteburuetan ibilgailuendako ixteko asmoa dute Udaleko arduradunek

Irailean hartuko dute behin betiko erabakia, baina asmoa da zapatu eguerdian itxi eta astelehen goizean zabaltzea kaleak

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Buztinzuritik Kalebarrenaraino urbanizazio lanak ia bukatu dituzte; Herriko Plazan azken ukitu batzuk egitea besterik ez da geratzen eta abuztuan amaituko dituzte azkeneko lantxo horiek. Orain, Hirigintza batzordea aztertzen dabil asteburuetan gune hori ibilgailuendako ixtea, oinezkoek lehenetsua izan dezaten.

Pedro Iturbe alkateak hauxe adierazi digu: "Gure asmoa da zapatu eguerdian itxi eta astelehen goizean zabaltzea alde zaharra". Dena dela, irailean hartuko dute behin betiko erabakia.

Udala urbanizazio lanekin hasi zenean, horixe zen helburuetako bat: alde zaharra izatea ibilgailuek eta oinezkoek era egokian



APARKALEKUAK Zamalanetarako bakarrik izango dira plazako aparkalekuak. A.I.

elkarbizitzeko gune bat; hori bai, betiere, oinezkoek lehenetsua emanda.

MERKATARIEKIN BATZARRA

Iturbek azaldu digunez, Udaleko arduradunak eta herriko merkatariek batzarra egitekoak ziren oraingo astean, gai horren gainean berba egiteko; batzarraren helburua da alde zaharreko merkatariei Udalak dituen asmoen

berri ematea eta era berean, merkatarien ikuspuntua eta iritziak jasotzea.

Bestalde, beste neurri bat ere hartuko du Udalak: Herriko Plazako aparkalekuak izango dira bakarrik zamalanetarako. Horrela, astegunetan eta hamabost minutuz bakarrik laga ahal izango dira ibilgailuak plazan, elizaren aurrean dauden aparkalekuetan.

UDALA > EZOHICO UDALBATZARRA

Antzuolako Udal Etxegintzako administrazio kontseilua berritu egin dute osoko bilkuran

Alderdi guztiek izango dute ordezkaritza Antzuolako Udal Etxegintzaren administrazio kontseiluan

A.I. > ANTZUOLA

Ezohiko osoko bilkura egin zuten eguaztenean; hantxe izendatu zituzten Antzuolako Udal Etxegintzaren Administrazio Kontseiluko kideak; honakoak izan-

go dira: Pedro Iturbe, Mamen Jauregi, Jose Mari Iturbe, Joxi Beltran eta Paco Morcillo. Pedro Iturbe alkatea izango da kontseilu horretako lehendakaria. Bestalde, Antzuolako Udal Etxegintzako batzorde orokorra aurreantzean osatuko dute udalbatza osatzen duten zinegotzi guztiek.

GOBERNU BATZORDEA

Eguazteneko batzarrean, alkatearen hainbat dekreturen berri ere eman zuten; horietako baten, alkateak gobernu batzorde berriaren eraketa zehazten du. Hona-koek osatuko dute gobernu

batzordea: Pedro Iturbek (EAE), Patxi Olabarriak (EAE), Mari Paz Ugaldek (EAE) eta Pilar Etxanizek (Zutik-Ezker Batua-Aralar).

BATZORDEAK, LANEAN

Udal berrituan eraturako batzorde informatzaileak hasi dira lehen batzarrak egiten. Aurreko astean egin zuen lehendabiziko batzarra Hirigintza batzordeak; oraingo astean Euskara eta Hezkuntza batzordeak, Kirol eta Gazteria batzordeak eta Kultura batzordeak elkartu dira. Gainerakoak irailetik aurrera hasiko dira lanean.

bere ustez



Iraia Gabilondo

Segurtasun askatasun gabetzailea

Segurtasun hitzaren esanahia ulertzen saiatu naiz, baina lortu dudana ondorioa hauxe da: historia guztian herriari eskeini zaion eta inoiz lortu ezin izan den kontzeptua dela. Nola lortzen da segurtasuna? Poliziarekin, zigor gogorra goekin? Hona erakusgarria den adibide bat: diligentzietan bidaiatzen zen garaietan sabotaia asko gertatzen ziren. Errege batek dekretu bidez agindu zuen sabotaia egileei heriotza-zigorra ezarri behar zitzaizela.

"Segurtasunaren izenean, daukagun askatasun apur hori galtzera iritsi gaitzke gaur egun"

Aginduaren hasierako helburua eta lortutakoa erabat ezberdinak izan ziren: sabotaia bidaiari guztiak hiltzen hasi ziren zigor gogor hura sahisteko. Beraz, zigor gogorrekin ez da segurtasuna lortzen. Poliziaren bidea erabiltzen badugu ere, garbi ikus dezakegu polizia asko dagoen lekuetan arazo gehiago egoten dela, eta gehiengoak logikoa dela pentsa dezake, arazoak badaude poliziak konponduko ditu; baina izan daiteke alderantziz, arazo txiki bat egon, polizia bidali eta izugarritzko arazoa sortzea. Segurtasunaren izenean txorakeria asko egiten da, eta agian handiena daukagun askatasun apur hori galtzeko gai izatera irits gitezakela.

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

TRANSFORMADOREAREN AUZIA > ARALARKOEK "JUGADA MALTZURRA" EGIN DIETELA DIOTE

Edurne Alberdi: "Ez diogu gure poltsikoari begiratu, hori argi geratzea nahi dugu"

Konpromisoa hartu arren, salatzen dute Aralarrek ez zuela eurekin bilerarik egin proposamena osokora eraman aurretik

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

"Ikusirik herrian zelako iskanbila sortu duen transformadorearen auziak, argitu nahi dugu lehenengo eta behin ez diogula sekula gure poltsikoari begiratu". EAE-ANVko zinegotzi Edurne Alberdiren hitzak dira. "Proposamena bi zatitan bozkatu nahi genuela esan genuen plenoan, transformadorearen leku aldaketaren kostu lasaia erabaki zitekeela ere

bai. Aralarren proposamenaren kontra bozkatu genuen, baina ezta gutxiagorik ere gure poltsikoari begiratu geniolako. Finantziarioaren proposamena Hazienda batzordetik pasa nahi genuelako baizik. Batzordean aztertu eta irtenbide egokiena emateko. Hori izan zen proposamenaren kontra bozkatzearen gure arrazoia".

LEHENTASUNA, LEKU ALDAKETA

Edurne Alberdik argitu du, halaber, Elgetako EAE-ANVren lehenetasuna transformadorearen leku aldaketa onartzea zela. "Ez genuen inondik inora transformadorea Andra Mari kooperatibari erositako lursailean gelditzerik nahi. Espero dugu irailean gauzak bere onera itzultzea eta finantziarioari aurre egiteko formulak azter-

tzeko aukera izatea. Zinegotzientz soldatak ukitu behar diren, alkatereana edo bestelako formula posibleak aztertze".

ERABAKIAK BATZORDEETAN

EAE-ANV, azkenik, argitu nahi izan du erabaki guztiak batzordeetan aztertze konpromisoa hartu duela Aralarrek eurekin egindako gobernu akordioan. "Urgentziatzeko gai hau lantzeko egindako Hirigintza batzordean Aralarrek transformadorearen leku aldaketaren kostua jakin eta udalbatzararen aurretik beste alderdiok bilerara egiteko konpromisoa hartu zuen", salatzen dute. "Ez ziguten eman plenora eramandako proposamena taldean aztertze betarik. Jugada maltzurra egin zigutela uste dut nik".



ZEZILIO TOTORIKAGUENA

Erretiratuen festa eguna, Arraten

Urteroko hitzordua dute Elgetako erretiratuek Arraten. Hilaren 19an, eguna, egin zuten Debabarreneko erretiratuen festa eguna. Elgetatik 18 lagun joan ziren. Meza entzun, Krabelin jatetxean bazkaldu, jokoak egin eta dantzan aritu ziren, eguraldia okertu eta etxera etortzeko erabakia hartu zuten arte. Gustura ibili zirela esan digute.

ELGETA FUTBOL TALDEA > HURRENGO DENBORALDIKO HELBURUA, MAILAZ IGOTZEA

Jokalari berriekin taldea indartu egin dela-eta, mailaz igotzea du helburu Elgetako taldeak

Javier Bolinagak hartu du presidente kargua eta Jon Caballero eibartarrak egingo ditu taldean lehenengo entrenatzaile lanak

L.Z. > ELGETA

Hilaren 20an, barikuan, egin zuten Elgeta Futbol Taldekoek lehenengo bilera. Bertan, zuzendaritza batzorde berriaren aurkezpena egin zuten. Jokalariak, gainera, denboraldirako asmoen berri jaso zuten.

Javier Bolinagak hartu du presidente kargua. Juan Ramon Irazabal eta Jose Maria Zubiaurre, berriz, idazkaritza zein diru kontuez arduratuko dira. Zuzendaritza batzordea Carlos Fernandezek, Paco Llamasek eta Haritz Gallastegik osatuko dute.



LEHENENGO BILERA Jokalariak eta zuzendaritzakoak Mendi Mendia elkartearen. L.Z.

ENTRENATZAILE BERRIA

Guztiz itxitako kontua ez izan arren, taldeak 22 fitxa egitea aurreikusten du. Dozena bat jokalaririk elgetarrak izango dira eta hamar bat Eibartik etorri berriak.

Entrenatzaile lanetan, aurretik, Jon Caballero eibartarra arituko da. Asier Castelosen laguntza izango du zeregin horretan. Abuztu erdialdean ekingo diote aurre-denboraldiari.

> ABUZTUAREN 6AN, SALBADOR KALEKO JAIK

Haizea eta Patxi tabernetan dagoeneko salgai daude herri afarirako txartelak, 15 eurotan

Salda eta pintxoak banatuko ditu Jai batzordeak 12:00etan. Ermitan meza esango dute 12:30ean. Jarraian, hiru txirilo txapelketa eta sokatiran egingo dute. Salbador kalekoek gainontzeko kaleen kontra egin nahi dute sokatiran. 15:30ean igerilekua jarriko dute Maa-lan. Gauean, herri afaria eta Gardokiren erromeria izango dira.

> ASTEBURUAN SANTIXAO JAIK GOIMENDI AUZOAN

Ekitaldi nagusiak domekan egingo badituzte ere, zapatuan jaien hasiera eta erromeria egingo dituzte

Zapatuan hasiko dira jaiak. Berakatz zopa banatuko dute 21:30ean eta erromeria egingo dute jarraian Laja II.ak eta Unai Narbaizak. Domekan, 11:00etan, meza entzungo dute ermitan. Jarraian, soka dantza eta bertso saioa egingo dira. Bertsolariak Joxe Agirre eta Imanol Lazkano izango dira. 18:00etan, herri kirolen erakustaldia egingo dute Mugertza eta Elorriaga aizkolariek eta Haimar Irigoien harri-jasotzaileak. 18:30ean boleta txapelketa egingo dute eta 19:00etan, azken bertso saioa entzuteko aukera izango da. Amaizteko, erromeria egingo dute Epelde eta Lutxurdixo soinu jotzaileek.

> UDAL ORDUTEGIAK ABUZTUAN

Elgetako udaletxea zabalik egongo da abuztuaren eta kiroldegia eta liburutegia, ordea, itxita

Udaletxea zabalik egongo da udan. Abuztuaren 6tik irailaren 3ra arte, ordea, txirrina jo beharko da barruan 08:00etatik 14:00etara lanean arituko den teknikariarekin hitz egiteko. Kiroldegia eta liburutegia itxita egongo dira. Frontoia zabalik, 10:00etatik 22:00etara.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53

Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13



RECYDE, S.A.

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

Aperribay, s.l.

Marmoldegi
eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA



ELKARRETARATZEA Aramaion egindako AHTren kontrako elkarretaratzea.

GOIENKARIA

Bihar, zapatua, manifestazioa deitu dute. 18:00etan izango da, Urbinan. Aramaioko kanpalditik 16:30ean abiatuko da harako autobusa

AHT > KANPALDIA

Gaurtik abuztuaren 5era arte iraungo du AHTren kontrako kanpaldiak

MIREN ARREGI > ARAMAIO

Gaur bertan emango zaio hasiera AHTren aurkako kanpaldia-ri Aramaion. Herri askotariko jendea elkartuko da Abiadura Handiko Trenak ingurumenearan eragingo dituen kalteei erantzun bat emateko. 19:00etan Bertso poteoa hasiko da Iker Agirre, Manex Agirre, Jokin Labayen eta Ander Solozabal

bertsolarien eskutik, eta 22:30ean kanpaldiko batzarra egingo dute. Gainontzeko egunetarako ere programazio indartsua prestatu dute antolatzaileek. Hitzaldiak, manifestazioak, mendi ibilaldiak, ibilaldiak, antzerkiak, tailerrak, ikuskizunak eta abar. Abuztuaren 5ean, kanpaldiaren azken egunean, Aramaioko udaletzeko plazan

egingo dute parte-hartzaileek kanpaldiaren balorazio batzarra.

KONTZERTU UGARI

Kontzertuak eta musika talde askoren doinuak entzuteko aukera ere egongo da egunotan Aramaion. Hala nola datorren astelehenean, hilaren 30ean, Sociedad Corrupta, Paralisis Cerebral, Pes-

ticida eta Extorsion taldeek joko dute; eguaztenean Volando Boys taldearen txanda izango da eta barikuan, abuztuaren 3an hain zuzen ere, Kagando Blando, Asto Pitoak eta Mal de Ojo izango dira entzungai. AHTren aurkako kanpaldia topagune autoorganizatu izango da, eta, beraz, bertan biltzen direnen artean txandakatu dira mantentze-lanak.

UDALA > OSOKO BILKURA

Osoko bilkurako gaiak, onartuta

Eguaztenean egin zuten agintaldi honetako bigarren ohiko osoko bilkura

MIREN ARREGI > ARAMAIO

Hainbat gairen inguruan eztabaidatu zuten Aramaioko osoko bilkuran. Lehenik eta behin, Eguzkierripako azpiegitura lanen bigarren ziurtagiria onartu ala ez eztabaidatu zuten. Bestetik, zenbait udal zerbitzuri luzapenak ematea eztabaidatu zen; izan ere, kale garbitzaileen eta lorezainen gainean kekak izan dira. Horre-

gatik, emango diete sei hilabete-ko luzapen epea, Udalak egoera zertan den aztertzeke. Gainera, kanpoan ikasten diharduten aramaiorrei dirulaguntzak ematea ere aztertu zuten, baita Arrasate Musikalen ikasten dihardutenei ere. Azkenik, telebista digitala ikusteko eskaeraren onarpena ere eztabaidatu zuten. Gai guztiak onartu ziren osokoan.



OSOKO BILKURA Legealdiko bigarrenena egin zuten eguaztenean.

I.A.

> OSPAKIZUNA

Irailean ospatuko da Sagardogileen Eguna Aramaion

Aurtengoa Txirritola Euskara Elkarteak Sagardogileen Eguna antolatzen duen laugarren aldia izango da. Ez dago ziur zein egunetan ospatuko den, baina, aurrerapen gisa, iraileko hirugarren aste aldera egingo dela esan genezake. Egun polita izaten da Aramaion Sagardogileen Eguna ospatzen duteneko hori, eta herriko talde eta pertsona ugari hartzen du parte. Besteak beste, dantzariak, bertsolariak eta trikitilariak ikusi ahal izango dira, eta Gazte Asanbladak ere izango du bere tartetxoa. Aurtengo berrikuntzetako bat izango da sagardogileak eurak arduratuko direla postuak herrian barrena ipintzeaz.

> MUSIKA

Ibarrako San Martin elizan organo kontzertua abuztuaren

Kontzertua abuztuaren 10ean izango da, Ibarrako San Martingo elizan. Organo jotzailea Joxe Benantzi Bilbao izango da, Mundakan jaiotako musikaria. Piano, klabe, organo, kantu, abesbatzen zuzendaritza eta antzinako musikako ikasketak egin zituen Europako hainbat kontzertuoriotan. Hainbat sari irabazi ditu, besteak beste, Donostiako goi mailako musika kontzertuoriorio ikasketen amaierako ohorezko saria jaso zuen, organoaren alorrean.

Arabako 22. organo jaialdiaren parte da Aramaioko Ibarren egingo den kontzertua. XVI. mendean hasi eta XIX. mendera arteko obrak joko ditu Jose Benantzi organo jotzaileak.

> INFORMAZIOA

Nardeaga kaleko okindegiak ogia egiteari utziko dio

Hala beharko du izan, aurreko udalbatzak joan den abenduaren 22an hartutako erabakiaren ondorioz. Antza denez, okindegikoek denda ostean duten biltegi baten egiten dute ogia, eta biltegiak ez ditu legeak ezartzen dituen oinarriko baldintzak betetzen. Hori dela eta, datorren uztailaren 31tik aurrera Nardeaga kaleko okindegiok biltegia ezin izango da erabili ogia egiteko. Hori bai, ogia saltzen jarraitu ahal izango dute, baina beste tokiren baten egin edota beste toki batetik ekarri beharko dute. Udalak jakinaren gainean jarri gura ditu herritarrek.

ANDRAMAIXAK > IRAILAREN 7TIK 9RA

Hiru eguneko jaiak antolatu ditu Udalak, eta hainbat berrikuntza izango dira

Azken urteotan legez herri afaria egingo dute zapatuan, irailak 8, eta txartelak aurrez erosi beharko dituzte interesatuek Labidea dendan edo herriko edozein tabernatan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Irailaren 7tik 9ra bitartean ospatuko dituzte gatzagarrek Andramaixa jaiak, eta Kultura Sailak dagoeneko gertu dauka egitaraua. Ohiko ekitaldiekin batera berrikuntzak izango dira.

ITZAL ZUBILLAGAREN IRUDIA

Jaiak iragarriko dituen horma-irudia aukeratzeko lehiaketa deitu zuen Udalak, eta hiru aurkeztu zituzten. 7 urte dituen Itzal Zubillaga Alberdi neskatoarena aukeratu dute epaimahaiko kideek, eta buruhandi bat neska baten atzetik dabilela agertuko da egitarauko azalean: "Buruhandiak oso gustuko ditudalako egin dut", azaldu digu irabazleak. Saritxoare jasoko du Zubillagak.

LAU TALDEREN KONTZERTUAK

Aurtengo jaiak aste bukaeran ospatuko dituzte, eta hiru egun bakarrik izango dira. Hala ere, ekitaldiz gainezka datoz hiru egunok, Kultura zinegotzi Aina Zubillagak esandako moduan: "Aste bukaeran izatean egun gutxiago dira, baina egun bako-



HORMA-IRUDIA Neskatoaren atzetik dabilen buruhandiaren marrazkiak iragarriko ditu Andramaixak.

ITZAL ZUBILLAGA

tzean ekitaldi gehiago. Gainera, pentsatu gura dugu jende gehiago hurreratuko dela gurera".

Egubakoitzean, irailak 7, hasiko dituzte jaiak Raflen ezkila emanaldiarekin, eta ohi bezala bederatziruena izango da Dorletako santutegian. Bukatutakoan gazta eskainiko diete elkartutako guztiei, trikitilariak tertulia girotzen

dieten bitartean. Gauean lau talderen kontzertuak izango dira Herriko Plazan: The Crackers, Agressive Combat, Doubling Boys eta Never Surrender. Gazte asko joango dela pentsatuta, txerri harrapaketa antolatu dute 01:00etarako, eta adardunak eta poneyak egongo dira 04:00etan: "Adardunak iaz ere egon ziren, eta,

jende askorik ez egon arren, giro polita izan genuen. Horregatik, aurtun, txerri harrapaketa jarri dugu aurretik, jendeak alde egin ez dezan", azaldu du zinegotziak.

BOLO TXAPELKETA BERRESKURATU

Irailaren 8a Dorletako Amaren eguna da, eta meza nagusia izango dute santutegian, Eskoriatza-

ko abesbatzak lagun eginda. Aurretik, baina, otxandiarrei ongietorria egingo diete, urtero legez. Eguerdi partean, adardunak izango dituzte berriro ordu txikitari ibili ez zirenek, eta arratsaldean umeendako jolas parkea eta mus eta briska txapelketak egongo dira: "Musa bakarrik izan dugu orain arte, eta gizonak bakarrik jokatzeko zuten; hortaz, briskan egiteko aukera emango diegu aurten emakumeei", esan du Zubillagak.

Gau partean herri afaria egingo dute, eta txartelak aurrez hartu beharko dituzte herritarrek, Labidean edo herriko edozein tabernatan. Afalostea, bestalde, Laiotz taldeak girotuko die. Bolo txapelketa berreskuratu gura izan dute, gainera, eta guerdia inguruan jokatu dute. "Galtzontzilo lasterketa egingo dugu guerdia pasatutakoan, inoiz egin izan dugun moduan; ea jendea animatzen den...".

TORTILLA TXAPELKETA

Irailaren 9a mendi bizikleta zeharkaldiarekin hasiko dute, eta 11:30ean puzgarriak izango dituzte umeek. Domeka izanda, meza esango dute santutegian, eta ostean txikiteoa egingo dute Batukadak alaituta. Tortilla txapelketa antolatu dute domeka eguerdirako: "Norberak ekarri beharko du etxetik, eta onena hautatu ondoren tabernetan jarriko ditugu jateko", azaldu digu Zubillagak.

Arratsaldean pilota partiduak izango dira eta jaiak bukatzeko jazz musika lantzen duen taldeak jardungo du.

> GATZ MUSEOA

Museoa zabalik abuztuan, eguztenetik domekara bitartean

Eugenio Otsoa Gatz Museoa zabalik egongo da abuztuan, baina ordutegia aldatu diote arduradunek. Hala, astelehen eta martitzenetan itxita izango dute; eguztenetik domekara bitartean, ostera, zabalik, goizetan. Hona bisitak hartuko dituzten orduak: 11:00ak, 12:00ak eta 13:00ak. Urte guztian moduan, aurrez hitzordua egiteko aukera ere badago, 943 71 47 92 zenbakira deituta.

Turismo bulegoa den Labidea denda ere zabalik izango dute abuztuan. Hona ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 13:00etara eta 17:30etik 21:00etara; zapatu eta domeketan, 10:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 21:00etara.

Aureskua egin ostean, guztiak dantzan plazan

Giro paregabean ospatu izan dituzte beti Andramaixak Gatzagan, eta horren erakusgarri da 1953. urte inguruan ateratako argazkia. Irailaren 8an, Dorletako Amaren eguna, aureskua egiten zuten dantzan lehenengo eta ostean, danbolin hotsei jarraituta, neska eta mutil, guztiak hasten zirela dantzan esan digu argazkian ageri den Amaia Agirregabirriak. Plaza zaharrean hainbat lagun dabilta dantzan, eta hona aurrez aurre agertzen direnak: Eskoriatzako Jose Mari Legorburu eta Gatzagako Justo Arana, Amaia Agirregabiria eta Ana Mari Gesalaga.



GATZAGAKO UDALA

> 4X4 ERAKUSTALDIA

Irailaren 22an egingo dute 4x4 ibilgailuen erakustaldia

Eskoriatzan dagoeneko galdu ezineko kirol hitzordu bilakatu da 4x4 ibilgailuen erakustaldia. Hala, antolatzaileek dagoeneko egin dute aurten-go hitzordua: irailak 22. Hainbat debagoiendarrek hartuko dute parte proban, baina urtero moduan, kanpotik ere gidari asko etorriko dira.

> FUTBOLA

Irailaren 8ko eta 9ko asteburuan hasiko da Preferentea

Gipuzkoako Futbol Federazioak oraindik egutegi ofiziala aurkeztu ez badu ere, preferenteko Mondrak, Aloñak eta Aretxabaletak irailaren 8ko eta 9ko asteburuan hasiko dute liga. Gainera, irailaren 1ean jokatuko dute hiru talde horiek Arrasate Hiria futbol txapelketa.

> TXIRRINDULARITZA

Irizarrek ez zuen saririk jaso Ordizian egindako ihesaldian

Atsedendaldia eta gero, Markel Irizar eta Iban Velasco Ordiziako klasikoan izan ziren eguaztenean. Irizar etapako ihesaldian sartu zen, eta hiru minutuko abantaila izan bazuten ere, Abaltzisketa hirugarrenez igo zutenean bat egin zuten tropelarekin. Joaquin Rodriguez izan zen irabazlea.

> TXIRRINDULARITZA

Ibarreko lagun mordoia ibili da Tourra zuzenean jarraitzen

Debagoiendarrez betetako autobusa abiatu zen joan den astean Pirinioetara, pare bat etapa ikustera –Lizarraldeko urtero antolatzen duen irteera–. Horrekin batera, eguazteneko etapa ere zuzenean jarraitu zuten ibarreko lagun askok, lasterketa Euskal Herritik igarotzen zela aprobetxatuta.

> TXIRRINDULARITZA

Kadete mailakoek asteburuan amaituko dute denboraldia

Martxoan denboraldia hasi zutenetik, Bergarako Sumofic taldeko eta Dorletako Amako kadeteek ez dute atsedunik hartu, asteburu izan dituzte lasterketak.

Hala, oraingo asteburuan izango dute denboraldiko azkena, Azpeitian. Txirrindulariek 67 kilometroko ibilbidea bete beharko dute.

PARAPENTEA > IBARREAN HEGAN

Kurtzebarritik aireratuta, Urkulu gainean hegan

ONA EGIN DUENEAN Uztailan zehar batek baino gehiagok aprobetxatu du Urkulu gainean hegan egiteko

PARAPENTEA Ibiltzen direnek diote kirol segurua dela, betiere gauzak behar den moduan egiten badira

INGURUAN, BAI Aloña eta Kurtzebarri dira parapentean ibiltzeko inguruko leku aproposenak

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA Eguena, Uztailak 5, 18:00ak. Sekulako eguraldia egiten du, eta Arrasateko Andoni Azua eta beste hainbat lagun dagoeneko Urkulu gainean dabilta, Kurtzebarritik aireratuta, hegan. Haiek abantaila izan dute, 4x4 autoan igo dira-eta. Jon Iriarte *Takolok*, hegan dabiltzan lagun moduan gozatzeko, lehenago izerdia bota beharko du, oinez igo beharko du-eta tontorrera. Hala, Peñakuloraino autoan joan eta gero, 17 kiloko motxila bizkarrean hartuta –parapentea, kaskoa, arnesa, irratia...– poliki-poliki ekin dio tontorrerako bideari.

Bidean gora, Iriartek hegan dabiltzan irratietako interferentziak jasotzen ditu, baina ez du haiekin berba egiterik lortzen, ez daki-eta ze frekuentzian dabiltzan. Hiruzpalau lagun dabilta, eta Arrasatekoa dagoeneko urduritzen hasi da: "Ea haizeak ez duen behera egiten, bestela hamar minutuan Urkulun izango naiz berriro ere". Izan ere, gaua geroago eta gertuago dago-

enean haizeak behera egiten du: "Eguzkiak lurra berotu egiten duelako gertatzen da efektu hori; haize gehiago ibiltzen da, alegia".

LEKU EZAGUNETAN, HOBETO Parapentean ibiltzerakoan, hegan egin behar den ingurua ezagutzea abantaila handia da: "Ez da gauza bera kostaldean edo mendian ibiltzea, edota ezagutzen duzun leku batean edo zona ezagun batean hegan egitea. Zona bat ezagutzeak asko egiten du, besteak beste bertako haize korronteen berri izaten dugulako. Esaterako, alde handia dago mendi tontorretik aireratu edo itsasertzean ibiltzearen artean. Itsaso ondoan egiten diren saltoak, normalean, lasaiagoak izaten dira, mendian haizea boladaka ibiltzen da-eta".

Ibarrean, Kurtzebarri eta Aloña dira parapentean ibiltzeko leku aproposenak, nahiz eta Udaltzek ere ematen duen horretarako aukera. Uztailan zehar, esaterako, Elorrioko parapente taldekoek hainbat aireratze egin

"Parapentean ibiltzen ikasteko eskola asko daude inguruan; gainera, 80 euro inguru ordainduta badago profesional batekin bi laguneko parapentean ibiltzeko aukera ere"


"Euskal Herria ez da zeharkaldiak egiteko leku aproposena, hemen bailara oso itxiak ditugu-eta; baina badago Anbototik Azazetara joan denik"



OINEZ GORAINO Iriartek oinez igo behar izan zuen Kurtzebarri, 17 kiloko motxilarekin. Ondoan, Andoni Azua parapenteari eusten, aireratzeko gertu.



XABIER URTZELAI



URKULU GAINEAN Kurtzebarriko tontor ondoko zel...

dituzte Udaltzetik. Baina, meaztzeetan hasi dute hegaldia, ez tontorrean.

KONTUAN IZAN BEHARREKOA Badirudi parapentea gidatzeak ez duela aparteko zailtasunik, kometa handi batekin ibiltzea da, azken batean. Baina kirol horrek, atzean, oso kontuan izan



aiari aireratuta, uztail hasieran hainbat lagun ibili ziren Urkulu gainean hegan; erretratuan, Jon Iriarte arrasatearra.

XABIER URTZELAI

beharreko hainbat elementu ditu: "Nahiko konplexua da, eguraldia, presioa, korronteak, haize poltsak, lainoen gorabeherak... Azken batean, kirol hori hegan egitea baino gehiago da". Kontuak kontu, Iriartek argi utzi gura izan du kirol segurua dela: "Behar den moduan ibiliz gero, ez dago zertan arriskurik

egon. Hori bai, garrantzitsua da materiala ondo zaintzea, aireratu aurretik gauza guztiak lasaitasunez prestatzea, ze eguraldi egiten duen ikustea eta abar".

PROBATZERA ANIMATU

Debagoienean, orain dela urte batzuk modan egon zen kirol hori, baina Iriartek onartu digu

gaur egun lagun gutxi ibiltzen direla ibarrean parapentean. Hala, Arrasatekoa duela hiru urte hasi zen: "Betidanik gustatu izan zait hegan egitea, eta, nire kabuz bada, askoz hobeto. Hori horrela, parapentean ibiltzeko ikastaro bat egin nuen -350 euro inguru balio du-, eta parapentea erosi nuen gero. Orduetik hona

Arrasatekoa Euskal Herrian eta Pirinioetan ibili da hegan: "Urduñara joaten gara askotan, jende asko ibiltzen da-eta han. Pirinioetan, berriz, Castejon oso ondo prestatuta dago: mendira igotzeko autoak jartzen dituzte, eta leku oso ona da hegan egiteko. Han, adibidez, jendeak azaldu egiten du ze ordutan komeni

den hegan egitea, lur hartzerakoan ze zailtasun izan ditzakegun... Oso giro ona egoten da".

Hala, kirol hori probatzeko asmotan dabilenarendako gomendio batzuk eskatu dizkiogu: "Hasteko, parapentean ibiltzeko ez da behar aparteko prestakuntza fisikorik, edonork egin dezake. Eta, ikastaroak egiteko eskola aske daude inguruan: Donostian, Gasteiz aldean, Urduñan... Hala, ikastaroa egin aurretik beste lagun batekin hegan egin gura duenak ere badu horretarako aukera. Urduñan, esaterako, 80 euroren truke 20 minutuko hegaldia egin daiteke bi laguneko parapentean. Azkenik, materiala erosteko orduan, esan behar da parapente batek 2.200 eurotik gora balio duela. Hori bai, kontuan izan kirol horretan hasten dena egunero ibiltzen dela zerura begira".

ZEHARKALDIK BURUAN

Hainbat lekutan hegan egin eta gero, Iriartek dagoeneko zeharkaldiak ditu buruan: "Helburua ehunka kilometro hegan egitea da, lurra ukitu barik, noski. Hemen gaitza da zeharkaldiak egitea, bailara oso itxiak direlako, errepideak, pinudiak, argindar-zutoinak... Hala, badaude Anbototik Azazetara (Araba) hegan joan direnak, edo Baiguratik (Iparraldea) Galarretara (Araba) egin dutenak ere. Entzun dudanez, Pirinioak bi etapatan zeharkatzeko asmotan dabilta batzuk. Eta bai, horrelako distantzia luzeak egiteak ederra izan behar du".


HAIZE HANDIA

Tontorrean haizea gogor dabil. Eta, dagoeneko lur hartuta, mendi-mazelaren babesean dauden parapente-zaleengana gerturatu da Iriarte: "Orain haize handia dabil, berriro hegan egiteko itxaron egin beharko dugu", esan dio Azuak. Beste kide bat, baina, salto egiteko prestatzen dabil. Metro batzuk behera egin, malda handiko zelaian parapentea zabaldu eta puztu duenean, buelta erdi emanda hegan aldendu da. Hori ikusita, gainontzekoak ere martxan hasi dira: motxila handietatik material guztia atera, arropa aproposa jantzi, parapentea zabaldu, sokak ondo ipini, arnasa lotu, eta, konturatu ordurako, hegan dira denak.




MATERIALA PRESTATZEN Parapentean ibiltzeko kontu handiz prestatu behar da dena; eskumako erretratuan, uztail hasieran zelako eguraldia egin zuen erakusten duen panoramika.

XABIER URTZELAI



Jatetxe Gida



Azpeitxi jatetxea

Aranerrika 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Astelehenetan itxita



Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

Txinatar jatetxea

Eskaintza

- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

Eguneko menua eta karta



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Gure Ametsa

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

Eskaintza

- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

Astelehenetan itxita



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Taberna-Berri

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

Eskaintza

- Menua
- Afari informalak



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitaratekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandeetan itxita

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> KULTURA

Film emanaldiak abuztuan, Bergaran eta Arrasaten > 37



> KOMUNIKAZIOA

Debagoiengan ere badira Harry Potterren jarraitzaileak > 43

> LEIRE ERRASTI

Eskoriatzarra Ingeniaritza ikasketak bukatzen dabil. Emaus fundazioan eskolarako egin duen proiektua aurkeztu du: ura aurrezten lagutzen duen landarea > 42



GORLAKO KANTINA (BERGARA)

PIKULITXA ROOTS

Dantza eta Sentimentua

Reggae gaua Gorlako Kantinan

LAUGARREN ALDIA

Bihar, zapatua, 20:00etan hasiko da jaia eta goizaldera arte iraungo du

URTEURREN FESTA

12 Tribu taldeak aurten 12 urte bete dituela-eta lagunarteko festa izango da





12 TRIBU Ez da Bergarara datozen lehenengo aldia; Pazkoetan, esaterako, kontzertua egin zuten goiko irudian ikusten den bezala.

12 TRIBU

Reggae gaua Gorlako Kantinan

A. ARANBURUZABALA > BERGARA

Azken urteotako ohiturari jarraituz, bihar izango da Pikulitxa Roots jaialdia Gorlako Kantinan. Reggae doinuak oinarri dituen jaialdia da; 20:00etan hasiko da eta eguzkia atera bitartean iraungo du. Doan da, eta nahi duenak kanpatzeko lekua ere izango du.

Gaupasa eder baterako proposamena egin du aurten ere Iñaki Gabilondok, Gorlako Kantinakoak. "Tokiak berak eskatzen du horrelako ekitaldiak antolatzea, eta horregatik hasi ginen orain urte batzuk; era berean, ibarrean musika proposamenak badauden arren, reggaeaz gozatzeko aukera handirik ez da izaten. Aurreko edizioetara hurbildu den jendeak erakutsi digu musika horrekiko zaletasuna badagoela ibarrean". Aurreko edizioetan, baina, ibarreko musikazaleez gain, Zaragoza, Madril, Dax eta Bartzelonatik ere etorri dira.

12 TRIBUREN URTEURRENA

Aurtengoa laugarren edizioa izango da eta 12 Tribu reggae-roots talde gipuzkoarraren hamabigarren urteurrena ospatzea izango du helburu nagusi. 12 Tribu taldeko Fernando Trebiño *Konsul* abeslariaren esanetan, aurreko edizioetan jaialdian parte hartzeko eskaintza jaso izan dute, baina agenda beteta izateagatik ezin izan dira orain arte Gorlako agertokian izan. "Aurtengoa taldearentzako urte esanguratsua da: batetik, 12 urte bete dituelako; eta, bestetik, partaide kopurua 12 lagun izatera heldu delako. Taldearen izena eta izana, beraz, bateratzea lortu dugu".

Zerbait berezia egiteko asmatan, bada, aurrez ezagutzen zituzten taldeekin harremanetan jarri ondoren Gorlako Kantinara jo zuten. Proposamena gustuko, egoki, ikusi zuten antolatzaileek, aurtengo jaialdirako egitaraua urteurren horrekin bat egitea. *Konsul*-en esanetan, irailean laugarren diskoa grabatuko dute, Santanderko Alone Ark diskoe-txean. Hala, bihar eskainiko duten kontzertuan abesti berriak ezagutzeko bidea izango da eta baita aurreko diskoetako kantuekin gozatzeko aukera ere.

Hala ere, reggae doinuak badira jaialdiaren ikur, flamenkoa ere izango da; izan ere, iazko topaketan izan ziren Tarasca Flamenca taldeak zabalduko du egitaraua. Hainbat tokitako jendez osatuta dago taldea da, eta, horregatik, munduko flamenko moduan definitzen dute egiten duten musika.

MUSIKA MARATOIA

Musika maratonia izango da, antolatzaileen esanetan, geldiuenerik ez izatea da-eta asmoa.

Gaueko hamarrak eta laurdenetan, Makala, Mikel Untzurruntzaga, disko jartzaileak hartuko du lekukoa. Curriculum zabala duen musikaria da; baxu jotzailea, abeslaria eta ekoizlea ere bai. Azken zortzi urteotan, besteak beste, Donostiako Etxekalte klubean ere jarduten du musika jartzen.

Zaragozako Trackattack Selectahs bikotea izango da taulagainean hurrengoa. Euskal Herrian eskainiko duten lehenengo emanaldia da. Bi mutil gazte dira, baina musikagintzan esperientzia oparoa dutenak. Reggae klasikoa egiten dute.

Revolutionary Brothers Donostiako bi anaiak osatzen duten bikotearen txanda izango da gero. Bikoteak musika jartzen

duen bitartean, estilo ezberdina jorratzen duten abeslariak izango dira eurekin kantuan, txandak. Hori horrela, King Consul zarauztarrak, 12 Tribuko abeslaria denak, reggae klasikoa ukitua emango dio; Sistah Katak, arima beltza duen Irungo neska musikariak, soulaz jantziko ditu abestiak; eta hirugarren abeslariak, Maese Trucco lugotarrak, hip-hop pintzeladak emango dizkie abestiei.

MIKROA ESKURAGARRI

Jaialdia borobiltzeko, Big Jam Session izango da. Hainbat talde-tako musikariak nahastuko dira. Inprobisaziorako tartea izango da hori. Kantu ezagunak oinarri hartuta, musikaz jakinduria apur bat duen edozeinek izango du taula gainera igo, mikrofonoa eskue-tan hartu eta kantatzeko aukera.

Iragarritakoez gain, sorpresa gehiago izango direla aurreratu dute antolatzaileek. Esandako moduan, sarreraren salneurria ezingo da aitzakia moduan erabili, musika emanaldi guztiak dohainik izango dira-eta. Hurbildu nahi duenak kanpin-denda eramateko aukera izango du; baina jatekorik ez du derrigorrean eraman behar izango, Kantinako Iñaki Gabilondoren esanetan afa-riak zerbitzatuko dituzte-eta. "Menu sinpleak, azkarrak izango ditugu. Zerbait jan nahi duenak, bada, izango du aukera, alde aurretik txanda hartu edo enkargurik egin gabe".

Gorlako Kantinak Jamaikaren itxura hartuko du, bada, bihar, musika dantzagarria eta ke aromatikorik faltako ez den hitzorduan. Egitarau oparoa, leku aproposa eta gaua ere berezia izango da; izan ere, ilargi betea ez baina, bezperatan gaudenez, ilargi handiaren argipean izango garelako!

Musika beltza oinarri duten taldeak

> TARASCA FLAMENCA

Hainbat tokitako musikariek osatzen duten taldea. Munduko flamenkoa egiten dute. Iaz ere Pikulitxa Roots jaialdian izan ziren.

> TRACKATTACK SELECTAHS

ReggaeSession, Zaragoza. Reggae klasikoa egiten dute. 19 eta 27 urteko esperientzia handiko musikariek osatzen duten bikotea. Lehenengo aldiz Euskal Herrian. 12 Tribukoekin truke-kontzertua da, Zaragozan izan zen euskal taldea eta orain haiek datoz hona.

> REVOLUTIONARY BROTHERS

SoundSystem, Donostia. Bi anaiak osatzen dute taldea. Musika jartzen duten bitartean hiru abeslari txandak kantatzen dute, nork bere ukitua emanaz: King Consul zarauztarrak, 12 Tribu taldeko abeslariak, reggae klasikoa; Sistah Kata irundarrak arima beltzeko musikaren kutsua ematen die abestiei, eta Maese Trucco lugotarrak, hip-hop kutsua. Azken hori izan da Revolutionary Brothers bikotearen abeslaria.

> 12 TRIBU

ReggaeBand, Urola Kosta. Reggae klasikoa lantzen duen taldea. Aurten 12 urte bete ditu. 12 kide dira, aurten lehenengo aldiz taldearen izenarekin bat datorren kide kopurua izatera heldu dira. Hiru disko dituzte eta irailean grabatuko dute laugarrena Santanderko Alone Ark diskoetxean.

> BIG JAM SESSION

Inprobisaziorako tartea. Hainbat talde-tako kideek elkarrekin kantu ezagunak eskainiko dituzte. Artista gonbidatuak izango dira: Ding Wash, Hot Drop eta 12 Tribu taldeko kideak, besteak beste.

> MAKALA

DubSession, Zarautz. Ibilbide luzeko musikaria da. Baxu jotzailea, abeslaria, ekoizlea, irratian ere jarduten du. Azken zortzi urteetan, besteak beste, Donostiako Etxekalte klubean jarduten du musika jartzen. Bakarlari moduan bi disko argitaratu ditu.



Makala DJa ere Gorlan izango da.

ZINEMA > UDAKO EGITARAUA

Aire zabaleko zine emanaldiak, udako kultura eskaintza hainbat herritan

Arrasaten abuztuko egubakoitzetan izango dira emanaldiak, Monterron parkean

Aretxabaletan, gaur azkena; Bergaran abuztuko eguenetan egingo dituzte

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zinema aretoak han eta hemen ixten dituzten sasoi honetan, aire zabaleko emanaldiak antolatzea izaten da zenbait udalen eskaintza uda partean.

Aurtengo udan, Aretxabaleta, Arrasate eta Bergarako udalek zine emanaldiak antolatu dituzte. Aretxabaletan, uztailako egubakoitzetan egin dituzte emanaldiok eta gaur, uztailak 27, izango da azkena. Herriko Plaza 22:30ean joaten direnek *Babel* ikusteko aukera izango dute. *Amores perros* eta *21 gramos* filmekin batera, trilogia moduko bat osatu zuen Alejandro Gonzalez Inarrituk. Marokon, Estatu Batuetan eta Japonian girotutako istorioak batzen ditu *Babel*-ek, globalizazioaren gaineko ikuspegi bitxia emanda.



'NOMADAK TX' Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Igor Otxoa txalapartaren nomadak ditugu.

GOIENKARIA

EUSKAL FILMAK TARTEAN

Bergarako kasuan, abuztuko egunetarako bost emanaldi iragarri dituzte. Kultura teknikari Mainer Osaren hitzetan, "saiatzen gara euskarazko filmak ekartzen

baita ere. Zenbaitetan ez da horren erraza, film berriak ekarri nahi ditugulako eta denak ez daudelako euskarara itzulita. Eta euskaraz produkzio gutxi dago oraindik".

Arrasateko kasuan, ohikoa denez, Monterron parkean izango dira emanaldiak, eguraldiak laguntzen badu behinik behin. Gaur, esaterako, *Nomadak Tx* dokumentala eskainiko dute,

22:30ean. Harkaitz Martinez de San Vicentek eta Igor Otxoak India, Mongolia, Laponia eta Saharako basamortua elkartu zituzten txalapartarekin. Txalapartaren nomadak ditugu.

Abuztuko egitaraua

Bergara

San Martin plaza, 22:00

Abuztuak 2.

Eutsi!

Abuztuak 9.

Una verdad incómoda

Abuztuak 16.

Mozart txakurra

Abuztuak 23.

Noche en el museo

Abuztuak 30.

Ekialdea ekialdi

Arrasate

Monterron parkea, 22:30

Uztailak 27.

Nomadak Tx

Abuztuak 3.

Cerdos salvajes

Abuztuak 10.

¿Quién dice que es fácil?

Abuztuak 17.

Shrek 3

Abuztuak 24.

Motorista fantasma

Abuztuak 31.

Norbit

Aretxabaleta

Herriko Plaza, 22:30

Uztailak 27.

Babel

TXIRRITOLA > LAUGARREN ALDIZ DEITU DUTE LEHIAKETA

Udako postalen lehiaketa

Uda amaitzean, zozketa egingo dute jasotako postal guztien artean

Irabazleak asteburu baterako landa turismo baten egonaldia eskuratuko du

E.M. > ARAMAIO

Aramaioko Txirritola Euskara Elkarteak udako postalak bidaltzeko gonbidapena egin die herritarrei. Jasotzen diren postalen artean zozketa egingo dute uda amaitzean: irabazleak asteburu baterako landa turismo baten egonaldia eskuratuko du.

LAUGARREN EKITALDIA

Oporretan, gustuko duten postala erosi eta Txirritolara bidaltzea besterik ez dute aramaiorrek. Ekimen horren helburua euska-

raz idaztea sustatzea eta bultzatzea da. Laugarren aldia da Txirritolak postal lehiaketa deitzen duena.

Postalak edozein formatakoak edo motatakoak izan daitezke. Norberaren esku gelditzen da, beraz, postalen aukeraketa. Txirritola elkarteak parte hartzerantz animatzen ditu herritar guztiak. Ahalik eta postal gehien jasotzea da helburua. Honako helbidera bidali beharko dira postalak: Txirritola Elkarte, Kultura Etxea, 01160 Aramaio.



POSTALAK Udako postalak jasoko dituzte Aramaion.

I.A.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

Film laburren lehiaketa Bergaran

E.M. > BERGARA

Bigarren aldiz, film laburren lehiaketa deitu du Bergarako Udako Kultura Zerbitzuak. Debagoieneko edozeinek har dezake parte eta lanak, bakarka zein taldeka, irailaren 3ra arte jasoko dituzte. Irabazleak 300 euro eskuratuko ditu eta bigarren saria 250 euro da. Sari banaketa irailaren 19an egingo dute.

AUKERA ZABALA

Partaideek film laburra, abesti baten bideoak, iragarkia, irudi muntaia, esketxa, dokumentala edo arte bideoa aurkeztu ahal izango dute, VHS edo DVD formatuan. Argibideetarako Bergarako kultura etxera, 943 77 91 58 telefono zenbakira jo dezakete interesatuek.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simón Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osinbu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berritua.
- Bidekurutzeta 60 m². Berritua.
- Zubieta 65 m². Prezio ona.
- San Pedro 84 m². Terrazarekin.
- Iraburu 84 m². Terrazarekin.
- Zubieta 60 m². Prezio ona.
- Masterreka 92 m². Prezio ona.
- Zubieta 70 m². Berritua.
- Zabaltzeta 70 m². Prezio oso ona.

Antzuola:

- Buzintzuri 76 m². Prezio ona.
- Antigua 72 m². Oso ondo.

Elgeta:

- San Roke 90 m². Berritua.
- Salbador 90 m². Iggogailuarekin.
- San Roke. Prezio ona.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T. 943 76 21 80 F. 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekurutzeta, 82m², ia berria
- Arizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- San Anton Abad, 75 m², oso ondo
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubietaurre, 60 m², aukera ona
- Zubieta, 65 m², oso eguzkitsua
- Irizar pasealekua, 92 m², oso ondo
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Artekale, 62 m², oso ondo
- Aranerrika, 87 m², ondo
- Ortuibar, 100 m², ia berria
- Mugertza, 60 m², berria
- Masterrekan etxebizitzak 3 logelakoak eta duplexak
- Ibarra, 130 m², aukera ona

SORALUZE

- Gabalatz, 65 m², oso ondo

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK	3. LOKALAK	5. IRAKASKUNTZA	7. ANIMALIAK	9. HARREMANAK
101. SALDU 102. EROSI 103. ERRENTAN EMAN 104. ERRENTAN HARTU 105. ETXEA OSATU 106. BESTELAKOAK	301. SALDU 302. EROSI 303. ERRENTAN EMAN 304. ERRENTAN HARTU 305. BESTELAKOAK	501. JASO 502. EMAN 503. BESTELAKOAK	701. SALDU 702. EROSI 703. EMAN 704. BESTELAKOAK	901. AGURRAK 902. HARREMANAK 903. DEIAK 904. BESTELAKOAK
2. GARAJEAK	4. LANA	6. MOTORRA	8. DENETARIK	10. RELAX
201. SALDU 202. EROSI 203. ERRENTAN EMAN 204. ERRENTAN HARTU 205. BESTELAKOAK	401. ESKAINTZAK 402. ESKAERA 403. BESTELAKOAK	601. SALDU 602. EROSI 603. ALOKATU 604. BESTELAKOAK	801. SALDU 802. EROSI 803. EMAN 804. HARTU 805. TRUKATU 806. GALDU 807. AURKITU 808. BESTELAKOAK	

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01

sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU: GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ESTELEHENEN GOIENKARIA-N, BIDEAN ARGITATATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza salgai, adosatua. Estreinatzeke. 607 79 00 37.

Arrasate. Etxebizitza salgai Santa Marinaran. 3 gela, komun bat, jangela-egongela, garajea eta trasteleku. Ikuspegi ederrak. 653 73 24 62.

Arrasateko Erguin auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, komun, sukaldia eta bi balkoi. Oso eguzkitsua da, etxe kanpoaldera ematen du. 72 m². 660 46 47 24.

Bergara. Boni Laskurainen 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Erdia moldatua. Bizitzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Etxebizitza salgai Zubietaurre kalean. Guztiz berritua. Berogailu eta garbararekin. 619 41 39 72.

Bergara. Etxebizitza salgai erdialdean. Bizitzera sartzeko gertu. Oso polita. Eguzkitsua. 685 72 40 30.

Elgeta. Bigarren solairua da. Iggogailua, hiru logela, sukaldia, komun, egongela eta ganbara ditu. 138.232 euro. Telefonoa: 645 71 76 25.

Eskoriatza. Duplex berria salgai. Erdialdean dago. 100 m². Hiru logela, egongela, sukaldia, bi komun, garajea eta trasteleku. 655 70 46 90.

Eskoriatza. Duplexa salgai. 110 metro koadro. Bizitzera sartzeko moduan. Hiru logela, bi komun, sukaldia, egongela, jangela eta garajea. Telefonoa: 618 28 80 14.

Eskoriatza. Etxebizitza salgai San Pedro Kalean guztiz berritua. 73 m², 3 logela, egongela, bainugela eta sukaldia. Eguzkitsua. Deitu ezazu telefono honetara. 615 70 99 18.

Guardia (Laguardia). 80 m². Sukaldia, hiru gela, egongela-jangela, bainugela eta 30 m²-ko ganbara. Jantzita. Hirigunean. Eguzkitsua. Prezioa adosteko aukera. 943 77 21 24 edo 696 02 42 10.

Oñati. Etxea salgai Ugarkalde auzoan. Lehenengo eskuko. 3 logela, 2 komun, sukaldia, egongela eta terraza. Eguzkitsua. Alboko bigarren solairua. Prezio interesgarria. 670 27 45 82.

Oñati. San Lorentz auzoan 93 m²-ko etxebizitza salgai. 3 logela, 2 komun, egongela, estudioa, ganbara eta garaje handia. Deitu 20.00etatik 22.00etara. 943 53 42 10.

Oñati. Apartamentua salgai San Lorentz. Saloi-sukaldia, 2 logela, komun eta terraza handi bat. Garajea aukeran. 658 75 22 37 edo 943 78 18 38.

Oñati. Eraikitzen ari den duplexa salgai. 4 logela, bi komun, sukaldia eta egongela. Telefonoa: 617 85 85 41.

Oñati. Etxea salgai San Lorentz. Berriztatua. Ganbara eta garajea. 3 logela. Prezioa adosteko. 656 74 80 47.

Sojuela (Erioxa). Golf-zelai batean dagoen etxebizitza. Hiru logela, egongela-jangela, sukaldia jantzita eta bi komun. Garajea eta trasteleku. Telefonoa: 685 72 44 91.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. 07/08 ikasturterako 4 ikaslerendako etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 945 12 46 22.

Arrasate. Erdigunean etxebizitza errentan ematen da. Lau logela ditu. 630 54 57 38.

Arrasate. Etxebizitza alokagai daukat erdialdean. Logela, sukaldia eta egongela ditu; bikote batendako aproposa. 530 euro. 619 34 88 52.

Arrasate. Etxebizitza errentan

ARAMAIO

Leixar Ondo elkarte gastronomikoak garbitzailea behar du.
639 22 22 73

ematen da. Bi logela ditu. Unibertsitatetik gertu dago. Telefonoa: 667 53 70 12.

Cauterets. Lau pertsonerendako apartamentua errentan Frantziako Pirinioetan. 10 euro pertsona eta egun bakoitzeko. 625 70 61 91.

Eskola Politeknikotik 5 minutura dagoen etxebizitza errentan ematen da. Merkea. Telefonoa: 943 79 81 05.

Gasteiz. Etxebizitza errentan ematen da, ikasleentzat. Guztiz hornitua. 4 logela, bakoitza bere bainuarekin. 943 76 58 91.

Jaca. Urbanizazio batean dagoen etxea errentan ematen da. 2 logela. Urbanizazioak igerilekua, squash, sauna, jacuzia eta gimnasioa dauka. Telefonoa: 609 47 86 91.

La Barrosa-Chiclana (Cadiz). Irailean apartamentua errentan ematen da urbanizazio berri batean. Leku zoragarria. La Barrosa hondartzatik oso gertu. Telefonoa: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Loreda (Kantabria). Apartamentua alokagai daukat. Bi logela ditu, eta hondartzatik

ARRASATE

Sukalderako altzariak saltzen dituen dendak dekoratzailea behar du.
Bidali curriculumak
laneskaintza@hotmail.com helbidera.

bost minutura dago. 679 35 29 70 edo 943 79 81 38.

Marina D'Ora. Apartamentua alokagai daukat Marina D'Orren (Oropesa). Aire girotua, garajea eta igerilekua dauka, eta hondartzaren alboan dago. 610 92 93 15 edo 943 79 93 80.

Oñati. Olakuan, 2 logelako etxebizitza. Ikasturterako bakar-bakarrik. 660 40 06 75.

Peñiscola (Castello). Apartamentua errentan ematen da, abuztuko bigarren hamabostaldira eta iraileko. Hondartzatik gertu. Apartakalea eta igerilekua dauka. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Peñiscola. Apartamentua ematen da errentan abuztuaren lehenengo hamabostaldian. Hondartzatik 100 metrora. Igerilekua eta apartakalea ditu. 659 72 77 72.

Peñiscola. Apartamentua. Hondartzatik gertu. Parking eta igerilekuekin. Abuztua eta iraila. 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Pinedan (Tarragona) apartamentua errentan ematen da. Hondartzatik eta PortAventuratik gertu dago. Igerilekua dauka. 637 22 78 82.

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guztiz jantzita. Igerilekuekin. 657 73 94 25.

Villanua (Jaka ondoan). Apartamentua errentan ematen da abuztuaren lehenengo hamabostaldira. Igerilekuekin eta apartakaleku pribatuarekin. 656 74 80 47.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza hartu nahi dut errentan Arrasateko edozein tokitan. 690 28 91 89.

Debagoiena. Etxebizitza txiki bat errentan hartuko luke bikote batek. 655 72 27 61.

105. ETXEA OSATU

Aramaio etxebizitza konpartitzeko pertsona bat behar da. 699 28 99 06.

Bi pertsona behar dira Gasteizen etxebizitza konpartitzeko (unibertsitatetik gertu). 600 29 80 26.

Eskoriatza etxebizitza bila nabil datorren kurtisorako. Gela bak-

arra beharko nuke eta beste ikasle batzuekin konpartituta. 667 25 58 19.

2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arexabaleta. Garaje itxia salgai Lezaman. 647 08 00 16.

Bergara. Garaje itxia salgai Zubietaurre. 37 metro koadro. 606 65 97 82.

202. EROSI

Arrasate. Garaje itxia erosiko nuke San Andresen. Telefonoa: 699 49 14 32.

203. ERRENTAN EMAN

Arexabaleta. Garaje itxia emango nuke errentan Errekabarren kalean. 943 79 40 19.

Arrasate. Otarora kalean garaje handia errentan ematen da. Deitu gauz 22etatik 23etara. 656 75 52 28.

Arrasate. Ferrixalekuko apartakaleuan dagoen garaje bat errentan ematen da. 605 74 52 02.

Bergara. Garajea errentan Ibargarai 38an. 943 76 74 19.

Bergara. Garajea errentan ematen da Ibargarai kaleko 42. zenbakian. 616 62 77 16 edo 943 76 23 75.

Bergara. Ibargarai kalean garajea errentan ematen da. Telefonoa: 627 90 74 48.

3/ LOKALAK

301. SALDU

Bergara. 140 metro koadro ditu, bi solairutan. Herriaren erdialdean dago eta sukaldia eta industria aparailuz hornitua dago. Elkarte baterako aproposa da. 645 00 71 46.

Lokala salgai Arexabaletako erdialdean. Kafetegia izateko egokia. 290.000 €. 635 72 59 40.

303. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Etxea errentan ematen da. 665 70 75 01.

ARRASATE

KANPAZAR jatetxeak barran zerbitzariak behar ditu.
4 egun lan, 2 jai.
669 30 26 86

305. BESTELAKOAK

Entseatzeko lokala. Aretxabaletako gazte talde batek entseatzeko lokal bat behar du, inguruan. Telefonoa: 655 73 15 26 edo 649 22 22 98.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Emakume eskalduna behar da etxeko lanak egin eta edadeko pertsona bati laguntzeko. Irailetik aurrera. Goizetan bi ordu. Deitu ezazu telefono honetara: 657 79 07 39.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egin. Deitu ezazu telefono honetara: 943 76 50 63.

Bergara. Emakumea behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egin. Orduetgia: 08:00etatik 15:00etara. Telefonoa: 639 03 43 58.

Bergara. Pertsona bat behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egin. Deitu ezazu telefono honetara: 615 76 65 55.

402. ESKAERA

Arrasate. Esperientziadun emakume pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Deitu ezazu telefono honetara: 943 08 12 80.

Bergara. Emakume bat gertu dago lana egin, goizetan garbiketa lanak egin edo umeak zaintzen. Deitu ezazu telefono honetara: 639 02 00 81.

Bergara. Emakume bat gertu nagusiak eta umeak zaindu edo garbiketa lanak egin. Telefonoa: 659 35 09 30.

Bergara. Mutila gertu nagusiak zaindu eta garbiketarako. Deitu ezazu telefono honetara: 637 08 66 53.

Bergara. Umea edo nagusiak zainduko nitzute eta etxeko lanak egin. Orduka. Telefonoa: 637 02 07 11.

Debagoiena. Emakume bat eskaintzen da arratsaldean lan egiteko garbiketarako, edo umeak zainduko nagusiak zaintzen. Abuztuan ere lan egiteko prest. Deitu ezazu telefono honetara: 638 89 98 60.

Debagoiena. Emakume bat gertu dago adineko pertsonak zain-

tzeko, garbitasun lanak egiteko edo ordezko lanak egiteko. 649 63 23 24.

Debagoiena. Gizon gazte bat gertu dago garbitasun lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko edo ordezkapen lanak egiteko. Deitu ezazu telefono honetara: 696 38 10 07.

Debagoiena. Lorezain, fresatzaile, dendari edo garbiketala lanetan jarduteko gertu. Alex. 647 19 36 95.

Debagoiena. Mutil gazteak lan egiteko luke eraikuntzan edo zerbitzari gisa. Paperak ditut. 628 76 57 34 edo 943 76 29 02.

Debagoiena. Neska eskalduna dendan lan egiteko prest. 690 14 36 68.

Debagoiena. Neska gazte bat gertu dago umeak zaindu eta nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko edo sukaldari laguntzaile nahiz zerbitzari lanak egiteko. 663 46 93 60.

Debagoiena. Neska gaztea lan egiteko prest. 636 31 15 36 edo 943 76 29 02.

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zaindu nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 659 35 09 30.

Debagoiena. Neska gertu etxeko lanak egiteko eta umeak zaindu nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 678 80 11 54.

Debagoiena. Sukaldaritzan lan egiteko gertu nago, eguneroko edo aste bukatu. Telefonoa: 628 72 25 07.

Debagoiena. Umeak zaindu nagusiak zainduko nitzute eta etxeko lanak egin. 659 37 41 95.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrean ematen ditu Arrasaten. Maila guztiak: unibertsitatea, zikloak, batxilergoa, DBH, Matematika, fisika, marrazketa, teknologia, kimika, elektrizitatea... Arreta pertsonalizatua. 630 71 35 83.

Oñati. Uztailaren eskola partikularrean emango nitzute. Irakaskuntzan diplomatu naiz. Eskarmentu handia. 666 21 73 48.

6/ MOTORRA

601. SALDU

BMW 320D salgai. 1999koa. Estra ugari. 100.000km. Egoera onean. 656 73 21 62.

Bandit 600 motozikleta salgai. 13.000 km. Matrikula: SS-7314-AU. 658 71 48 29.

Hyundai Ducson salgai. 112 ZP. 23.000 kilometro eta oso egoera onean dago. Diesela da. 669 54 89 16.

KTM kroseto motoa salgai 125 zentimetro kubikotakoa, 2002 urtekoa. Oso egoera onean dago. 605 75 54 57.

Motorra salgai. Scooter Suzuki Katana R-50. 1999an erosita eta oso gutxi erabilia. Motorraren batera bi kasko. Prezioa adostekoa. 943 76 36 63.

Motorra saltzen dut. BMW-f650. Egoera onean. Maletak dauka. 1999koa. 3.000 euro. Telefonoa: 607 80 34 40.

Peugeot Expert furgoneta salgai. Egoera onean. 3.200 euro. 650 96 50 43.

Polo GT. 1992koa. IAT (ITV) 2008 arte pasatua. 639 57 19 88.

Seat Alhambra Sport monobolumena salgai. 2004koa. 145.000 km. Egoera onean. 653 71 04 56.

Seat Ibiza salgai. Diesela. SS-AT. 685 73 79 65.

Seat Inca. 3 urte ditu eta 30.000 kilometro. Egoera onean. Aire girotua dauka. 6.200 euro inguru. 629 91 80 15.

Trialeko motora salgai. Gas-Gas 280 TXT. 2002koa. 1.500 euro.

Deitu ezazu telefono honetara: 679 80 98 85.

Volkswagen Polo GT. 2008ko otsaila arte du Ibilgailuen Azterketa Teknikoa. 500 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 680 78 20 51.

Volvo V-40. Gorria eta oso egoera onean. 150.000 km. 6.000 euro. Deitu ezazu telefono honetara: 943 16 19 45.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Astrolo teleskopioa salgai. Deitu ezazu telefono honetara: 943 79 41 31.

hildakoak

- **Paula Beitia Bidegain.** Oñatin, uztailearen 19an. 85 urte.
- **Lorentza Uribarren Lejarreta.** Arrasaten, uztailearen 19an. 86 urte.
- **Julita Urtzelai Kortabarria.** Oñatin, uztailearen 19an. 91 urte.
- **Soledad Olaizola Lonbide.** Arrasaten, uztailearen 19ean. 90 urte.
- **Julian Lazkanoiturburu Agirre.** Oñatin, uztailearen 20ean. 75 urte.
- **Petra Irazola Zamalloa.** Bergaran, uztailearen 20an. 92 urte.
- **Jaime Agirre Maiztegi.** Oñatin, uztailearen 20an. 66 urte.
- **Mari Carmen Arantzeta Laka.** Arrasaten, uztailearen 23an. 83 urte.
- **Pedro Jesus Urtzelai Madinabeitia.** Aretxabaletan, uztailearen 24an. 65 urte.

V. URTEURRENA

Nerea Martin Urtzelai

*Laiño bitarteko eguzki izpi bat.
Negar erdiko irribarre bat
Belar arteko lore eder bat
Gure gogoeta guztietan, zu
Gure bihotzetan betiko, Neretxo*



Zure koadrila.
Arrasaten, 2007ko uztailearen 27an.



Arrasateko **Sergio Perez** eta Aretxabaletako **Oihana Aragonés**, argazkian Iraia ilobarekin, zapatuan ezkondu ziren Arantzazun. Oñatiko Zelai-Zabal jatetxean bazkaldu zuten eta eztei bidaiari Perura joan dira. Zorionak, familiaren partetik!



Oñatiko **Juan Zelaia** eta **Miriam Vizcaino** bihar, uztaileak 28, ezkonduko dira Asentzioko ermitan. Ezkontza Zumarragako Etxe-Berri jatetxean ospatuko dute. Ondo pasa eguna eta zorionak, bioi, familiakoen partetik!



Aretxabaletako **Luis Mari Fernandez** eta Arrasateko **Enérritz Lezeta** zapatuan, uztaileak 28, ezkonduko dira Aretxabaletako udaletxean. Etxekoan artean ospatuko dute ezkontza. Eztei bidaiari Txinara eta Balira joango dira.



Pilar Barbero eta **Jose Herrero** ezkondu zirela 58 urte beteko dira domekan, uztailearen 29an. On Jose Luis Iñarra parrokoak ezkondu zituen Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokian. Zorionak, seme-alaba, biloba eta birbilobaren partetik!

II. URTEURRENA

Juan Andres Garcia Garrido

Oñatin hil zen 2005eko uztailearen 28an.

*Zure irrifarra
beti gogoan izango dut.
Muxus.*



Lorea.
Oñatin, 2007ko uztailearen 27an.

URTEURRENA

Benita Garcia Perez

Lehen urteurreneko meza
zapatuan, uztailearen 28an,
19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiangeruaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Gotzon Elkoro Gabilondo

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailearen 29an,
12:00etan,
Elgetako Ama Jasokundearen elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

II. URTEURRENA

Joseba Linacisoro Lazpiur

Bigarren urteurreneko meza
zapatuan, uztailearen 28an,
19:00etan,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Pilar Saenz Montoya

Lehen urteurreneko meza
domekan, uztailearen 29an,
15:00etan,
Bergarako Santa Marina elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Martin Iturralde Iriarte

Lehen urteurreneko meza domekan,
uztailearen 29an, 11:30ean,
Aretxabaletako Jasokundearen parrokian.

*Joan zinen
gu hemen utzita
baina, jakin ezazu,
inoiz ez zaitugula ahaztuko.*



Elizkizunetara joango zaretenoi,
alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKELA

Mari Carmen Arantzeta Laka

Amama Karmele

Arrasaten hil zen 2007ko uztailearen 25an.

Gure bihotzean zaude.



Arrasaten, 2007ko uztailearen 27an.

ESKER ONA

Bixente Olabarria Gisasola

Bergaran hil zen 2007ko uztailearen 17an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkiguteno,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko uztailearen 27an.

Babeslea:




OROILLORE

Hileta eta beilatoki zerbitzuak


*Momentu txar horietan sortzen diren
galdera, kezka eta arazo guztiei
aurre egiteko zuei laguntzeko ireki berria da*

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxa: 943 76 94 76
Zerbitzua Debagoiena osorako

bilabila 7



hitz gezidunak

	Herri, nazio	Sustrai	Beharra
	Espartina	Ilunabarrak	Eskasa
	Esan		
	Ez emea		
Itsas ugaztun	* Irudiko lorea		
Argizagia	Pl., azalera neurria		
		Potasioa	Abelen anaia hura
		Uranioa	
Gutxituak			
Nahastura trinkoa			
		Sufrea	Jainko egiptoarra
		Musika nota	Röntgen
Dago		Handi	
Tokiak		Bokala	
			Non atzizkia



umore giroan

Kike Amonarriz

Parisen Gertatua

Emakume zahar bati diruzorroa ostu zioten poltsatik eta korrika urrun zegoen polizi bulegora joan zen, salaketa bat jartzera.

Handik gutxi batera, kafea hartu zuen tabernan ahaztu ote zuen. Tabernara hurbildu zen, sartu eta zerbitzariak irifarre... diruzorroa tabernan dagoen mahai baten ahaztu zuela andreari ezan zion.

Atzera berriro polizia-etxera zorroa azaldu zitzaiola esatera. Hara nolako erantzuna jaso zuen:


- Lastima! Lapurretaren ardura bere gain hartu duten bi arabiar baditugu eta!

sudokua

						7
9		1	7			
	3		4	2	9	
	8			3		9
	1	5	3	4		
6	9			7		
	6	7	2		5	
		6	5		3	
1						

hieroglifoa

Zenbatetan huts egiten du?




hizki salda

5 zuzaitzen izenak

S	E	K	U	O	I	A	D	F
N	U	B	O	S	H	K	A	L
D	E	A	I	M	A	I	R	I
A	N	L	R	R	R	O	I	Z
R	A	A	H	I	K	E	N	A
T	S	K	T	B	T	T	D	R
O	N	A	A	E	I	Z	O	R
D	E	M	E	K	T	O	A	A
D	I	Z	P	I	N	U	A	Z

soluzioak



N	A	K	U	K	L	E	L
I	R	R	L	A	D	A	
A	R	S	A	E	O	R	O
K	A	K	U	R	I	U	
K	A	R	A	R	A	Z	I
A	S	O	R	R	A	I	
N	A	R	A	E	R		
A	K	A	B	A	B	A	
L		E	A				

bono fotoa



Galdera: Arrasateko dantza talde bat ageri da argazkian, Oñatiko plazan iaz egindako Dantzari Egunean. Arrasaten bi dantza talde daude. Nola dute izena?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

OHARRA: Aurreko asteko erantzuna gaizki kaleratu genuen. Erantzun zuzena ETXEBARRI zen eta ez San Bartolome, jarri genuen moduan.

Super BM 

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

Pepsi Cola normala edo light
2 litroko 2ko packa

1,97 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko AITZOL AXPERendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: San Roke, abuztuaren 16a.

6	7	6	8	4	3	5	2	1
7	1	5	7	5	1	3	2	9
4	8	5	8	4	6	3	7	2
5	2	7	2	1	9	5	8	4
2	5	7	2	8	1	7	2	5
8	6	8	3	9	6	3	4	6
9	1	9	5	4	8	7	2	6
1	9	3	1	9	5	4	8	7
3	1	9	5	4	8	7	2	6
4	3	1	9	5	4	8	7	2
7	1	5	7	5	1	3	2	9
5	7	4	1	6	9	3	2	8

Jeroglifikoak: Bikasutan

Z	A	V	A	Z	P	I	N	U	A	Z
A	V	A	Z	P	I	N	U	A	Z	
D	E	M	E	K	T	O	A	A		
O	N	A	A	E	I	Z	O	R		
R	T	S	K	T	B	T	T	D	R	
A	R	A	H	I	K	E	N	A		
A	N	L	R	R	R	O	I	Z		
I	D	E	A	I	M	A	I	R	I	
N	U	B	O	S	H	K	A	L		
F	A	D								

★ Heineken®

LastTourInternational

vitoria-gasteiz
azkena
rock festival

Abuztuak 31, Irailak 1.
Mendizabala. Vitoria-Gasteiz

TOOL

HOODOO GURUS ⚡ HEAVY TRASH ⚡ THE ANSWER
ROKY ERICKSON & THE EXPLOSIVES ⚡ BRANT BJORK & THE BROS
GIANT SAND ⚡ DIAMOND DOGS & THE SILVER CATS HORNS
TWO GALLANTS ⚡ QUIQUE GONZALEZ Y LA ARISTOCRACIA DEL BARRIO
SUPER 400 ⚡ LOS CORONAS ⚡ SEXTY SEXERS ⚡ LAS FURIAS eta talde gehiago konfirmatzeko

www.azkenarockfestival.com

60€
+ banaketa
gastuak

902-15-00-25
FNAC, CARREFOUR,
TIPO y puntos habituales
ticktackticket.com



+ info www.heineken.es

Leire Errasti > Ikaslea

"Hegazkin militarrek erabiltzen duten materialaz egin dugu landarea"

Leire Errasti eskoriatzarrak Inge- niarritza ikasketak egin ditu Arra- saten; hala, eskolarako eginda- ko proiektu bat aurkeztu zuten Emaus fundazioak Usurbilen duen EcoCenter aretoan. Erras- tiren proiektua ura aurrezteko landarea zen. Helburua da ur larregi gastatzen dugula jabe- tzea; horretarako, ur asko gas- tatuz gero, landarea kolorez aldatu eta usteldu egiten da.

ARANTZAZU EZKIBEL > ESKORIATZA

Ikasturtea amaituta, udarako pla- na egin du Leire Errastik: Inge- niarritza amaitzeko geratzen zaion ikas- gai bakarra ikasten emango du datorren hilabetea. Gero, baina, opor txiki batzuk hartuko dituela aitortu digu.

Zer da Emaus Gizarte Funda- zioaren EkoCenter aretoan aurkeztu duzuen proiektua?

Guk egin dugu landare arti- fizial bat; helburua da ur asko gas- tatzen dugula jabetzea.

Landareak kontadore elek- troniko bat du, etxeko sarrerara lotuta; hala, ur asko gastatzen badugu, landarea usteldu egiten da eta kolorea aldatzen zaio.

Egin duzuen landarea merka- tuan saltzeko bideragarria da?

Helburua da egin ditugun proiektu ezberdinak 2025. urte- rako bideragarriak izatea. Gaur egun oso garestiak izan daitezke- en teknologiak erabili ditugu, baina etorkizunean posible izan- go da teknologia aurreratuak produktu ezberdinei aplikatzea.

Gure landarea egiteko erabi- li dugun materiala gaur egun hegazkin militarrek erabiltzen duten materiala da. Adibidez, orain urte batzuk, mikrouhin teknologia NASAK erabiltzen zuen eta gaur egun etxe guztie- tan daukagu bat. Beraz, helbu- rua da etxe bakoitzean landare bat jartzea. Bestalde, alokairua bultzatu gura dugu; hau da, lan- darea ez da betiko izango. Etxe batean ura aurrezteko ohitura onak hartzen direnean, landarea itzuli eta beste etxe batean jarri- ko litzateke.

Diseinua egin duzu, baina zu zeu ura aurrezten duenetari- koa zara?

Bai, bai. Txikiak ginenean, telebistako iragarki batek hagi- nak garbitzerakoan iturria itxi egin behar zela esaten zigun. Eta beti egin izan dut horrela.

Nik uste dut gaur egungo gaz- te gehienok daukagula uraren arazoaren ardura, horrela eraku- tsi digute-eta.

Argi izan duzu Diseinu Inge- niarritza ikasi gura zenuela?

Bai, oso argi. Beti gura izan dut zerbait tekniko ikasi; sormena landu gura izan dut, eta oso gustura nago egin ditudan ikas- ketekin.

Gurasoen tabernan lan egin- dakoa ere bazara.



A.E.

PERTSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak?** Diseinu Inge- niarritza. **Zaletasunak?** Musika, txakurrak, eguzkia hartzea eta lagunekin egotea. **Musika talde bat?** Helicopters. **Gizateriaren asma- kizun onena?** Zoru-garbigailua (fregona); gezurra

dirudien arren, XX. mende hasierakoa da. **Bidaia bat?** Europa erdialdera joan gurako nuke, Austria ingurura-edo. **Amets bat?** Diseinu munduan izen ospetsua izatea; eta nire estudioa izatea eta marka ospetsuentzat lan egitea.

Bai; orain ez daukagu taber- narik, baina urte askoan lagun- du izan diet gurasoei tabernan. Egia esan, asko gustatzen zaidan lana da. Pertsonalki, jendearen- gana zabaltzeko balio izan dit; gai- nera, antolatu eta ardurak har- tzeko ere lagungarria izan da.

Taberna utzi genuenean, hasieran faltan igartzen nuen, baina orain aste bukaerak goza- tzen ikasi dut.

Aurtengo udarako ze plan egin duzu?

Nire plana ikastea da. Ikas- gai bakarra geratzen zait karre- ra amaitzeko; beraz, iraila arte geratzen diren bost asteak buru- belarri arituko naiz ikasten.

Karrera sakrifikatua da Inge- niarritza?

Bai, sakrifikatua da. Arrasa- ten hasi aurretik, nik uste nuen ikasten nuela, baina ez zen hala. Lan asko egin behar dira eta ezin dira azkeneko egunerako utzi; egunero-egunero egin behar dira lanak.

Atzerrira joan gurako zenuke?

Bai, zergatik ez. Gainera, Euskal Herrian ez dago goi mailako Diseinu Ingenieritza egi- teko modurik. Bartzelonan eta Valentzian ematen dituzte esko- lak; hortaz, aukera ona izan daiteke. Gaur egun, aipatutako bi hiri horiek diseinu aldetik oso aurreratuak dira estatu mailan.

Eta zer iruditzen zaizu Tele5 kateko *Nadie es perfecto* pro- grama? Horren arabera, zuen gelakoak itsusiak zarete!

Egia esan, ikusi izan dut pro- grama, baina aldatu egin behar izaten dut... Ez da normala publi- koak txalo egin behar izatea par- te-hartzaile batek guztiontzat jakina den zerbait asmatzearen.

Gure gelan, esaterako, dene- tarik dago. Ez gara itsusiak, eta ezta jenio hutsak ere. Normalak gara!

Eta, badaukazu buruan asma- tzea gustatuko litzazukeen ezer?

Beti nago zerbaitetan pentsa- tzen. Baina helburua dagoen ara- zo bati erantzuna emango dion irtenbidea bilatzea da. Hori disei- nu on bat da. Eta ez moda-moda- ko diseinua izan arren, ezertara- ko balio ez duen zerbait.

Bestalde, gaur egun dauden prezio txikiei aurre egiteko, disei- nua balio gehigarria da.



AZKENA Azti ezagunaren ibilbideei amaiera emango die zazpigarren liburua.

GOIENKARIA

EUSKARA > IRAKURZALETASUNA

Harry Potterren abenturak ere asko irakurtzen dira ibarrean

Harry Potter aztiaren abenturak bukatu dira, joan den astean argitaratu zuten eta haren gaineko azken liburua; bada, Debagoienara ere iritsi da haren magia

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA
Munduko azti famatuaren, Harry Potterren, abenturen zazpigarren eta azken liburua, *Harry Potter and the Deathly Hallows*, joan den zapatuan aurkeztu zuen egileak, J.K. Rowling-ek; eta, aurrekoen argitalpena mundu osoan fenomeno izan bazen, aztiaren abenturen bukaerak oraindik zurrara handiagoa piztu du.

Debagoiena ez dago lilura horretatik kanpo; hala, aspalditik daude liburu-denda eta liburutegietan Harry Potterren liburuak. Euskaraz, lehenengo bostak daude, Inaki Mendigurenek itzulita, eta seigarrena, *Harry Potter eta odol nahasiko printzea*, laster izango da hemen. Azken liburua datorren urtean argitaratu ahal izango da, seguruenik.

Arrasateko Elkar Megadendan galdetuta, esan dute dozena bat eskatuta zutela eta zapatu eta astelehen bitartean guztiak saltu zituztela. Beste dozena bat eskatu dute eta dagoeneko, horietako lau erreserbatuta daude. Bergarakoan, berriz, zazpi saldu dituzte astean barrena.

Elkarrek Arrasaten eta Bergaran du denda bana, baina, hara joan barik, Interneten ere eros daitezke liburuak, www.elkar.com helbidean. Jatorrizko ber-

tsioa irakurri nahi duenak ere badu horretarako aukera, ingelesezkoa ere salgai dago-eta.

FILMAK

Liburuez gain, Harry Potterren gaineko filmak ere oso arrakastatsuak dira. Horiek ere euskaraz egotea eskatzen dute hainbatek. Bada, orain arte, behintzat, emaitzak ez dira itxaropentsuak. Izan ere, Euskal Telebistak, 2005eko Urteberri egunean, ordu eta une berean, *Harry Potter eta sorgin harria* filma eman zuen lehenengo katean, euskaraz, eta bigarrenean, gaztelaniaz. Bada, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian ETB aukeratu zuten ikusleen %7k bakarrik aukeratu zuen euskarazko bertsoa; gainerako %93k, gaztelaniazkoa. Guztira, 15.000 lagunek ikusi zuten filma euskaraz eta 302.000k, berriz, gaztelaniaz.

teknologia berriak

> DISKO GOGORRA

Bi terabyteko LaCieren Big Disk Extreme, gehi kanpoko disko gogorra

LaCie etxeak kanpoko disko gogor berria kaleratu du. Izenak dioen moduan, disko gogor handia da, bi terabytekoa (1.024 bider gigabyte bat). Edukiera handia badu ere, ez da hori ezberdin egiten duen ezaugarri bakarra: 32 Mb-ko katxea du, Firewire 400 bat eta Firewire 800 bikoitza eta USB 2.0 portu bat. Windows eta Mac OS sistema eragileetan dabil.

TB bateko, 1.5 TB-ko, eta 2 TB-ko edukieran eskura daiteke, 253 eurotik aurrera.



Segurtasun kopiak egiteko aproposa da, daukan izugarrizko edukieragatik.

> GPS GAILUA

LG enpresaren LN790, pantaila handiko nabigaziorako sistema eramangarria

LG enpresaren azken GPS gailua da, LN790 modeloa.

Ezaugarri nabarmenena 4,3 hazbeteko pantaila da. Sakelakoarekin konektatzeko bluetooth erabiltzen du. Zirkulazioaren egoera jakiteko, musika erreproduzitzeko eta argazkiak ikusteko ere balio du.

Oraingoz, Estatu Batuetan bakarrik dago eskuragarri, hango mapekin, baina Europara laster helduko da.

Salneurria Estatu Batuetan 700 dolar da.



Pantaila handia eta jarraitu beharreko kaleak zeintzuk diren azaltzen duen ahots-sistema.

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIA

Asus A8Sr, ATiren txartel grafiko berriarekin errendimendu handiko grafikoak

Asus ordenagailu ekoizleak A8Sr modeloa kaleratu du.

Intel Core 2 Duo prozesagailua, Bluetooth 2.0 eta haririk gabeko sareetara konektatzeko 802.11n wi-fi.

Eramangarri hori nabarmen egiten duen ezaugarria da ATI Mobility Raedon HD2400 txartel grafiko berria. Txartel horrekin eta DirectX 10 euskarriarekin errendimendu handia lortuko dugu alde grafikoan. 14.1 hazbeteko pantaila dauka eta 2,39 kilo pisatzen du.

Windows Vista sistema eragilea aurreinstalatu da.



Asus A8Sr eramangarria potentzia handikoa da eta teknologia berriena darabil.

Zure negozioaren erakusleioa Interneten

www.goiena.net-eko [blog](http://www.goiena.net/blog) komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn	/denetik	/gertu	/korozabaleta	/richimaier
/aiastui	/dragon-oriental	/gorkataxi	/markiegi	/tabernaberri
/aretxargi	/dukiena	/gurea	/maulanda	/udalaitz
/argi-plastik	/ego	/gutzizeder	/mayte	/urdeki
/arregi	/ekilore	/hamaika	/merkeopari	/urbieta
/atai	/ekin	/itxaseder	/multiopticas	/urko
/azkarate	/elejalde	/irudisport	/ohiak	/vitoria
/bastida	/ezkutuorly	/ixaun	/ogizun	/zainduz
/briz-aseguruak	/galgorri	/jrcing	/okipark	/ziripot
/BZ-sistemas	/gallastegi	/joseba	/otzeta	
/bolusukaldeak	/ganesha	/lamaino-etxeberri	/pando	
	/garaia	/lorelan	/puerta-ingles	

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejetexea.com
www.ehmff.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurtxoa.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldosiete.com
www.uxarte.net



berriak

> PROGRAMAZIOA
**'Euskaldunak
hizketan' saiorako
grabazioak**

Urrian hasiko dira emititzen Goiena Telebistan *Euskaldunak hizketan* izenburupean estreinatuko den saio berria. Tokiko telebisten elkarteak ekoiztutako saioa da honakoa. Bertan ikusi ahal izango dituzue adineko pertsonen egindako elkarrizketak. Gaiak era askotakoak izango dira: kirola, baserria, gastronomia, gerra garaia...

GOITB grabazioak egiten aritu da egunotan.

> PROGRAMAZIOA
**'Asteleheneko
Goienkaria'-ren
lehiaketa GOITBn**

Asteleheneko Goienkaria-k udako argazkien III. lehiaketa ipini du martxan. Lehiaketa honetan parte hartzeko, koloretan zein zuri-beltzean ateratako argazki argitaraga-beak bidaltzea besterik ez dago. argazkiak@goiena.com helbidean jasoko dira, edo Goienako egoitzetan. GOITBk irailetik aurrera argazki lehiaketari eskaintako saio bereziak eskainiko ditu.

> ARRASATE IRRATIA
**Gustu guztiak
asetzeko musika,
irailaren 5era artean**

Gaurtik, egubakoitza, datorren irailaren 5era bitartean, Arrasate Irratia udako oporraldian ibiliko da. Dena den, irrata piztuz gero izango da zer entzun. Izan ere, halakotan ohi denez, musikaz beteko ditugu irratiko uhinak, orduro. Musika moderno eta erritmoduna, baina baita ere musika goxo eta lasaia. Oro har, gustu guztietarako musika. Irailaren 5ean bueltatuko gara, *Uda giroan* saioarekin.

> ARRASATE IRRATIA
**Gerra kontuak eta
loarekin lotutakoak,
asteburuan irratan**

Oporretara joan aurretik, asteburuan izango da aukera errepasatzeko astean zehar Arrasate Irratian landutako gaietako batzuk. *Astearen gainbegiratu*a saioan izango da hori, zapatuan zein domekan, 10:00etan hasita. Adibidez, gogoan izan ditugu Espainiako gerra hasi eta gero Arrasaten eta arrasate-arrek zelan bizi izan zituzten garai latz haiek. Horrez gainera, loarekin lotutako kontuak ere izango dira.

KANTARI > IBARREKO 165 TALDEK HARTUKO DUTE PARTE

**'Debagoienean Kantari'
diskoak banatu dituzte**

Irailean eta urrian entseatzeko banatu dituzte dagoeneko kantatu beharreko abestien CDak

GOIENKARIA > ARRASATE

Dakizuen moduan, sekulako arrakasta izan du *Debagoienean Kantari* karaoke ikuskizunear parte hartzeko deialdiak. Izan ere, 165 taldek eman dute izena. Kantuak entseatzeko joateko, Goiena Telebistak CD batzuetan grabatu ditu gero karaoke ikuskizunear kantatuko dituzten abestiak. Ahotza Amaia Txintxurretak ipini du eta dagoeneko amaitu dute CDak banatzeko lana. Beraz, talde bakoitza has daiteke egokitu zaion kantua ikasten. Gogoratu ikuskizunak Debagoieneko aretoetan egingo direla urrian eta azaroan.



KANTARI Bergarako neska-mutikoak CDak hartzen.

GOIENKARIA

UDAKO PROGRAMAZIOA > IRAILERA ARTE

**Goiena Telebistak ez
du aurtengo abuztuan
oporrik hartuko**

GOIENKARIA > DEBAGOIENA

Goiena Telebistak udari begira programazio interesgarria osatu du. Aurten, estreinakoz, ez du etenik izango GOITBk uda sasoiaren. Uztailaren 30ean hasiko dira udako programazio horrekin eta urtean zehar emi-

titzen diren saio arrakastatsuenak errepikatuko dituzte. Gainera, egunero, bi orduan behin *Berriak* saioa ere emitituko dute. Emisioa 11:40ean hasiko da eta 00:15ean amaituko da. Hona hemen abuztuan ikusgai izango dituzuen saioetako batzuk; emi-

sioa *Berriak* saioarekin hasiko da egunero, ordu erdiko saioekin. Bi orduan behin errepikatuko dituzte. Bestalde, izango dira *Didjeridu*, *Eltze Beroa*, *Ilunpean*, *Musikantoi* eta erreportaje saioak, eta saio bereziak ere eskainiko dituzte, hala nola *Jaiak*, *Kontzertuak*... Eta etxeko txikienentzat, jakina, marrazki bizidunak.

Bereziki *Berriak* saioan, abuztuaren 14tik 17ra tarte berezia eskainiko diegu Aretxabale-tako Andramaixa jaiei.

Aurtengo udan, hortaz, GOITBekin duzue hitzordua!

telebegi

Edorta Arana

Gogoz kontra

Gu eta gure baldintzek osatzen ei dute garena eta, baita, telebistan ikusten duguna ere. Azken denboraldian, *Maite kuttuna*, *Humor amarillo*, *Pressing catch* eta Tourra ikusi behar izan ditut. Txirritularitzaren kasuan, erretransmisioek sekulako logurea ematen didate. Gainera, ni bizikleta gainekoei baino inguruko jendeari begira egoten naiz, nongoak ote, zenbat ikurrin, nola marraztu dituzte horrenbeste izen errepidean eta halako galderekin buruari jiraka. Hori bai, ez gero galdetu sailkapenean nor dagoen lehen!

Udako siesta-orduetan, gainera, umeentzako programazio puztua eta horien artean pailazoak izaten dira. "Telebistakoak", bai, betikoak. Eta hor bai, umeei baino gehiago, beraiei begira egoten naiz. Galdera ikurra: nola da posible hainbeste esperientzia duten pailazoak hain topikoak izatea, hain aspergarriak.

Humor amarillo eta borroka faltsuak egiten dituzten iparamerikar indartsu esperpentiko horien tankerakoak dira ETBko pailazoak ere, baina hirukote horrek ez dit inoiz barrerik sorrazarazi.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.
Espainiako gerra piztu eta gero, Arrasaten egun nahasiak izan ziren hasierako haiek. Errepasoa egingo diegu. Bestalde, loaren gaineko kontuak ere baditugu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik
egubakoitzera, irailan

10:00-11:30 Uda Giroan
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Elkarrizketak
Agenda
Bainutokiaren konexioak: Garaioko urtegia, Musakolako igerilekua, Donostiako Aquarium
Zozketak
Opariak eskuratzeko aukera: 943 71 17 31 telefonora deitu
Zorion agurrak
Efemerideak
11:30 Izarren ordua: abesti ezagunak
14:00 Uda Giroan (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

GOITBko
programazioa

Egubakoitza, 27

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Horry 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kontzertua. 14:15 Musikantoi. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Hitz bitan. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Zu kazetari. 17:15 Bestak. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Horry. 20:45 Gaurkoak. 20:47 Ikusten. 21:15 Teknopolis. 21:45 Berriak. 22:15 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Tam Tam. 23:45 Gaurkoak. 23:30 Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 28

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Boboak, Horry eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30 Erreportajea. 12:00 Asteakoak. 12:15 Eltze beroa. 12:45 Eltze beroa. 13:30 Ur eta lur. 14:00 Kontzertua. 15:00 Zu kazetari. 15:30 Iruñako bestak. 16:00 Tam Tam. 16:30 Erreportajea. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Bizitegia. 20:00 Ikusten. 20:30 Erreportajea. 21:00 Ikusmira. 21:30 Erreportajea. 22:00 Asteakoak. 22:15 Bizitegia. 22:30 Ilunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Musikantoi. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 29

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Horry, Boboak eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusten. 11:30 Musikantoi. 12:00 Ur eta lur. 12:30 Bizitegia. 13:00 2x2. 13:30 Erreportajea. 14:00 Didjeridu. 14:30 Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Ur eta lur. 18:30 Ikusten. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ikusmira. 20:30 2x2 erreportajea. 21:00 Zu kazetari. 21:30 Iruñako bestak. 22:00 Didjeridu. 22:30 Ikusten. 23:00 Erreportajea. 23:30 Ilunpean. 00:00 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 30

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Berriak. 12:15 Didjeridu. 12:45 2x2. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Berriak. 14:15 Horry. 14:45 Erramu zapatuko bertso saioa. 15:45 Berriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Didjeridu. 17:15 Ilunpean. 17:45 Berriak. 18:15 Horry. 18:45 A2x2. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Horry. 21:15 Didjeridu. 21:45 Berriak. 22:15 2x2. 22:45 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 31

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Berriak. 12:15 Didjeridu. 12:45 2x2. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Berriak. 14:15 Boboak. 14:45 San Juanetako bertso saioa. 15:45 Berriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Didjeridu. 17:15 Ilunpean. 17:45 Berriak. 18:15 Bobobobak. 18:45 A2x2. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Horry. 21:15 Didjeridu. 21:45 Berriak. 22:15 2x2. 22:45 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 1

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Berriak. 12:15 Didjeridu. 12:45 2x2. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Berriak. 14:15 Horry. 14:45 Triki traka triki tron. 15:45 Berriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Didjeridu. 17:15 Ilunpean. 17:45 Berriak. 18:15 Horry. 18:45 A2x2. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Horry. 21:15 Didjeridu. 21:45 Berriak. 22:15 2x2. 22:45 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 2

11:40 Emisio hasiera. 11:45 Berriak. 12:15 Didjeridu. 12:45 2x2. 13:15 Eltze beroa. 13:45 Berriak. 14:15 Boboak. 14:45 Erramu zapatuko bertso saioa. 15:45 Berriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Didjeridu. 17:15 Ilunpean. 17:45 Berriak. 18:15 Bobobobak. 18:45 A2x2. 19:15 Musikantoi. 19:45 Berriak. 20:15 Eltze beroa. 20:45 Horry. 21:15 Didjeridu. 21:45 Berriak. 22:15 2x2. 22:45 Musikantoi. 23:15 Ilunpean. 23:45 Berriak. 00:15 Emisio amaiera.

Ikus itzazu argazkiak, astero, ASTELEHENEKO GOIENKARIAN!

III. UDAKO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA LEHIAKETA

Erakuts egizkiguzu zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira, eta berdin izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 22an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du, eta ez da adin mugarik izango.
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri. **Arrasate:** Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500. **Bergara:** Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570. **Aretxabaleta:** Durana 11, 2. solairua, 20550.
- Egoitzara ekartzekotan, kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.
- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.

- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 1ean jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAN.
- Parte-hartzaileek gehienez bost argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaia baloratuko ditu argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa eta bizitasuna, besteak beste.
- Honez gain, Goienako beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

Olympus E-400 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.




• **2. saria:** Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarentzat, Arrasate Bidaiak-en eskutik.



• **3. saria:** bi pertsonarendako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:



Laguntzaileak:



Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

902 36 38 51

Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

Uztailak 27-abuztua

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



BERGARA

> Mahaster River bergararrek kontzertua egingo dute jaioterrian

Bergarako hirukoteak Etxagi tabernan egingo du emanaldia. Gaur, egubakoitza, izango da, 22:30ean. Taldearen ohiko klasikoez gain, hainbat berrikuntzaz gozatzeko aukera izango dute kontzertura joaten direnek.

Literatura



DEBAGOIENA

> Bailarako liburutegiek Biblioporrak gida kaleratu dute udarako

Uda sasoiari gaudela eta, Debagoieneko udal liburutegiek hainbat liburu eta ikusentzunezko jasotzen dituen Biblioporrak gida kaleratu dute. Adin tarte guztiendako proposamenak jasotzen ditu. Irakurzaletasuna bultzatzea du helburu ekimenak.

Erakusketa



ESKORATZA

> Espainiako gerraren gainean liburuetan ageri ez dena ikusgai

Irakatsi gabeko irakasgaia. Espainiako Gerra Zibila eskolako liburuetan du izena erakusketak. Helburua da Espainiako gerra orain arte nola ikasi den eta gaur egun nola ikasten den erakustea. Irailaren 16ra arte egongo da ikusgai.

(1976. urtean hil zen). Bergarako erakusketa, pintorearen akuarelak, olioak eta marrazkiak ikusi ahal izango dira.

Abuztuaren 19ra arte, Aroztegi aretoan.

Lehiaketak

DEBAGOIENA

> 'Asteleheneko Goienkaria'-ren udako argazkien lehiaketa

Gure ibarreko edozeinek parte har dezake. Baldintza da udako argazkiak izatea, aurtengo udakoak zein beste uda batekoak. Aurkeztu ahal dira paperean edo digitalizaturik. Argazkiak bidaliko dira e-postaz, honako helbidera: argazkiak@goiena.com edo Goienaren egoitzaren batera eraman daitezke. Hiru sari daude irabazleentzat: lehenengo saria izango da argazki kamera digitala, bi objektibo aldagarriekin. Bigarren saria da asteburu bateko egonaldia bi pertsonarentzat. Eta hirugarren saria da bi pertsonarentzako afaria edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Irailaren 17a da azken eguna.

ARAMAIO

> Udako postalen lehiaketa deitu du Txirritola elkarteak

Eskaerak dutena da udako gustuko postalak bidaltzea Aramaioko euskara elkartera, euskaraz idatzita. Gero, lehiaketa egin barik, parte-hartzaile guztien artean zozketa egingo dute uda ostean eta irabazleari emango diote asteburu baterako egonaldia landa turismo batean.

Postalak bidali behar dira: Txirritola elkarte, Kultura Etxea, 01160, Aramaio (Araba).

BERGARA

> Film laburren bigarren lehiaketa deitu dute

Udaleko Kultura Zerbitzuak bigarren urtez deitu du lehiaketa: film laburra, abesti baten bideoklipa, iragarkia edo bestelako lanak aurkez daitezke, bakarka zein taldeka. Irabazleak 300 euro jasoko ditu eta 250 euro izango dira bigarrenarendako. Argibideak 943 77 91 60 zenbakian.

Lanak irailaren 3ra arte jasoko dituzte.

Ospakizunak

ARETXABAETA

> Goroeta auzoan Santiago jaiak ospatuko dituzte

Bihar, zapatua, umeendako jolasak egongo dira 16:30ean; 17:00etan, mus eta briska txapelketak; 19:00etan, txikiteoa; 21:00etan, auzo afaria eta 23:00etan, dantzaldia Txome akordeoi jotzailearekin. Etzi,

Musika

ARRASATE

> Muskaria taldeak kontzertua egingo du

Gure Leku tabernan egingo dute emanaldia. Gaur, egubakoitza, 00:00etan.

BERGARA

> Jazz emanaldia Five Hot Project taldearekin

2005. urte hasieran sortu zen boskote hori, kideek Donostiako Musika Kontserbatorioan bat eginda. Zuzenekoetan giro hurbil eta beroa sortzen dute.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Espolioan.

BERGARA

> Disko jartzaileen emanaldia Ziripot tabernan

DJ Balza KPK bergararrak jarriko du musika. Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ELORRIO

> Elkano Browning Cream taldearen emanaldia

Mikel Azpiroz musikari eta organo jotzaileak koordinatzen duen proiektua da. Harekin batera osatzen dute hirukoa: Matt Harding gitarra jotzaile eta konpositoreak eta Franck Mantegari Alpha Blondy taldeko batera jotzaile izanda-koak.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, San Josean.

BERGARA

> Pikulitxa Roots jaialdia hainbat musika taldearekin

Askotariko musika estiloak entzuteko aukera izango da. Honako taldeek hartuko dute parte, besteak beste: Tarasca Flamenka, Makala Inna Dub Style, Trackattack Selectahs, 12 tribu eta Revolutionary Brothers. Hainbat

gonbidatu ere izango dira, eta baita ezustekoak ere.

Bihar, zapatua, 20:00etan, Gorrako kantuan.

ELORRIO

> New York Ska Jazz Ensemble taldearen kontzertua

Jamaikako doinuen pizkundea bultzatu duen ska talde enblematikoa da New York Ska Jazz. New York hiriko kultura mestizajearen sentimendua ekarriko dute; jazz, reggae, rocksteady eta soul doinuak dituen zuzeneko indartsua egingo dute.

Bihar, zapatua, 22:30ean, Herriko Plazan.

ELORRIO

> Flamenko doinuak Juan Manuel Cañizaresekin

Flamenko doinuaren maisua da Cañizares. Hamar urte egin ditu Paco de Luciarene ondoan, munduan barrena

kontzertuak egingo ditu. *Iberia* izeneko azkeneko lana aurkeztuko du.

Etzi, domeka, 22:30ean, Tola jauregian.

BERGARA

> Organo emanaldia San Pedro parrokiaren

Oscar Candendo organo jotzaile gazteak San Pedro parrokiako organo erromantikoa egingo du emanaldia. Abuztuaren 12an, 20:00etan.

OÑATI

> V.O.S. Trio taldeak emanaldia egingo du

Rock musikan ezagun egin diren kantuak jazz ukituarekin aurkeztuko ditu hirukote horrek.

Abuztuaren 24an, 22:30ean, San Anton plazaxoan.

OÑATI

> Gitarra eta didjeridu soinuak elkarrekin

PROPOSAMENA

ARETXABAETA

> Abuztuaren 14tik 17ra Andramaixak ospatuko dituzte

Abuztuaren 14an, jaiari hasiera emateko ohiko ikurrinaren agurra egingo dute. Horren ostean, askotariko ekitaldiak egongo dira. Abuztuaren 15en, esaterako, herri bazkaria izango da 14:30ean, eta sokamuturra 18:00etan. Abuztuaren 16an, Kiki, Koko eta Moko pailazoak egongo dira, 12:30ean, plazan eta 00:00etan, Gose taldea; plazan hori ere. Abuztuaren 17an, Trapu Zaharra antzerkiak *Visa vis* lana egingo du 18:00etan.



domeka, meza nagusia egingo dute 12:30ean.

Bihar, zapatua eta etzi, domeka.

BERGARA

> Santiago jaiak ospatuko dituzte Goimendi auzoan

Bihar, zapatua, hasiko dira jaiak eta 22:30ean erromeria izango da Laja II.a eta Unai Narbaiza soinu jotzaileekin. Etzi, domeka, meza izango da 11:00etan, eta 12:30ean bertso-larien saioa egongo da. Parte hartuko dute Joxe Agirre eta Imanol Lazkanok. 18:00etan herri kirolen erakustaldia egongo da Unai Mugertza eta Elorriaga aizkolariekin eta Haimar Irigoien harri jasotzailearekin. Jaiei amaiera emateko, erromeria izango da, 19:00ak aldera, Epelde eta Lutxurdiorekin.

Bihar, zapatua eta etzi, domeka.

OÑATI

> San Lorentzo jaiak ospatuko dituzte abuztuaren 3an

Abuztuaren 3an, Motorsex, Sexty Sexers eta Bitz taldeek kontzertua egingo dute, 22:30ean. Abuztuaren 4an, Oñatiko Bertso Eskolako bertsolariak eta trikitilariak saioa egingo dute 19:00etan. Gainera, hurbildutako guztiei hirugiharra eta txorizoa banatuko zaie; baita edatekoa ere. 22:30ean, erromeria egongo da, Oihergi taldearekin. Abuztuaren 6an, meza izango da auzoko ermitan 12:00etan, auzoko hildakoen alde. Gero, Iturriaga eta Mendiluze bertsolariak saioa egingo dute eta 14:30ean, auzo bazkaria Larrain-Gain elkartearen. Abuztuaren 10ean, 12:00etan: meza nagusia egingo dute auzoko ermitan, eta, gero, luntxa izango da Larrain-Gain elkartearen.

Abuztuaren 3tik 10era bitartean.

ELGETA

> Salvador Eguna ospatuko dute abuztuaren 6an

12:30ean meza izango da; 13:00etan, txorizoa eta tortilla banatuko dute eta 13:00etan, hiru txirilo txapelketa egongo da; 13:30ean, sokatira izango da et 15:30ean, igerilekua jarriko dute Maalan. 21:30ean, herri afaria izango da.

Afarirako txartelak eskura daitezke Haizea edo Patxi tabernetan (15 euro).

Bestelakoak

OÑATI

> Natura ibilbideak Natura Eskolakoekin

Abuztuaren 4an *Mitologia eta historiaurrea* delako ibilbidea egingo dute; abuztuaren 5ean, *Uraren ibilbidea*; abuztuaren 18an, *Mendiko larreak eta artzaintza* eta abuztuaren 19an, *Arantzazu erreka eta kobazuloak*. Ibilbide guztiek lau orduko iraupena dute eta bost euroko prezioa. Irteera ordua guztietan da 09:00ak, Arrikruzteko parking-etik.

Izenematea Turismo Bulegoan: 943 78 34
53. Informazio gehiago: www.oinati.org



Belle Toujours ***

Zuzendaria: Manoel de Oliveira.

Aktoreak: Michel Piccoli, Bulle Ogier.
Portugal. 2006.
70 min.

Benetan meritu handia du Manoel de Oliveiraren zuzendari portugaldarrak, ez da gauza erraza film bat egitea. Gainera, 100 urte inguru ditu, eta oraindik zinema munduan lanean dago. *Belle toujours*-ek (jatorrizko hizkuntzan azpitituluekin estreinatu da) duela 40 bat urte Luis Buñuelen egindako *Belle de jour* filmaren pertsonaia batzuk hartzen ditu, eta film haren gertakizun batzuekin jokatzen komedia dotore eta dibertigarria egitea lortu du Oliveirak.

Belle toujours-en iraupea hirurogeita hamar minutu ingurukoa da. Kontatzen zaigun istorioa nahiko txikia da: 40 urtean elkar ikusi ez duten bi pertsonak berriz topo egiten dute eta afaltzeko geratzen dira. Filmak kontu motzen tankera du, eta garrantzi handia ematen dio bi pertsonaien artean sortzen den katu-arratoi jokorearen deskribapenari. Joko guztiek erregela eta eman behar diren pauso batzuk dituzte, baita zeremonia bat ere, eta hori dena dotoreziaz azalduta dago. Oliveirak hirurogeita hamar minutu-ekin nahikoa du kontatu nahi duena erakusteko, eta, horrela, presarik gabe, badu digresiorako denbora (tabernariarekin dituen elkarrizketak), Parisen presentzia erakargarria, Dvoraren musika entzuteko aukera emateko eta afaria detaile guztiekin azaltzeko. Osagai horiei Michel Piccoli eta Bulle Ogierren lana gehituz gero, komedia ironiko eta nahiko bihurria izango dugu.

Belle toujours-en kasualitateak, jokoaren erakarpenak eta sentsualitateak bere tokia dute. Nahiko askea da, bi pertsonaien artean sortzen den jokoaren deskribapena da. Modu horretan, joko horretan sartzea lortzen duen ikuslea dibertitu egingo da.

Antonio Zabala

Zinema

ARETXABALETA HERRIKO PLAZA

Babel
Egubakoitza: 22:30.

ARRASATE MONTEIRON

Nomadak TX
Egubakoitza: 22:30.

Cerdos salvajes
Abuztuak 3: 22:30.

Quien dice que es facil
Abuztuak 10: 22:30.

Shrek 3
Abuztuak 17: 22:30.

Motorista fantasma
Abuztuak 24: 22:30.

Norbit
Abuztuak 31: 22:30.

BERGARA SAN MARTIN PLAZA

Eutsi!
Abuztuak 2: 22:00.

Una verdad incomoda
Abuztuak 9: 22:00.

Mozart txakurra
Abuztuak 16: 22:00.

Noches en el museo
Abuztuak 23: 22:00.

Ekialdea ekialde
Abuztuak 30: 22:00.

EIBAR UNZAGA

Los Simpson
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena, martitzena eta eguazartena: 19:30, 22:30.

GASTEIZ GURIDI

Los Simpson
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Turistas
17:00, 19:45, 22:30.

Harry Potter y la orden del Fenix
17:30, 20:00, 22:30.

Next
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

La suerte de Emma
20:30, 22:30.

Transformers
17:00.

Harry Potter y la orden del Fenix
17:00, 19:45, 22:30.

Shrek Tercero
16:30, 18:30, 20:30, 22:30.

Atasco en la nacional
20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Las consecuencias del amor
17:30, 20:00, 22:30.

Idiocracia
17:30, 20:00, 22:30.

Suspiros del corazon
18:00, 20:15, 22:30.

Abril
18:00, 20:15, 22:30.

Fast food nation
20:00.

Odette, una comedia sobre la felicidad
18:00, 20:15, 22:30.

Cuatro minutos
17:30, 20:00, 22:30.

Obras en casa
17:30, 20:00, 22:30.

El delantal de Lili
17:30, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Atasco en la nacional
12:15, 16:35, 18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Turistas
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

Los Simpson
12:15, 16:15, 17:15, 18:15, 19:15, 20:15, 21:15, 22:15, 23:15, 00:15.

El guia del desfiladero
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

Next
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

Harry Potter y la orden del Fenix
12:15, 15:45, 17:30, 18:45, 20:30, 20:35, 21:45, 22:35, 00:30, 00:35.

Transformers
12:15, 16:00, 17:00, 19:00, 22:00, 23:00.

28 semanas despues
20:10, 22:10, 00:10.

Cafe solo o con ellas
12:15, 16:10, 18:10.

Erase una vez... un cuento al reves
12:15, 16:50, 17:50.

Ocean's 13
19:50, 22:20, 00:40.

Shrek 3
12:15, 16:20, 17:20, 18:20, 19:20, 20:20, 22:20, 00:20.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
18:15, 21:15, 00:10.

Zodiac
21:20, 00:15.

Spiderman 3
12:15, 15:40.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Lucky you
17:00, 19:30, 22:15, 01:00.

Los Simpson
16:00, 16:20, 18:00, 18:20, 20:00, 20:25, 22:00, 22:30, 00:15, 00:45.

El guia del desfiladero
16:00, 18:10, 20:20, 22:35, 01:00.

Next
16:10, 18:10, 20:10, 22:20, 00:30.

Turistas
16:25, 18:25, 20:30, 22:35, 00:45.

Harry Potter
16:05, 16:30, 19:05, 19:30, 22:05, 22:25 01:00.

Transformers
19:15, 22:10, 01:00.

28 semanas despues
16:10.

Cafe solo o con ellas
15:50.

Shrek Tercero
16:05, 18:05, 20:10, 22:15, 00:30.

Piratas del Caribe en el fin del mundo
16:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguena, ikuslearen eguna.

nire aukera



Amaia Diaz de Monasterioguren
Dietista

Hondartzan paseatu

Gauden sasoi kontuan hartuta, eta eguraldia lagun denetan, naturarak eskaintzen dituen baliabideez gozatzea du gustuko Amaia Diaz de Monasterioguren oñatiarrak, familiarekin, etxeokoin batera: "Hondartzara joan eta urarekin kontaktuan paseatzea atsegindut". Bestalde, gauza gutxiarekin konformatzen dela dio: "Nahikoa dut patata tortilla eta sagardo botila lagun eta etxeokoin batera jatea", dio.

Amaia izan berri da, bost hilabeteko haurra du eta azken boladan lo gutxi egiten duela aitortu du. Hala, "oporetan siestatxoren bat gustura" egingo lukeela ere esan du.

Debagoienara datorren lagunari zer erakutsiko zenioke?

Oñati. Turismo Bulegora joan eta bisita gidatua hartuko nuke. Horrez gain, Arantzazu ere erakutsiko nioke, oso paraje ederrak dira eta. Donostia eta Bilbo ere erakutsiko nizkioke, eta Bizkaiko kostalde; izugarria iruditzen zait.

Izan zara Arrikruzten?

Oraindik ez dut aukerarik izan, baina badut joateko asmoa. Oso ondo egin didate berba.

Debagoienean jateko lekuren bat aukeratzeko-tan...

Asko daude. Azkenekoz Zelai Zabalen izan naiz. Dena den, esango nuke, oro har, Euskal Herrian oso ondo jaten dela, bertako produktuekin.

Oporretarako liburu bat gomendatuko diguzu?

Intrigazkoak gustatzen zaizkit; Mary Higgins Clarke, esaterako. Dena den, azken boladan amatasunarekin lotutako liburuetan murgilduta nago: umeen elikadura, heziketa...

Oporretarako planik baduzue?

Hemen inguruan ibiliko gara. Donostiara joango gara egun batzuetan; Araba aldera ere egingo dugu... Egun-pasak egingo ditugu.



Bi laguneren arteko gora-beherekin barre egiteko aukera eskaintzen du *Eutsi!*-k.

Babel

Euskal Herria, 2007. Zuzendaria: Alejandro Gonzalez Inarritu. Aktoreak: Brad Pitt, Cate Blanchett, Gael Garcia, Elle Fanning, Kōji Yakusho. 143 min. 15 urtetik gorakoentzako. Gaztelaniaz. Marokon bidaian den bikote estatubatuarri gertatutako gertakari tragiko batek herrialde desberdinetako lau familiarengan eragingo du. Halabeharrik loturik, kontinente, kultura zein hizkuntzak banatuta, pertsonaia bakoitzak familian aurkituko du kontsolamendua.

Eskasa:* Balekoa:** Ona:*** Oso ona:**** Bikaina:*****

Bajo las estrellas***

Espainia, 2007. Zuzendaria: Felix Viscarret. Aktoreak: Alberto San Juan, Julian Villagran. 100 min. Benito Lacunzak tronpeta jotzaile izna nahi du. Aita hil ondoren, jaio-terria itzuliko da, Nafarroara. Hara iritsi, eta Benitoren anaia parrandetak aspalidiko bere lagun batekin ezkontzera doala jakingo du; lagun horren alabarekin ere egingo du topo.

Steak

Frantzia, 2007. Zuzendaria: Quentin Dupieux. Aktoreak: Eric Judor, Ramzy Bedia. 85 min. 2016. urtea. Moda eta edertasun irizpideak asko aldatu dira. Moda berri batek jendea aurpegi *lifting*-ak egitera eramango du. Georgek orain gutxi egin du *lifting*-a eta udako oporretan Chivers buruzagi taldean sartu nahiko du. Blaise gaitzaleak, txikitako Georgesen lagunak, helburu bera izango du. Hortxe hasiko dira tira-birak.

Erase una vez... un cuento al reves

AEB-Alemania, 2006. Zuzendaria: Paul J. Bolger. Marrazki bizidunak. 87 min. Maitagarrien ipuinen munduan dena oso ondo doa. Baina egun batean, gaizkia eta ongia kontrolatzen dituen mago baten laguntzaileriek okerreko botoiari emango diote. Hemendik aurrera, gaizkileek ipuinen amaierak aldatuz gero?

Corazones solitarios

AEB-Alemania, 2007. Zuzendaria: Todd Robinson. Aktoreak: John Travolta, James Gandolfini. 108 min. Elmer C. Robinson eta Charles Hildebrand detektibeak Bihotz Bakartien Hiltzaileak bikotearen atzetik dabilta, haiek harrapatu nahai. Bikote horrek alargunak hiltzen ditu. Benetak gertaeretan dago oinarrituta film honen istorioa.

Descubriendo a los Robinsons***

AEB, 2007. Zuzendaria: Stephen J. Anderson. Marrazki bizidunak. 102 min. Lewisek etorkizunetik datorren mutil misteriotsu bat ezagutuko du: Wilbur Robinson. Biek denboran bidaia egingo dute.

Spiderman 3*

AEB, 2007. Zuzendaria: Sam Raimi. Aktoreak: Tobey Maguire, Kirstan Dunst, James Franco. 139 min. Parkerrek oreka aurkitu du Mary Janeren maitasunaren eta superheroiegin beharren artean. Baina, ekaiz baten ostean, haren trajea aldatu egingo da.

Zodiac****

AEB, 2007. Zuzendaria: David Fincher. Jake Gyllenhaal, Robert Downey. Saileko hiltzaile batek izua zabalduko du San Frantziskon. Bi kazetari-rendako obsesio bilakatuko da.

Barajuengo jaien ostean, agur

31 URTE ZABALIK Abuztuaren 16an, Barajuengo jaiak amaitutakoan, itxiko ditu Iparralde jatetxeak atek

PILOTALEKUA EGIN ETA GERO 1975ean egin zuten Barajuengo pilotalekua, eta urtebetera zabaldu zuten jatetxea

BEZERO FIDELAK Aramaiotik ez ezik, ibar osotik jende asko joaten da Iparraldera, bazkaltzera edo afaltzera

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Abuztuaren 16a iristen denean penaz itxiko dituzte Iñaki Errastik eta Mariasun Errastik Aramaio Iparralde jatetxeak atek -eurendako ez da jatetxea, merenderoa baizik, baina legeak dio jatetxea dela-. Pena, urte mordoa egin dituztelako bertan lanean. Baina penarekin batera lasaitua ere hartuko dute, Mariasunek dioen moduan, dagoeneko nekata daudelako: "Atsedean hartzeko ordua da. Nire gizonak dagoeneko 71 urte ditu, eta nik 68. Lehenago edo geroago egin beharreko pausoa da, eta hobe orain, osasunez ondo gaudenean".

Hori bai, Errasti bikoteak baino pena handiagoa hartuko dute jatetxean batzen diren auzotarrek, eta baita Debagoien osotik joaten diren bezero fidelek ere. Izan ere, jendeak badaki Iparraldeko sukaldeak baloratzen: "Denetik eskatzen dute hemen: txorizoa, solomoa, bakailaoa, legatza... Orain momentuan, tripakiz betetako kazola galanta daukat sukaldean". Hala,



IÑAKI ETA MARIASUN Abuztuaren 16an itxiko dituzte Iparraldeko atek; ordura arte, aprobetxatu.

XABIER URTZELAI

Mariasun izan da sukaldeaz arduratu dena, eta Iñakik egin ditu zerbitzari lanak. Abuztuaren 16tik aurrera, baina, lanak alde batera utzi eta zaletasunekin bete beharko dute denbora: "Ez pentsa horrek arduratzen ez nauenik! Denbora zerbaitetan eman behar da, paseoa egin...", esan digu Mariasunek.

Iñakik, berriz, ez dauka arazorik: "Taberna zabaldu nuenean lagun bati erregalatu nion eskopeta, eta orain beste bat erosi beharko dut!", esan digu, barrez.

ETA OPORRETAN, ZER?

Mariasunek urtero egiten du bidaiatxoren bat, baina Iñaki Aramaion egoten da gustura: "Hori bai, udaberrirako Benidormera egin behar dut bidai. Jendea hortxe ibiltzen da, Benidorm gora eta Benidorm behera. Han zer dagoen ikustera joan beharko dugu; eta deskuidatuz gero, bertan geratu!" [Barre]. Esandakoa, Iparraldeko 31 urtean ez duela aparteko sekreturik izan: sukalde ona eta umore hobea.

ahobero

"Zoritxarrez, hemen abertzaleak **afrikaners**-ak dira [Apartheid-a eragin zuten gutxiengo zuria], eurengeatik balitz, Sowetoko ghetto batean egongo ginatke "

Miguel Buen > PSEE-ko idazkaria

Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusiak ere oporralditxo behar du, Soweton edo berak gura duen lekuan.

iturri onetik

Aramaioko auzotarren erantzunak baldintzatuko du datorren urteko rallya

Zapatuan egin zuten Aramaio rally sprinta, eta antolatzaileek dagoeneko egin dute lehenengo balorazioa: "Ez zen istripu larriarik egon, iaz baino jende gehiago gerturatu da, eta balorazio positiboa egin dugu". Hori bai, oraindik auzotarrek berba egin behar dute, eta izan ditzaketek kekak entzun: "Neurri batean, auzotarren erantzunak baldintzatuko du datorren urteko proba", esan digu Julen Agirrek.

piperrautsa


Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Geldiunea

Zurrumbiloen bizi gara, hara eta hona, presaka. Eta sasoi honetan, bat-batean, gelditu egiten da dena. Akordatu orduko, urtean zehar ditugun eginkizun gehienetatik libre gaude. Denbora bestelako kontutan emateko moduan. Nik, aurten, inoiz baino gehiago eskertzen dut udako geldiunea. Seguruenik, bizi dudana -eta bizi nauen- zurrumbiloen inoizko indartsuena delako. Gozaten ari naiz, eginkizunak gelditu ahala.

Txoko hau astero betetzea da horietako bat. Gustuko eginkizuna dut, baina datorren astetik aurrera atsedean hartuko dut, hori ere gustura. Balantze egin izan dut beste urte batzuetan, trantze hau iritsita. Aurten ez. Besteak beste, akordatu barik txokoa bete zaidalako. Gozatu zuek ere geldiunea. Etorriko da-eta zurrumbiloen bueltan.

ai, ene!



Publiziterako onena, zentsuratua izatea

AEBetan zentsuratu egin dute pre-serbatiboak egiten dituen Trojan Evolve etxearen iragarkia. Baina horrek kalte ala mesede egiten du?

<http://www.trojanevolve.com/>



ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

UGARTE

AROTZTEGIA-ALTZARIAK



Arotz lanak orokorrean • Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak



ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

